

SENEZ

1996

ITZULPEN ALDIZKARIA

17 zk.



Ale berezia - Terminologia

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Ale berezia: Terminologia

17 zk.

1996

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, nahitaez, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

EIZIE





Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, "Jardín botánico" 1996
Maketazioa: Arantzazu Royo

© EIZIE

© Artikuligileek, testuena.

© Juan Azpeitia, marrazkiena.

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: S.S. 800/96

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Erredakzio Batzordea:

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Juan Garzia

Bego Montorio

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo



Helbidea:


Zurriola hiribidea, 14

20002 DONOSTIA

Tel.: (943) 27 71 11

Fax: (943) 27 72 88

EIZIE



María Teresa Cabré Castellví	
ELKARRIZKETAREN EUSKARATZAILEA: KORO NAVARRO	7
Terminologia eta traduktologia EHU-UPVn	
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU	17
Terminologi lanaren metodologia	
ARACELI DÍAZ DE LEZANA	29
Administrazio sanitarioko euskara: egoera, itzulpena eta arazo terminologikoak	
ROBERTO MANJÓN LOZOYA	39
Hizkuntza eguneratzeaz	
IÑAXIO LÓPEZ DE ARANA. LIDIA BEITIA	61
Miren Azkaraterekin berbetan	
ELKARRIZKETA: KOLDO BIGURI	75
Terminologia gora-behera	
JOSU ZABALETA	83

aurkez

pena

Terminologiari osorik eskainia da SENEZen zenbaki berezi hau, alor hori oso garrantzitsua delako euskara modernoak hainbat esparrutan behar duen normalizaziorako. Hemen bildu ditugun artikulua eta elkarrizketekin ezinezkoa da, noski, gaiak merezi duen sakontasuna ematea, eta pintzelkada solte batzuk bakarrik aurkituko dituzu, baina interesgarriak, uste dugu, eta gogoeta egiten lagunduko dutenak.

Izan ere, irakurlea gonbidatu nahi dugu hausnartzera gure artean terminologiari ematen zaion tratamenduaz, argi dagoelako, bestalde, alor horrek ez duela itzultzaileengan bakarrik eragiten, baizik eta langai eta lantresna duten guztiengan, eta, haien bitartez, euskal hiztuneria osoan. Eta lehen galdera berehala sortzen da: ematen al zaio terminologiari guztiengan duen eraginaren arabera garrantziarik? Non eta nork lantzen du, zein bitartekorekin, zein azpiegiturarekin? Non prestatzen eta trebatzen dira terminologoak gure herrian? Nahikoa al da noizean behin norbaitek halako hiztegi bat argitaratzea esparru berezi batez?

Erantzunek, ez dugu uste, ez digute baikor izateko arrazoi askorik emango. Are gutxiago gure artean sakabanaketa handiz egiten den lanaren oinarriak sendoena izan beharko lukeena (adostasuna) askotan falta denean; adibide oso esanguratsu moduan, hor dugu eradaraz "Comunidad Autónoma Vasca" delakoa euskaraz ematean han eta hemen, bakoitzak nahi duen modura, erabiltzen diren formula desberdinak, berez Euskaltzaindiak bat hobetsita eduki arren.

Euskalgintza osoa (irakasleak, ikasleak, hedabideak, itzultzaileak, idazleak...) horren behar handia edukita, gutxienezko baldintzak betetzera doi-doi iristen gara. Kanpokoengandik zer ikasi franko geratzen zaigu oraindik. Bere xumean, aldizkari honek bere ekarpena egitea nahi genuke.

María Teresa Cabré Castellví

EUSKARATZAILEA: KORO NAVARRO



María Teresa Cabré Castellví dokto-rea da Hizkuntzalaritza Erromanikoan, Hizkuntzalaritza Deskribatzaileko irakasle izan da Bartzelonako Unibertsitatean eta Pompeu Fabra Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Terminologiako katedraduna da; Pompeu Fabran Hizkuntzalaritza Aplikatuko Institutuan lanean ari da. Terminologiako Ibero-amerikar Sarcaren sortzailea da, TERMCATen lehen zuzendaria izan zen eta *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones* obraren egilea da (Bartzelona: Antártida, 1993).

Elkarrizketa honetan, hispaniar munduko terminologia espezialista entzutesuenetako batek, María Teresa Cabré Castellvík, terminologiak gaur egun munduan duen garapena aztertu eta jakintza honen ikuspegi zabalagoa proposatzen du, kontuan hartuko duena ez bakarrik praktika, baita hari buruz teorizatze aukera ere. Horregatik, honela dio: "Terminologia zientzialariek elkar ulertzeko zuten beharretik jaió zen, baina, gero, bestelako bideak hartu zituen, eta bestelako eginkizunak betetzen hasi zen. Arazoa sortu zen estrategia bera aplikatu nahi izan zitzairenean helburu guztiei. Eta ez da gauza bera xedetzat hizkuntza planifikazioa duen terminologia, batetik, eta bestetik, normalizazioa, zentzu industrialean, helburu duena. Nolanahi ere, terminologia bezalako jakintza arteko alor guztiek osoaldi zailak gainditu behar izaten dituzte sendotzen diren arte".

* Elkarrizketa hau *Voces* aldizkarian argitaratu zen (21 zk., 1996ko apirila)

■ *Nola definituko zenuke zuk lantzen duzun espezialitatea? Hizkuntzalaria zara ala terminologia?*

Lexikologian espezializaturiko hizkuntzalaria naiz, katalan gobernuaren eta Katalan Hizkuntzaren Akademiaren eskaeraz, 1984. urtean, Kataluniarako plangintza terminologiko baten diseinua egitearen ardura hartu zuena. Bide horretatik sartu nintzen ni terminologian, baina ez dut inoiz neure burua terminologo gisa definitu. Beste arrazoien artean, terminologo ogibide batez hitz egiterik ba ote dagoen ere ez dakidalako. Lan terminologikoz edo ezagutza terminologikoz hitz egin daiteke, hori bai, baina ez terminologo ogibide batez.

■ *Terminologia lexikografiaren barneko azpisail moduan kokatuko al zenuke?*

Ez. Terminologia bere lekua eta bere nolakotasun berezia duen alorra da, baina beti ere bestelako ogibideekin eta beste jakintzeekin harremanetan dagoena, esate baterako, itzulpen, lexikografia, informatika, dokumentazioa edo hizkuntzalaritza konputazionalarekin.

Terminologia eta jakintza artekotasuna

■ *Nola definituko zenuke terminologia?*

Nik esango nuke benetako jakintza dela, hizkuntzalaritza, filosofia eta espezialitateak ez bezalakoa, baina, aldi berean, horietatik datozen osagaietik elikatua. Beste alde batetik, halabeharrez dago lotua informatikarekin eta dokumentazioarekin, eta, alderdi praktikotik, gizartearen behar jakin batzuei erantzuna emateko ere balio du. Oinarri-oinarrian, jakintza arteko materia gisa defini daiteke.

■ *Ba al dago esaterik terminologiaren bereizgarria jakintza artekotasuna dela?*

Bai, baina alor horren barruan komunikazio profesional eta espezializatura mugatua dago, ez du komunikazio orokorra lantzen.

■ *Zeintzuk dira hiztegi berezitu baten bereizgarriak?*

Hiztegi berezitu baten bereizgarriak, hiztegi orokorraren aldean, dira, lehenik, itxura, egitura, eta bigarren, hitz bilketak hartan bestelako helburuak dituela. Hiztegi berezitua osatzen da, hain zuzen ere, komunikazio profesionalari nolabaiteko bermea emango dioten izendapenak finkatzeko.

■ *Zer alde dago termino baten eta hitz baten artean?*

Terminoak espezialitate eremuetan dira termino, ez beste inon. Espezialitatearen eremutik ateratzen diren unean bertan, eta hiztegi orokorreko bihurtzen direnean, termino izateari utzi eta hitz bihurtzen dira. Eta, horrexegatik, ezin dira termino berezituak hiztegi orokorretan terminologia batean bezala definitu. Hiztegi orokorretan, definizioak ulerkorrek gertatu behar zaizkio erabiltzaile arruntari, termino horiek orokor bihurtu direlako. Arazoa da ordea ez dagoela muga zehatzik gauza baten eta bestearen artean. Bizitzako gauza guztietan bezala, mutur-muturrak desberdinak dira, baina, hurbildu ahala, eremu laino bat agertzen da terminoak hedatu diren lekuan, hiztegi orokorraren erabilera arruntera heldu gabe, ordea. Tarteko eremu horrek aldi berean izaten ditu hiztegi orokorraren ezaugarriak eta hiztegi berezituarenak.

■ *Ba al dira hiztegi orokorretik oso hurbil dauden eremu terminologikoak?*

Bai, zeren komunikabideen eta irakaskuntzaren hedatzearekin batera demokratizatu egin baita ezagutza. Hori dela eta, zenbat eta kultura zabalagoa, edo alor espezializatu eta kultura maila handiagoa izan, orduan eta gehiago hedatuko da hiztegi orokorra. Izan ere, badira garai batean espezialistek huts-hutsik erabiltzen zituzten terminoak, eta gaur egun hiztun arruntak erabiltzen dituenak.

Esanahia eta definizioa

■ *Nola ikusten duzu zuk esanahiaren arazoa?*

Nik esango nuke *esanahia* eta *definizioa* bereizi behar direla. *Esanahia*, izatez, semantika da beti. Baina terminologo batek esanahiaz duen ikuspuntua eta hizkuntzalari batek duena desberdinak dira. Hizkuntzalariarentzat, hiztegieta ematen da hitzen esanahia. Hiztegieta, esanahitik abiatuta, hitz bat aski berezitua gertatzen da beste hitzen ondoan. Aitzitik, terminologoak *finkatu* egiten du termino baten esanahia, erabat *zehaztua* gera dadin. Hizkuntza esanahia alor bereko beste hitzei buruzko oposizioaz zertzen da beti. Terminologiaren kasuan berriz, esanahia ez da oposizioz bakarrik gauzatzen, aitzitik, azalpenaz eta deskribapenaz ere gauzatzen da.

■ *Orduan, termino baten deskribapenak hitz batenak baino askoz zehatzagoa izan behar du.*

Askoz ere zehatzagoa. Eta, batzuetan, deskribapen hori ez da bat etortzen hiztunek gauza jakin bati buruz duten ikusmoldearekin. Baleak adibidez, edozein hiztunentzat, arrainak dira. Eta zientzialariarentzat, berriz,

ugaztunak. Beste adibide bat: geologoentzat, hondarra arroka bat da. Hiztun arrunt barentzat ordea, arroka gauza trinkoa da, gotorra, handia, eta, beraz, hondarraren antzik batere ez duena. Horrek esan nahi du zientzialari batek errealitatea antzemateko duen era eta hiztun arrunt batek duena desberdinak direla. Errealitatea berbera da, baina modu desberdinean jaso.

■ *Esan al genezake terminologiak, terminoetan gauzatuta, jakintza bakoitzak munduaz duen ikusmoldea agertzen duela?*


Bai, baina mugatu ere mugatzen du. Nik beti esaten dut terminologiak, ahalik eta zehaztasun handiena lortu nahian, munduaren ikusmolde orokorra txikiagotzen duela. Baina horrek ez du erremediorik, zientziak formalizazioa behar baitu aurrera egin ahal izateko.

■ *Har al daiteke terminologia jakintza zientifikotzat?*

Ikusmolde klasikoek gai tekniko eta zientzifikotzat hartzen zuen terminologia. Baina, aurrera egin ahala, eguneroko jarduneko beste eremu batzuk sartu dira hiztegi berezitan. Gaur egun, eremu horiei *jardun alorrak* esaten zaie. Eguneroko bizitzako edozein jardunek behar du terminologia jakin bat, baina jardun alor bateko terminologia maila ez da puntako zientzia edo zientzia abstraktu baten maila bera. Alde horiek guk *abstrakzio gradu* deritzogunari dagokie.

■ *Uste duzu hizkuntza berezietuek hiztun arruntarentzat ulerkorrago beharko luketela izan?*

Ez. Nire ustez, komunikazio egoera bakoitzak abstrakzio maila jakin bat erabiltzea eskatzen du. Eta *komunikazio egoera* esa-



ptideaz adierazi nahi ditut, batez ere, harremanetan jartzen diren solaskideen ezaugarriak. Eman dezagun jakintza sail bereko bi lankide teoria jakin bati buruz eztabaidan ari direla biltzar batean; erabil dezakete, jakina, oso terminologia abstraktua. Baina, lankide horietako bat, une jakin batean, irakasle lanetan ari bada, jaitsi egin beharko du abstrakzio maila ikasleek ulertuko badiote. Edo, beste era batean esanda, beste abstrakzio maila bat hartu behar du terminologian. Eta, adibidez, liburuxka bat egiten bada herritarrei lurrikareei aurre egiteko neurrien berri emanez, orduan are gehiago jo beharko du dibulgaziora terminologia mailak. Hau da, terminologia zehatza erabili behar da beti, beina *zehatz* izateak ez du esan nahi *abstrakzio maila berekoa* izan beharra dagoenik. Niretzat, terminologia ezin da ulertu ez bada komunikazioaren baitan.

■ Zure helburua izango litzateke, batez ere, komunikazio berezituena hobetzea...

Jakina. Eta edozein ikuspuntutatik gainera, zeren komunikazioaz ari naizenean, bai zientzialarien arteko komunikazioaz, bai zientzialariaren eta entzulego orokorraren artekoaz ari bainaiz, eta prozesu horretan sartzen ditut gainera komunikazio bitartekariak, besteen komunikazioa errazten dutenak: itzultzaileak eta interpretariak.

Giza zientzietarako terminologia bat

■ Zer gertatzen da, jakintza baten baitan, esanahi bakarra ez duten terminoekin? Adibidez, testu terminoak, hizkuntzalaritzan, ez du definizio bakarra.

Terminologia jaio zen, oinarri-oinarrian, gai zientifiko eta teknikoan barruan, eta oso helburu zehatz batekin: izendapenak finkatzea, diziplinen arteko komunikazioa unibokoa izan zedin. Baina badira uste dutenak jakintza guztiek arau berberen mende behar dutela egon. Eta giza zientzien baitan gauzak ez dira *bai* ala *ez*. Are gehiago, gertaera beraren aurrean, ikusmolde desberdinak proposatzen dira. Hizkuntzalari gisa badakigu *morfema* hitzak esanahi desberdinak dituela teorien arabera. Eta gauza bera gertatzen da, adibidez, *argumentu* hitzarekin; baina hizkuntzalaritzaren hiztegi orokorra egin nahi bada, zehaztu egin beharko da zein esanahi duen termino bakoitzak eskola bakoitzean, horixe baita hizkuntzalaritzaren errealitate berezitua. Alegia, jakintza bat formalizazio artifizial baten mende jartzeak ez du inoiz onik ekartzen. Hori, terminologia termino, kontzeptu berezituena bilduma gisa ulertzen badugu. Baina, terminologia huts-hutsik komunikazioaren zerbitzura dagoela pentsatu beharrean, pentsatzen badugu, adibidez, dokumentuen sailkapenaren zerbitzura da-

goela, terminologiaren erabilera metalinguistiko edo metaterminologiko baten aurrean aurkituko gara. Dokumentalistek beren tesauruak osatzeko erabiltzen dituzte hizkuntza naturalaren atalak, informazioa sailkatzeko bitarteko gisa, eta informazioa errazago iristeko. Hori, ordea, ez da terminologiaren erabilera naturala. Terminologiaren erabilera naturala komunikazioa da: espezialisten arteko komunikazioa edo dibulgazio diskurtsoko komunikazioa, espezialisten eta jendearen artekoa. Bestalde, nik ez dut uste erabateko etena dagoenik hizkuntzaren eta terminologiaren artean, edo lexikoaren eta terminologiaren artean, hizkuntzalari sentitzen naizelako agian. Dena den, azterketa objektu gisa, alor interesgarria da terminologia, eta hizkuntzalaritzak ez du ukitu. Eta ez du ukitu, praktikak, bere balio politiko eta komertzialak, terminologia gehiegia markatu duelako. Geure erantzukizuna da, ordea, terminologiari beste lekuetatik heltzea. Orain, gure institutuan, testu bankuen antolamenduan dihardugu, ez banku terminologikoen antolamenduan, zeren testuak baitira guretzat terminologiaren *habia* naturala. Testu berezituen analisisa interesatzen zaigu, ezagutza zientifikoa ez baita terminoen bidez iristen, testuen bidez baizik. Terminoak, izatekotan, puntu esanguratsuak dira, ezagutza irakurtzea edo diagonalen ezartzea ahalbidetzen dutenak.


■ *Gainera, testu banku batek eraman gaitzake termino banku batera, baina ez alderantziz.*

Garbi dago hori, nik uste. Hala ere, oso zaila gertatzen zait jendea horretaz komentzea, paraje hauetan batez ere. Kontua da jende guztiak pentsatzen duela banku terminologikoak osatu behar direla, eta nik berriz

ezagutza testuetan agertzen dela uste dut, ez terminoetan. Adibidez, terminologiak beti baztertu izan ditu elkarketa partikulak edo elementu gramatikalak, eta hori zalantzan jartzen da orain. Eta ez bakarrik jakintza hau ikusteko moduak ugaritu egin direlako; teoria askoz gehiago lantzen delako ere bai. Nik esango nuke une hauetan bide sozioterminologiko bat zabaltzen ari dela, eta aldi berean garrantzia hasi zaie ematen testu eta sintaxi motako fenomenoari. Eta orain arte, ez alderdi sozialak, ez sintagmatikoak, ez dira inoiz azterketa terminologikoen parte izan.

■ *Horrek esan nahi du terminologia, jakintza gisa, zabaltzen ari dela.*

Bai, ikusmoldeak eta ideiak zabaltzen ari direlako. Orobat ere, egia da terminologiaren jarduna beharrezkoa dela helburu jakin batzuetarako, esate baterako, glosarioak sortzeko. Baina terminologiaren eremua ez da horretara mugatzen.



■ *Nola lantzen da itzultzaileentzako glosario elebidun bat?*

Nire abiapuntua da itzultzaileak, definizioak baino areago, testuak behar dituela. Hortaz, itzultzaile batentzako glosario bat egin beharko banu, aurrena, zer eratako glosarioa behar duen aztertuko nuke. Glosario deskribatzaile bat beharko balu, sarrera bakoitzaren erabileraren testu adierazgarrienetako batzuk bilduko nituzke hiztegiko artikulua bakoitzean, eta kategoria sintaktikoari buruzko datu batzuk ere erantsiko nizkieke. Baina, batez ere, testuinguruak bilduko nituzke.

■ *Esan berri diguzunez, gaur egun, testuen corpusak ikertzen diharduzu. Zein eratako testutan oinarritzen duzu ikerketa?*


Lege, ekonomia eta ingurugiroari buruzko testuak ikertzen ari naiz. Gainera, multimediaren bidez ari gara lantzen terminologia. Beste alde batetik, ingurune katalanean ari garenez gero, hizkuntzaren erabilera funtzioarentzat sortzen dugu terminologia, eta aurrean dugu beti terminoek erabileran duten implantazioaren arazo soziala. Ez ditugu sortu nahi gero apaletan geratuko diren glosarioak, edo hizkuntzaren zuzentasunak edo kalitateak bakarrik kezkatzen dituen pertsonak erabiliko dituztenak. Gure kezka da glosarioekin zer egin, erabilera errealairen parte izatera irten daitezten. Hizkuntza bateko hiztun arruntari ez zaizkio interesatzen, zuzenean behitzat, terminoak; ideiak interesatzen zaizkio. Ingurugiroaz arduratzen den norbaitek gai horri buruzko testuak irakurriko ditu, ez ditu glosarioak irakurriko. Eta horrexegatik, testuaren baitako terminologiaren aurkezpen sistema bat hasi gara lantzen, hipertestuaren bitartez, irudiarekin batera.

■ *Nola agertuko zenioke, irakurle ez tekniko bati, testuaren eta hipertestuaren arteko aldea?*

Hipertestua da, besterik gabe, testu baten askotariko irakurketa bideratzen duen estrategia bat. Testu baten irakurketa sekuentziala izan daiteke, edo ikuspuntu desberdinetan oinarritua. Testu bati hipertestu programa bat aplikatzen zaionean, nabigazio lerroak eraten dira testu hori korritzeko. Nabigazio lerro horiek kontzeptu sistemak dira, testu horren atzean dagoen pentsamendua.

■ *Eta pentsamendua, noski, ez da inoiz linealki gauzatzen...*

Halaxe da. Hipertestuak askotariko irakurketa ahalbidetzen du, testuaren edukia aldi bereko ikuspuntu anitzetatik sakonduz, irakurketa sekuentzialean inork sortuko ez lituzkeen erlazioak sortzen baititu.



Terminologiaren teoria

■ Zein posiziotan zaude zu terminologiaren teoriaren baitan?

Nik beti esaten dut nire azterketa objektua, terminologian, ahozko hizkuntza artikulatua dela. Ez hizkuntza idatzia, hori niretzat ahozkoaren osagarria da-eta. Horretan badu zerikusia hizkuntzalari izateak, jakina. Baina, bestalde, pentsakera linguistikotik ere urrundu naiz zertxobait; izan ere, hizkuntzalariak uste dute terminologia lexikologiaren adar bat dela, batera berezitasunik gabea. Nire posizioa da terminologiaren bitartez ikus daitezkeela hainbat fenomeno lexikoaren azterketaren parte ez direnak. Har dezagun adibide gisa katalana bezalako hizkuntza bat, badituena grafia batzuk erabilera landuari dagozkionak, adibidez, "l" bikia ("l" bikoi-tza), latinetik datorrena. "L" biki hau askoz sarriago agertzen da terminologian hiztegi arruntean baino. Zergatik? Bada, besterik gabe, terminologiak askoz ere maizago jo duelako oinarri greko-latinera hiztegi arruntak baino. Horregatik, morfologikoki eta grafikoki (ez naiz ausartzen "fonetikoki" esatera) errejistro landuari dagozkien grafia horiek dituzten hizkuntzetan, terminologiak egoera berezia du. Bestelako elementu batzuk ere badira, pentsarazten digutenak terminologiak badituela bere berezitasunak, fenomeno semantiko jakin batzuen trataera adibidez. Esaten da terminologian ez dagoela polisemiarik, eta, bestalde, hiztegi arrunta, garbi-garbi, polisemikoa da. Hori arrazoi bategatik gertatzen da: komunikazio berezitan bakarrik ez dute terminoek beren balioa hartzen, kontzeptu alor jakin batean ere hartzen dute. Orduan, hiztegi arruntean polisemia dena, homonimia da terminologian, ez bai-

ta inoiz agertuko termino bat, alorren arabera dituen adiera desberdinekin, hiztegi berean. Har dezagun adibide moduan *birus* terminoa. Hiztegi orokor batean, *birus* sarrean, agertuko dira medikuntzako adiera, informatikakoa, arkitekturakoa, eta hitz horrek izan dezakeen beste edozein. Baina, terminologian, informazio hori eskuratzeko, hiru hiztegi desberdinetara jo beharra dago. Era horretan, hiztegi arruntak berez duen polisemia gutxitu egiten da hiztegi berezietan, eta horregatik aipatzen da terminologiaren *zehaztasun semantiko handiagoa*. Gainera, terminologia klasikoan, garrantzitsuenak izenak izan dira (ez aditzak edo adjektiboak), helburu nagusia erreferenteen izendapenak finkatzea zuelako, errealitate berezitu baten barruan. Aipatu ditudan auzi horiek ez ditut orain sakonduko, ez baitut astirik, baina halako berezitasun bat emango liokete terminologiari jakintza gisa; izan ere, askoz bereziatuago dago praktikaren aldetik. Terminologian, lan praktikoa ortodoxoak onomasiologiara jotzen du. Lexikografian berriz, eredu semasiologikoen gainean jardun gara beti. Hiztegi bat egiteko, aurrenik, definitu behar dugunaren izendegia osatzen dugu. Terminologian berriz alderantziz aritzen gara: kontzeptu sistema bat finkatzen dugu, eta gero kontzeptu horiei izenak ematen dizkiegu.

■ Lan nekezagoa al da terminologoarentzat glosario elebidunak osatzea?

Bai. Glosario horietan gainera terminologia egiteko jarduna eta itzultzea nahasten dira oso maiz. Orduan, kalkoek eta existitzen ez diren hitzez betetzen dira hizkuntzak. Aurreko batean, Europako Batasunaren glosario bat, tabakoari buruzkoa, aztertzen ari

nintzen ikasleekin, eta oso gauza bitxia aurkitu nuen. Nik dakidala, Hispanoameriketan inon ez zaio esaten hosto baten zainari *costilla*. Hala ere, hiztegi horretan, espainierarentzat, termino hori ageri da beti. Eta hori gertatzen da frantses hitzetik (*côte*) itzuli delako. Horrelakoak asko eta asko aurkitu ditut. Eta, berriz diot, arazoa da terminologia eta itzulpena nahasten direla.

■ *Eta bi eremu guztiz desberdinak dira...*

Bai, guztiz desberdinak. Terminologia egitea da kontzeptu sistema bat antolatzea eta kontzeptu horiek dituzten izendapen errealak idatziz jasotzea. Askotan entzuten da gizarte guztiek garapen maila bera ez dutenez, kultura bateko errealitate batzuk, batzuetan, ez dutela izendapenik bestean. Baina hori ez da egia; errealitateak ezagutzen badira, izendapena ere izango dute. Nik askotan esaten dut ez zientzialariek ez teknologiariek ez dutela beren lana eteten termino bat falta dutelako. Hitzen faltagatik ez da sekula komunikazioa eteten. Horrelakorik gertatzen bada, ideia faltagatik izaten da. Horregatik, ez du zentzurik "terminologiarik ez dago" esateak. Beti dago terminologia. Esatekotan, esan genezake ez dugula nahi dugun terminologia, edo egokiena, edo gure hizkuntzan adierazia, baina hori beste arazo bat da, *neologia* edo *terminologia planifikatuarena*. Zorritzarez, era horretako esanek pentsarazten didate nahasmen handia dagoela oraindik ere gure alorrean.

■ *Eta nondik uste duzu datorrela nahasmen hori?*

Leku askotatik. Hasteko, nire ustez, jakintza guztietara saiatu gara aplikatzen agian teknikan eta zientzietan bakarrik erabil dai-

tekeen metodologia bat. Lehen, giza ikasketak eta gizartearenak ez ziren zientziaz hartzen, eta inork ez zituen lantzen. Baina lantzen hasi zirenean, tekniken eta zientzien metodologia erabiltzen hasi zen, konturatu gabe alor horiek ez zituztela ez ezaugarri ez baldintza berak. Eta hortik arazo bat sortu zen, gero, terminologiaren barruan, beste era batean bideratu behar izan zena. Baina bestelako arazoak ere izan ziren nahasmen horretan. Terminologia zientzialariek elkar ulertzeko zuten beharretik jaio zen, baina, gero, bestelako bideak hartu zituen, eta bestelako eginkizunak betetzen hasi zen. Arazoa sortu zen estrategia bera aplikatu nahi izan zitzaieanean helburu guztiei. Eta ez da gauza bera xedetzat hizkuntza planifikazioa duen terminologia, batetik, eta bestetik, normalizazioa, zentzu industrialean, helburu duena. Nolanahi ere, terminologia bezalako jakintza arteko alor guztiek oso aldi zailak gainditu behar izaten dituzte sendotzen diren arte. Hizkuntzalaritzan, esate baterako, aurrera egiten hasi berriak ginen, teoria batetik kanpo aritzeak, nahitaez, emaitza subjektibo eta zientifikotasun eskasekoak ekartzen zituelako ideiaz jabetu ginenean.

Arauk eta terminologia

■ *Garbi dago gainditu nahi duzula terminologia soilil-soilik hitz zerrendak egitean datzalako ideia.*

Bai, baina, zorritzarez, finkatze, berdintze eta arautze ideiei lotua ageri da gehienetan terminologia.

■ *Eta ideia hori bera izan ohi du erabiltzaileak gramatikaz. Gramatika beti hartzen da arauemaitzat, inoiz ez deskribatzailetzat...*

Ez zitzaidan konparazio hori inoiz bururatu, eta hemendik aurrera erabili egingo dut, halaxe da eta. Nolanahi ere, ez dut baztertu nahi terminologiaren erabilera arauemailea. Izan ere, gramatika arauemaileak diren bezala, egin daitezke lan arauemaileak terminologian ere. Gauza da lan horiek ez dituztela besteak baztertu behar. Antzeko gauza gertatzen da hiztegiekin. Bada jendea uste duena hizkuntza batek hiztegi *bat* izan beharko lukeela. Ez dute ulertzen era askotako hiztegiak daudela. Eta hiztegi arauemaile bat hiztegi deskribatzaile bat baino aski mugatuagoa izango da. Hala ere, gauza ona da hizkuntza bat bere *ohiko erabileran* deskribatzea.


■ *Zer pentsatzen du terminologo batek, edo hizkuntzalari batek, Errege Akademiako hiztegiak?*

Nire ustez, Akademiari arauak ematea dagokio, eta gero bestelako lanak egiten utzi. Nik zuzendu dut katalan hizkuntzaren hiztegi arauemailearen eguneratze lana, 1932az gero egin ez dena. 40.000 hitz berri erantsi ditugu, eta 120.000 adiera berri. Hiztegi hau arauemaile gisa aurkeztu da. Horrek esan nahi du hiztegian agertzen dena dela Akademiak egokitzen hartzen duena. Baina horrek ez du esan nahi han agertzen ez dena desagokoa denik.

■ *Terminologiari dagokionez, zer esan nahi du planifikazio hitzak?*

Esan nahi du, batez ere, hizkuntza baten erabileraren hedapena, eta hizkuntza mino-

rizatuei buruz erabiltzen da. Quebecen, adibidez, hango hizkuntza-egoera dela eta, teoria sail bat sortu zen hizkuntza baten erabileraren hedapena helburu zuena, oso interesgarria. Biztanle gehienak frantses hiztunak ziren, eta enpresa koadroak ingeles hiztunak. Katalunian, berriz, langile gehienak gaztelaniaz mintzatzen ziren, eta zuzendariak katalanez. Horregatik, katalan hizkuntzaren hedatze plangintza askoz malguagoa izan da derrigortzeari dagokionean. Quebecoko kasuan, gobernuak esku hartu ahal izan zuen ingeles hiztunak zuzendari zirelako, eta, horregatik, aginte postuak betetzen zituztelako enpresetan. Katalunian berriz, langileen masan esku hartu behar zen, eta horrek, hasieratik bertatik, arazo sozial bat sortu zuen, eta baita sindikala ere. Horregatik, katalanaren egokitze, planifikatze eta normalizatze sistema Quebecen baino askoz ere astiroago egin da, eta, gainera, garrantzi handiagoa eman zaio eskola garaiko lanari. Terminologiak, bere aldetik, katalan hizkuntzaren normalizazio orokorraren plangintza hori bertu du, gure abiapuntua izan baita erabilera guztientzako egokia den hizkuntza batek baino ezin duela aurrera egin. Eta erabilera horietako bat profesionala da. Horregatik, hizkuntza baten presentzia sendotu nahi bada, komunikazioan izan daitezkeen erregistro guztietaraino iristeko baliapideak eman behar zaizkio. Bestela, hiztunek beste hizkuntza batera joko dute, denetarako balioko dien hizkuntzara.



Terminologia eta traduktologia EHU-UPVn

(Prestakuntza-egitasmo baten inguruko gogoetak)

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

Egia esan, terminologia eta traduktologiako prestakuntza ez da Unibertsitateak soilik eta bereziki behar duen zerbait, zeren irakaskuntzaren beste maila batzuetan edota kazetaritza bezalako lanbide batean ongi baino hobeki etorriko litzatekeen zerbait baita. Baina hemen eta orain izenburuko proposamena egitera ausartu banaiz, Euskal Herriko Unibertsitatearen egoera bereziak eta azken bi urte honetan harekin izan ditudan harremanek premia edo hutsune hori argiago ikustera eraman nautelako da. Bestalde, ez da neure subjektibismo hutsetik hauteman dudan zerbait, baizik eta fakultate desberdinetan euskal lerroan diharduten irakasleekiko elkarrizketan nabarmendu eta berretsitako zerbait.

EHU-UPVn une honetan 600 bat irakasle dabilta egunero gai desberdinenetan ingeles eta gaztelaniatik nagusiki apunteak euskaratuz eskolak prestatu eta ematen, eta milaka ikasle eskola horiek hartzen eta sarritan, lan osagarri gisa, gaztelaniaz irakurritako liburuetatik orrialde ugari euskarara itzuli eta

moldatzen. Fisika, kimika edo biologia bezalako alorretatik hasi eta filosofia, soziologia, pedagogia edo zuzenbidea bezalako jakintzagaietaraino doan aukera zabala dago informatika, medikuntza, ingeniarietza edo arkitekturatik iraganez. Ukaezina da alor konplexu eta zabal horietako testuen aurrean, agian berriegiak eta oraindik zientzia-estatus kolokati baten jabe diren terminologia eta traduktologia bezalako diziplinen oinarritzko nozioetan prestakuntza bat izateak laguntza ukalezina emango liekeela nola irakasleei hala ikasleei.

Gainera, aipaturiko sail horietan eta beste askotan, lan hori guztia oraindik bere burua bateratu eta finkatzen ari den hizkuntza baten baitan egin behar izateak, oraindik premiazkoagoa bihurtzen du horrelako prestakuntza. Bistan dago zailtasuna zailtasunaren gainean metatzen zaiela bi multzo horiei, eta zama hori askotan areagotua sentitzen dute alde zurretik behar adinako euskararen ezagutzarik gabe irakas/ikas-lanetan ari direnen sorbaldek.

Hemen, kontua ez da terminologoak eta itzultzaile profesionalak prestatzea —itzultzaileentzat lizentziaturak dauden bitartean, terminologoen prestakuntza bera ere arazotsua da—, baizik eta bi alor horietan, itzulpengintzan eta terminologian oinarrizko ezagutza batzuk eskaintzea irakasleei lehenik, beren eguneroko lana erraztu eta hobetzeko, eta ikasleei ondoren, erdarazko kontsulta-liburu eta artikuluetatik apunteak prestatu edo lanak burutzean gutxienezko segurtasun bat izan dezaten. Esan beharrik ez dago, zeinen probetxuzkoa izango litzatekeen euskarazko prosa zientifikoa gauzatzeko orduan eta ikasleen prestakuntza intelektualerako aipaturiko bi diziplina horietan oinarrizko nozioak izatea eta horien inguruan lan-sistema eta koordinazio-ekimenak antolatzea, itzultzaile eta terminologo profesionalek egin behar dituzten ekarpenen kalterik gabe. Gure kasuan UZEI, Elhuyar eta abar bezalako erakundeek zeresan berezia lukete, agian euskal filologian gai horietan berezitu edo gutxienez hurbil dabilen irakasleren baten partaidetzarekin. Bestalde, eguneroko eskolatarako idazten diren testu zientifiko-didaktiko horien corpus batekin, informatikariek ere bilketa eta indexatze-lan bikaina egin lezakete. Baina hori beste artikulua baterako gaia izango litzateke, eta itzul gaitezen izenburuko proposamenera.

Arntz/Picht (1995) eta M. T. Cabré (1993) adituek azpimarratzen dutenez, helburu desberdinak ditu terminologoak beste zenbait alorretako adituen aldean. Terminologoak alor jakin baten barruan terminologia-lan elebakar, elebidun edo eleanitz sistematiko bat burutzeko prestatu egon behar du, terminologia puntualerako lanak burutzeko eta beste batzuen lanak gainbegiratu, eta

horretarako hizkuntzalaritza, lexikologia eta semantika lexikoa bereziki, logika eta sailkakuntzaren teoria, dagokion gaiari buruzko espezializazioa, dokumentazioa, soziolinguistika, pragmatika eta informatika beharrezko ezagutzak ditu.


Baina badira beste kolektibo profesional batzuk terminologo izateko berariazko asmorik ez izan arren, terminologiako prestakuntza ezinbestekoa dutenak beren eguneroko lana egoki burutu ahal izateko, termino espezialduak beren eguneroko lanean etengabe aurkitu eta erabiltzen dituztelako, hala nola: hizkuntzaren profesionalak (itzultzaile, interpretari eta erredaktatzaile teknikoak), espezialistak (zientifiko eta teknikoak), informazio eta dokumentazioaren profesionalak, hizkuntz planifikatzaileak eta hizkuntzari aplikaturiko adimen artifizialean espezialduriko informatikariak eta abar.

Lehen aipatu ditudan EHU-UPVko euskal lerroko ikasle-irakasleak ere sail horretan sartuko nituzke, eta oraingoz ez dut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten irakasleen edo eskuartean erabiltzen dituzten lengoaiako testuetan terminologiak edo traduktologiak izan beharko lukeen sarrera eta lekuaren aipamenik egingo.

Oraindik orain EHU-UPVko irakasle-talde batekin harremanak izan ditudalarik, aski hurbiletik ezagutu dut irakasgai bakoitzari buruzko eskolak prestatzean izaten dituzten ezbaia eta zalantzek nolako ziurgabetasuna sortaraz dezaket. Eta honetan ere —hala uste dut behintzat— zentzu komuna eta harako *in medio virtus* harekin ibiltzea izan liteke onena, behar baino gehiago inor izutu gabe. Mutur batean bai traduktologia eta bai terminologiari buruzko profesionalismo agian esajeratu bat planteatzea legoke

eta bestean orain arteko egoera, inolako pres-
takuntzarik eta laguntzarik gabe egunero ara-
zo aski zaili irtenbideak aurkitu beharre-
na.

Bai itzulpenari eta bai terminologiari da-
gokienez, Corbeilek (1988) azken alorraz
dioena gogoan hartzea komeni dela uste dut:
“Il ne faut pas exagérer un certain profession-
nalisme de la terminologie —(traductologie)
erantsiko nioke nik—. La terminologie est
d’abord et avant tout l’affaire et la responsa-
bilité des différents groupes de spécialistes.
Le terminologue (le traductologue), avec ses
méthodes de travail et ses connaissances, n’est
qu’une aide technique dans une relation de
multidisciplinarité.”



Hizkuntza berezitua edo teknolektoa

Unibertsitateko irakasleek eskuarki *testu teknikoa* deitzen den baitan txertaturiko terminologia teknikoarekin lan egin behar izaten du, bai eskolarako apunteak edo artikulua idaztean, bai ahots goraz eskolan apunteak irakurriz eta hitz eginez edukiak garatzean. Orientazio tekniko edo zientifikoa duten lan-jarduerei buruzko irakasguneen inguruko komunikazioa *teknolekto* izeneko lengoia tekniko propio batean burutzen da. Alemanez “Fachsprache”, frantsesez “langue de spécialité” edo ingelesez “technical language”, “language of speciality” bezalako izendapenak erabiltzen dira. Euskaraz agian “hizkuntza berezitua” erabil genezake, “hiztegi berezitu” esamoldea erabiltzen dugun bezala. Teknolekto hori barietate desberdinetan eraten da eta horren berri izateak badu bere garrantzia testu tekniko edo zientifikoak itzultzerakoan.

Egia esan, terminologiari buruzko lan gutxi ageri da gure artean ia batere ez esatearren, baina Pierre Lerat (1995) frantses espezialistari sinestekotan, teoria linguistikoaren kezkarekin terminologiagintzaren alorra aztertzen duten lanak, Frantzia bertan ere, aski urriak dira. Bere ustez, “hizkuntza berezitu” en birdefinizio bat egitetik hasi beharko litzateke, “azpi-sistema” direlako iritzi arrunt eta faltsua baztertu beharra dagoelako. Bestalde, “teknolekto” izendapen analogikoak, “dialekto” bezalako izendapenekiko sasi-parekotasun (“parallélisme fallacieux”) batera eramateko duen arriskuaz ere ohartarazten gaitu.

Teknolektoa edo lengoia berezituak, ezaugarri bereziak ditu lexikoa eta sintaxiaren mailetan, eta ez da terminologiara mu-

gatzen; egia da izendapen berezituak (terminoak) erabiltzen dituela, sinbolo ez-linguistikoak barne, hizkuntza jakin baten ohiko baliabideak mobilizatuz ezagutza espezialdu edo berezituen berri emateko.

Teknolektoaren lexikoa hizkuntza arrunteko hitzez, termino tekniko estandarizatuz, termino tekniko ez-estandarizatu gisara erabilitako hizkuntza arrunteko hitzez eta lan-eremu edo diziplina jakin batean bakarrik erabiltzen ez diren termino tekniko estandarizatuz eraturik egon ohi da.

Sintaxiari dagokionean, berriz, tema (informazio ezaguna) remaren (informazio berria) aurretik izan ohi du, esaldi eliptikoak ugari, egitura sintaktiko simple samar eta tipikoak, eraikuntza inpersonalak, aposizioa ugari eta abar. Larriki aipatu diren ezaugarri horiek badute konplexutasun gehiagorik, noski, berriki A. M. Löffler-Laurian (1995) irakasleak dibulgazio zientifikoko diskurtsoaren jarraipen-adierazle batzuei buruz egindako azterketa batean erakutsi duenez; berak frogatzen duenez irakurleria zabal bati zuzenduriko dibulgazio zientifikoko diskurtsoa (irakaskuntzako zenbait eskola ere bali-teke zenbaitetan maila horretatik gehiegi ez urruntzea) egitura bikoitz baten gainean eraikia da: bata "erreal", hizkuntzaz kanpoko, historiarenean eraikia, eta bestea hizkuntzazkoa, diskurtsoarenaren gainean jaso. Bada jarraipen bat diskurtsoan gertakarien kateakuntzan jarraipen bat dagoen bezala. Baina formulazioek balio handiago edo txikiagoan jartzen dute jarraipen hori. Lehena, alderdi historikoa era beretsuan markatzen bada ere bi hizkuntza desberdinetan; bigarrena, hizkuntzazkoa, hartzaile-mota bakoitzaren arabera aldatu egiten da hizkuntza bakoitzaren baitan.

Baina teknolektoak era desberdinetako burutzapenak izan ditzake ("teknolektoen estratifikazioa") eta hertsu edo zorrotzena, *lengoaia zientifikoa* aurkitzen da, termino teknikoaren erabilpeneko kontsistentziarekin, "berri" gisa sartzen diren terminoen definizio zehatzarekin, lexikoari dagokionez; eta esamolde deskriptiboen nagusitasunarekin esamolde interpretatiboen aldean maila estilistikoan. Lengoaia zientifikoa idatzia izan ohi da, baina lengoaia zientifikoa idatziriko testuak ez du eragozpenik izaten ahoz (irakurritu) aurkezteko, nahiz eta oralizazio edo ahozkotzeak hizkuntzalaritza hertsitik harago doazen arazoak planteatzen dituen (formula kimikoen irakurketa, sigla eta akronimoen aurreko jokaera desberdinak, magnituden izenen ahoskatzea eta abar).

Teknolektoak utzi egiten dio hizkuntza zientifikoa izateari alor bera lantzen dutenak eskuarki beren artean komunikatzeko erabiltzen dutenean, eta orduan termino tekniko estandarizatuarekin batera hizkuntza arrunteko hitzak ere agertzen ditu, "jargoi profesional" gutxi-asko markatua hartzen duelarik. "Ofizio-hizkuntza" ere deitzen den horrek soziolekto, dialekto eta topolektoen eragina islatzen du.

Batzuetan, hizkuntza publizitarioan adibidez, teknolektoa hizkuntza komunera moldatzen da pertsona ez-espezialdui informazio tekniko helarazteko. Horrelakoetan termino teknikoak ahalik eta gutxien erabiltzen dira eta erabiltzen direnak ez-adituek ulertzeko modukoak izan ohi dira.

Bestalde, zientzialariak hizkuntza komuneko hitzak erabiltzen ditu sarritan termino zientifikoa gisara, baina hitzari adiera berria emanez (*multzo, ensemble, set, conjunto, Menge*).

Horrela, zientzia humanistikoetako lengoia hurbilago dago hizkuntza komunikatiboa, natur zientziak edo zientzia zehazketakotik baino. Zientzia humanistikoek intentsionalitate subjektiboaren ikuspegitik aztertzen dituzte fenomenoak eta horiek lantzeko erabiltzen den hizkuntzak eragina du errealitatea interpretatzen duten zientzialariengan, esanahi eta fiabardura aniztasuna sortaraziz. Horregatik, zientzia humanistikoren bateko testuak itzultzeak, termino askoren zehazkabetasunarengatik, zailtasun gehiago izan ohi du naturzientzia edo zientzia zehazketako ideolektoa itzultzeak baino.

Idatzi berezitua

Testua dioenak euskarria esan nahi du (harria, pergamua, papera, diskete elektronikoa) eta informazioa forman jartzea (esaldia, formula, irudia, eskema, diagrama, organigrama...). Kocourek (1991), hizkuntzalari funtzionalaren eskola txekiarreko kideak nabarmendu du agian beste inork baino argiago hizkuntza berezitua eta testu berezituaren arteko lotura gure artean dabilzan testu-moten aniztasuna ohartaraziz: estudioa, eskuliburua, tesia, monografia, memoria, konferentzia, eztabaida, elkarrizketa, kritika, erreportaia, erreseina, entziklopediako artikulua, laburpena, prospektua, foiletoa, zehaztapena, asmakuntza-patentea, kontratua, erabilpen-modua, gutuna, aurkibidea (taula alfabetikoa), gai-zerrenda, tesaurua, arau terminologikoa, hiztegi berezitua, bibliografia, katalogoa... Zerrenda hau asko luza daiteke ingeniari, administrazioko langile, komertzial edo abarri osatzeko eskatuz gero. Bistan dago, Gutenbergen galaxiak ez duela arriskurik des-

agertzeko, baizik eta Marconirena (entzun-ikusizkoarena) eta ahozkoarekin konkurrentzian bizitza luzea izango duela.

Testu-tipoen sailkakuntzari bagagotziko, berriz, gutxienez bederatziz bat multzo egin beharko genituzke:

- 1.- Zientifiko-teknikoak (katalogoa, memorandua, entseia, txostena)
- 2.- Juridiko, administratibo eta komertzialak
- 3.- Kazetaritzakoak (albistea-kronika / erreportaia / entrebista-iruzkina: (iritzi-artikuluak, zutabeak, editoriala, sail berezituak)
- 4.- Publizitarioak
- 5.- Kolokialak eta komikiak
- 6.- Prosazko literarioak
- 7.- Bertsozko literarioak
- 8.- Dramatikoak
- 9.- Humanistikoak...

Egoera honen aurrean, dagoeneko aipatua dugun Lerat-ek zuzen dioenez, hizkuntzalaritza derrigortua dago bere jarduerak desberdintzera eta bere printzipioetan inoiz baino gehiago bateratzera. XX. mendean ahozkotasanaren printzipioak ekarri dituen emaitza garrantzitsuak aitortu ondoren, XX. mendean idatzizkotasanak lortuak (konparatismoa, Grimm) aipatzen ditu, eta dialektoak eta testuak dauden bitartean dialektologia eta filologia landu behar direla esan ondoren, idatzi utilitarioei dagokienez kodatze ez-linguistikotik, irakurketatik (oralizazioa eta oralitatea bereizten ditu), itzulpen- eta mekanografiatze-arazoetatik sortzen diren gertakari berriez hausnarketa egitera gonbidatzen ditu hizkuntzalariak, "embarrassés

par des faits de civilisation d'une grande banalité" egon gabe.


M. Teresa Cabré (1992) adituaren sailkatzearen ildotik eremu terminologikoan hiru joera nagusi daude: ezagutzazkoa, plangintzazkoa eta itzulpenazkoa.

Lehenak, ezagutza ez-linguistikoa azpimarratzen du: definizioak, ohar teknikoak, lotura nozionalak, eskemak, argazkiak, hitz batean, idatzia eta ikusizkoaren artekoa.

Bigarrenak hizkuntza bereziaren kalitatea du helburu, administrazio publikoetan batik bat eta lexikografia puristarekin lotua egon ohi da.

Hirugarrena, —eta hemen guri gehien interesatzen zaiguna—, batez ere idatzian oinarritzen da. Itzultzaileentzako terminologiak, idealki, dokumentazio-mailako (lehen joerako) eta plangintza-mailako (bigarren joerako) arazo guztiak alde aurretik ebatziak edukitzea eskatzen du, eta hizkuntz azterketa aski landuak edukitzea itzultzaileak erabilerara banatzaile, eraldatzaile eta enuntziatzaileak egokia egin dezan.

Laburbilduz, esan genezake hizkuntza berezitua ezer baino lehen hizkuntza idatzia dela, terminologia testu bereziaren material bereizgarria dela, terminologia profesionala terminografia bat dela eta terminografiak ebatzitzat ematen dituela idatziaren arazo guztiak (bariazio grafikoa, marka ez-grafematikoen pertinentzia, erabilera-araua, enuntziatuen irudikapen informatikoa eta copyright-arazoak. Gauza gehitxo suposatuztat eman behar direnak eta gure irakasleoneguneroko lanaren basamortuko talaitik begiratuta Yahvek hebrearrei "agindutako lurraldea" dirudiena.



Prestakuntza-egitarau posible bat

Teknolekto edo hizkuntza berezituaz esanak esan ondoren, bi informazio-multzo ongi etorriko litzaizkioke gure Unibertsitateko irakasleari, eta ikasleari ere dagokion mailan, bere eguneroko lana egoki burutzeko:

- a) Teknolektoa eta terminologiari buruzko informazioa
- b) Teknolektoaren idazkuntza eta itzulpegintzari buruzko informazioa.

Batari zein besteari dagokionean, prestakuntzak benetakoa eta eraginkorra izatekotan, gutxienez Bigarren Hezkuntzatik hasi beharko luke, bi mundu horietara irakasgai desberdinetatik hurbiltze terminologikoa eginez eta bi edo hiru hizkuntzaren arteko lehen ariketa traduktologiko koordinatuak eginez. Bistan dago, gaur-gaurkoz hori utopia bat dela, eta aurreragoko lanik ere badugula, baina ez dut uste premia batzuk ase behar izateak beste batzuetarako lehen urratsak ematek saihestu behar gintuzke-

nik. Aipaturiko bi alorretan izan beharko genukeen ikerkuntza eta antolakuntzatik urrun samar bagaude ere, ez dira gutxieste-koak gure artean dagoen teoria eta praktikaz-ko ezagutza horretaz baliaturik diseinatu beharko litzatekeen lehen hurbiltze-saio bat. Bitartean, sail desberdinetako irakasleek aha-lerin berezi bat egin beharko lukete hizkun-tza berezituak ikasleekin lantzen, terminolo-gikoa dena terminologikoki tratatzen, forma berezituak idatzarazi eta irakurrarazten, sin-taxi dimentsioanitz irakasten, semantika lin-guistikoa egiten, enuntziatu berezituak itzul-tzen, hiztegiak ongi erabiltzen eta abar beza-lako jarduerak bultzatzen.

a) Lehenari dagokionez, aski da merkatu hurbilenean ditugun terminologiari buruzko liburu batzuk aztertzea: Cabré (1993), Arn-tz/Picht (1995), Rey (1979), Rondeau (1984), Lerat (1995) adibidez, eduki-mul-tzo batzuen interesgarritasunaz ohartzeko.

- 1.- Terminologiako sarrera baten ondo-ren, lengoaia espezialdua eta lexiko es-pezialdua, kontzeptu eta kontzeptu-sistemaren nozioak, definizioa, kon-tzeptu-eremuak; izendapena eta izendapengintza (terminologiagintza, eratorpena, bihurketa, mailegua eta kalkoa, laburtzapena, hizperria, mo-tibazio morfologiko eta semantikoa; sinonimia, polisemia eta homonimia; eta abar.
- 2.- Terminologiaren normalkuntza (orokorra, terminologikoa, erakun-deak...). Terminologia eta neologia, baliokidetzak, lexikografia terminolo-gikoa (Hiztegi mota guztiei buruzko informazioa). Plangintza terminolo-gikoa.

3.- Terminotika (Informatikak termino-logiari egindako ekarpenak, termino-logia eta hizkuntz industriak, datu-bankuak, datu terminologikoen bankuak.

4.- Azkenik, terminologia eta dokumen-tazioa eta talde-lana terminologiagin-tzan, zenbait herrialdetan terminolo-giagintzan espezialtzeko eskaintzen diren aukeren informazioarekin.

b) Bigarren informazioari, hots, itzulpen-gintzari dagokionez, honako eskema honi edo antzeko bati jarraituz eskain litezkeen kontzeptuak, praktika ongi hautatu eta la-bur batekin errebortxaturik, baliagarri izan lekizkioke irakasleari zein ikasleari, edo profesiona-lari izan gabe itzulpengintzarekin lotu-ra estua izan behar duen hizkuntz bitarteka-riari.

- 1.- Itzulpenaren zientzia edo traduktolo-gia jakintzagai gisa (deskribapena, egi-tura, osagaiak, kokagunea).
- 2.- Itzulpenaren teoria (Deskribapena, planteaketa orokorra, transkodetze se-mantiko eta pragmatikoa. Itzultzailea dekodatzaile, transkodatzaile eta bir-kodatzaile gisa).
- 3.- Testu-tipo eta klaseak.
- 4.- Baliokidetzak eta baliokidetzaren erla-tibitatea, itzulgarritasuna, itzulgaizta-suna eta itzulezintasuna.
- 5.- Itzultzea eta interpretatzearen arteko desberdintasun psikolinguistikoa eta soziolinguistikoa.
- 6.- Terminologia itzulpenaren zientzian, terminologiagintza-mota desberdinak, terminologia eta teknolektoa.
- 7.- Itzulpenaren praktika (arazoaren sailka-pena, prozedurak eta teknikak).

8.- Lanabesak eta bitartekoak. Talde-itzulpena.

9.- Itzulpenaren kritika (izaera, arazo orokorrak, irizpideak, teoria eta praktika, mugak).

Bai terminologiaren eta bai traduktologiaren sailetan oinarrizko bibliografia bat eskaini beharko litzateke goian aipaturiko nozio eta kontzeptuak hedatu nahi dituenarentzat, eta bakoitzari bereziki interesatzen zaion alorrari buruz aldizkarietan agertu diren lan eta erreseinei buruzko informazioa ere biltzeko ahalegina egin beharko litzateke, batez ere Euskal Herrian terminologiagintzak azken bi hamarkadotan eman dituen urratsen eta hiztegi berezituaren historia labur bat eginez eta gaur egungo egoeraren berri ere emanez.

Bai terminologiari eta bai itzulpengintzari dagokienez, hala nahiko luketen irakasle eta ikasleek hartuko luketen informazio orokor horrek ziurtasuna emango lieke egunero burutzen duten lanarekiko, nola emaila hala hartzaile gisa. Gainera, zalantzarik gabe, horrek hobetu egingo luke irakasleek eskoletan erabilitako komunikazioaren eta ikasleen lanaren kalitatea ere, zeren prestakuntza horretan aipatuaz gainera oinarrizkoagoa den idazkuntza-tekniken eta euskararen araugintzaren azalpen sistematiko bat egitea ezinbestekoa izango bailitzateke, sarritan inoiz behar bezala ikasi gabe suposatutzat ematen direnak izaki.

Prestakuntza eta eguneroko lana

Goian aipaturiko terminologia eta traduktologiako interesgune horiei buruzko azalpen argiak eskaintzeak mesede egingo die irakasle eta ikasleei, zeini bere mailan, irakas/

ikaskuntzan, baina horrenbestez lehen pauso bat besterik ez genuke emango, eguneroko bere lanaren koordinazio eta gainbegiraketarako antolakuntza eta oinegitura gutxienezkorik gabe. Terminologiagintzan funtsezkoa da aurretik sortua kritikoki ezagutzea eta termino berriak sortzean (itzultzean) gai edo alor berean lanean dabiltzanen artean adostasuna lortzea, barreiakuntza eta aniztasun kaltegarriari aurre egiteko. Gaur egun, zorionez, eskura ditugun bitarteko teknologikoen erraztasun handiak eskaintzen dizkigute datu-base, posta elektronikoa, Internet eta abarren bitartez interesgune bera duten adituen arteko denbora eta espazioko distantziak gainditzeko.

Gainera, alor bakoitzeko adituak egiten dituen proposamenek laster har lezake hizkuntzalari orokor baten ikuskerapea ere, terminologiagintzaren eta hizkuntza komunen artean adostasuna izan dadin, eta testu tekniko (itzuli-moldatuak) itzulpenean edo idazkuntza teknikoan aditua denaren gainbegiratu eta zuzenketa izan dezan, berehalakoan ez bada, gutxienez noizbehinkako lanbileraren batean.

Testu teknikoaren itzulpen sistematikoa

Euskal Herriko Unibertsitateak hain beharrezko dituen testuen itzulpengintza era askotara egin daiteke:

a) Itzultzaile profesional batek testua itzul dezake eta gero gai bakoitzeko aditu edo irakasleak gainbegiratu eta zuzendu egin dezake.

b) Gai bakoitzeko irakasle edo adituak testua itzuli eta gero itzultzaile profesional batek birmoldatu eta zuzendu egin dezake.

c) Aditu eta itzultzaileen arteko elkarlan gisara planteatu daiteke: terminologiaren hus-

tuketa eta lantzearen lehen fase batekin, itzultzailearen (edo itzultzaileen) itzultze-lanarekin eta azkenik, adituen berrikusketarekin. Hirugarren era hau izan liteke egokiena, baldin eta koordinazio-lana behar bezala egiten bada. Dena den, prestaketa lan horretan alde zuzen dagoen guztia kontuan hartu behar da, eta terminologiagintza berria proposatzean lehen aipatu den adostasuna lortzeko ez da ahaleginik egin gabe utzi behar, hain txarrak diren presak alde batera utzirik.

Testu berezituaren ahozkotzea

Oraindainokoa Unibertsitateko irakasleak eguneroko eskola prestatzeko idatzi behar duen testurako lagungarri izan daitekeen terminologia eta traduktologiaren alorretako laguntza ari izan gara. Baina ez idatzizko apunteak apailatzerakoan eta horiek ikasleentzako aurrean baliatzerakoan, irakasleak ez du ahaztu behar orrialde horiek beren baitan dakarten mezua ahoz eman eta belarriz jaso behar dutela ikasleek, eskolarako soilik erabiltzen den kasuan. Horrek eragin nabarmena izan behar du diskurtsoaren antolakeran eta lexikoaren hautapenean ere.

Honetan bi arrisku egon litezke:

a) Eskolak ematean aurrean apunte gisa ikasleak edukiko dituela eta isilean irakurtzeko material bezala prestatzeko testuaren gainean eskola ematea, inolako ahozkotze-ahaleginik egin gabe. Horrelako testuaren irakurketa soila ulergaitza eta nekagarria gerta lekiokoe ikasleari.

b) Ahoz emateko testua denez gero gaiari dagokion terminologiak eskatzen duen zehaztasun eta kontzeptualizazioaren fiabardurak ez zaintzea, parafraasi murriztaileak eginez. Bigarren kasu horretan ikaslea jabetuko da

irakasgaiaren muin edo funtsaz, baina ez da gai izango testu berezitu baten mailak eskatzen duen zehaztasunez diskurtso zientifiko-tekniko bat artikulatzeko, eta horrek prestatuntza pobretuko lioke.

Puntu honetan bereziki azpimarratu behar dugu, lehenago teknolektoaren ezaugarri nagusien berri ematean bereziki ditugun osagai desberdinen izaera, zeren termino tekniko estandarizatuak bere horretan errespetatu eta utzirik ere, hizkuntza komunari dagokionean irakasleak joko desberdinak egin baititzake nola sintaxiaren hala lexikoaren aldetik. Batez ere, apunteak prestatzean nagusiki itzulpenaz baliatzen bada, sarritan premiarik gabe erdal diskurtsoaren baliabide erretorikoak, lokailu eta juntagailuak, perpausen antolaketa eta esamolde eta itzulikak mimetikoki euskaratzearen arriskua izango du, ondorioz inprimatu nahiz ahozkotu behar duen testua alferrik zailduz.

Maila horretan, jatorrizko testuan zer den terminologikoa eta zer den erretorikoa bereizten jakiteak mesede handia egingo dio irakasleari, baita gaia didaktizatzeke hizkuntza baliabide ugari izateak (sinonimia, esamoldeak, parafraasiak egiteko gaitasuna) eta ahots goraz egoki azaltzen jakiteak ere (irakurketa ozena, inprobisamena, oratoriaren oinarriko arauak, ahotsaren erabilera egokia, keinuak...). Ez bedi ahantz aski aldatzen direla baldintza oratorioak talde txiki bati, ia famili giroan eskola ematek ehunen bat edo gehiagoko talde bati gaia azaltzera.

Azken gogoeta gisa

Nire artikuluko honek helburu bat baino gehiago ditu. Alde batetik, eguneroko bizitzako testuetan, kazetaritzan, Bigarren

Hezkuntzan eta bereziki Unibertsitatean hartzen duten protagonismora arreta erakar-tzea.

Bigarren —arestian izan dudan esperien-tzia batean oinarriturik— Unibertsitatean es-kolak prestatzeko orduan irakasleei termino-logia eta traduktologiari buruzko oinarrizko prestakuntza batek egingo liekeen mesedea azpimarratzea. Prestakuntza hori, agian bes-te maila batean, baina ikasleei ere hedatzeko bideak eta aukerak apailatzea ere kontuan izan beharko litzateke, batez ere euskal le-rron dabiltzanei euskararen egoera bereziak aurrez aurre jartzen dizkien baldintzak kon-tuan izanik. Baina erdaraz soilik ari direnei ingelesa edo beste hizkuntzekiko, doktore-go-tesiak, artikuluko zientifikoak eta abar pres-tatzen ari direnei eta abarri ere ez lieke inolako kalterik egingo.

c) Testu idatzi zientifikoan ahozkotzean gehiago sakontzea beharrezkoa da (ahozko-tasuna eta ahozkotzea bereiziz), eskolak ego-ki eman ahal izateko eta ikasleari behar bai-no zail eta astunago gerta ez dakizkion.

d) Azkenik, euskararen munduan talde desberdinak garatzen ari diren terminologia-gintzaren ezagutza eta harekiko harremana Unibertsitateira iritsi baino lehenagotik hasi behar du ikasleak, hau da, Bigarren Hezkun-tzatik, eta horretarako irakasleak gai desber-dinak ematean arreta berezi bat izan behar du ahoz zein idatziz lantzen dituen testue-tako hizkuntz osagaiak bereizteko eta bakoi-tzaren funtzioak azaltzeko.


e) Gaur egun perpausetik testurako urra-tsa emanaz, genero eta diskurtso-mota des-berdinen inguruan sortzen ari diren idatzien parean, eta osagarri gisa, ez litzateke gaizki etorriko terminologiari buruzko eskuliburu bat; baita traduktologiako beste bat ere, irakaskuntza-munduan diharduten irakasle-ikasleei zuzendua.


Baina orain arte esandako guztiak bene-tan fruitua eman dezan, ezinbesteko deritzot irakaskuntzan dabiltzan irakasleek gutxie-nezko oinigitura (kontsulta-materiala eta ahalbideak, bitarteko informatiko eta elek-tronikoak), koordinazioa eta kanpo-laguntza izatea. Agian ekimen berri horiek campus eta fakultate jakin batzuetan esperientzia piloto gisara abiatu beharko lirateke, gehien moti-baturik dauden irakasleekin, ondoren eba-luatu eta beste fakultate eta campusetara hedatzeko, hizkuntz erabileraren mugarik gabe.

Bide batez, esan dezadan, egunero hainbeste testu euskaraz idazten dituzten irakasle horien unibertsitate-mailako koor-dinaziotik agian corpus zientifiko bikain bat antolatzen has gintezke informatika fakulta-teko adituen gidaritzapean, orain arte termi-nologiagintzan egin den lanaren osagarri gertatuko dena. Ordenagailu, posta elektro-niko, Internet eta abar bezalako bitartekoek aukera ezin hobea eskaintzen digute eta ho-rrelako zerbait ez egitea edo gehiegi beran-dutzea gure etorkizunaren kaltetan lihoake.

BIBLIOGRAFIA

- ARNTZ, Reiner/PICHT, Heribert: *Introducción a la terminología*, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1995.
- LOFFLER-LAURIAN, A.M.: "Quelques indicateurs de continuité dans le discours de vulgarisation scientifique" (55-72p.) In BALLARD, M. (éd.): *Relations discursives et traduction*, Presses Universitaires de Lille, 1995, Lille.
- CABRE, Maria Teresa: *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Editorial Antártida, Empúries, Barcelona, 1993.
- KOCOUREK, R.: *La langue française de la technique et de la science*, Brandstetter Wiesbaden, 1982.
- LERAT, Pierre: *Les langues spécialisées*, Presses Universitaires de France, Paris, 1995.
- REY, A.: *La terminologie. Noms et notions* (1979), 2e éd., Paris, 1992.
- SAGER, J.C.: *A Practical course in terminology processing*, Amsterdam, John Benjamins, 1990.
- UZEI/EUSKALTERM: "La terminología en el contexto de normalización de la lengua vasca". In: *Term Net News*, 22, 1988.
- WÜSTER, E.: *Einführung in die Allgemeine Terminologielehre und die Terminologische Lexikographie*, 2º berred. HEPA-tryk, Kopenhagen, 1985.
- ZIERER, Ernesto: *Algunos conceptos básicos de la ciencia de la traducción*, Universidad Nacional de Trujillo, Perú, 1979.





Terminologi lanaren metodologia

ARACELI DÍAZ DE LEZANA

Eremu edo azpieremu bati buruzko terminologi lan sistematikoa, hau da, hiztegi berezitu bat edo glosario bat egin nahi dutenei argibide teknikoak eskaini nahi zaizkie artikulu honen bidez. Izan ere, euskaraz egiten ari den ikerketa terminologikoaren esparruan lanak sistematizatu eta metodoak bateratzea komeni da.

Terminologiaren teoria alde batera utzita, diziplina praktikoa erakutsi nahi da hemen, hain zuzen ere arloko terminologia edo terminologia sektoriala. Beraz, terminologiaren ikerketa puntuala ez da kontuan hartuko, hori beste baldintza batzuetan egiten baita. Arloko terminologiaren helburua eremu tekniko edo zientifiko bateko terminoak modu egituratuan aurkeztea da.

Quebecoko P. Auger eta J. L. Rousseau autoreek idatzitako *Méthodologie de la recherche terminologique* liburuak sistematizatu zuen terminologi lanaren metodologia. Bestalde ISO (International Organization for Standardization) erakundearen CT/37 Terminologiaren Komiteak aspaldi eman zituen

arauak eta gomendioak terminologi lana eta terminologi lanak aurkezteko moduari buruz.

Horiek oinarri hartuta, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta premiak aztertu behar dira eta aipatutako metodologia, arau eta gomendioak ahalik eta hoberen egokitu.

Hurrengo pausoa kasuan kasuko hizkuntzak dituen arazo terminologikoei (terminoak zedarritu, baliokideen eta sinonimoen tratamendua, neologia e.a.) buruzko azterketa teoriko zehatzak egitea izango litzateke.

Lanaren urratsak

Terminologi lana nozio-sistema bat eta izendapenak ezartzean datza, ondoren alde zuzenetik erabakitako printzipio eta metodoen arabera terminologiak aurkezteko.

Batez ere ikerketa-lana da. Espozialitate-eremu zehatz batean erabiltzen diren nozioak eta terminoak biltzea eta aztertzea du helburu.

Terminologi lan-ikerketa elebakarra, elebiduna edo eleaniztuna izan daiteke.


Terminologi lan bat egiten hasi aurretik komeni da:

- landu nahi den eremuari buruz argitaraturik, argitaratzeaz edo egiteko asmotan zenbat lan dagoen jakitea,
- eremua orokorrean zehaztea,
- eremuan interesgarritzat jotzen diren hizkuntzak erabakitzea,
- lantaldean parte hartuko dutenak finkatzea,
- baliabide eskuragarriak zehaztea, eta
- lanak hartuko duen denbora finkatzea.

Lau urrats nagusi bereizi behar dira terminologi lanean:

1. Lanaren prestakuntza.
2. Benetako lan terminologikoa.
3. Lanaren antolaketa eta aurkezpena.
4. Berrikuspena eta normalizazioa.

Lana hasi baino lehen, lanaren jarraipena egin ahal izateko, lantaldea, adituak eta lanean parte hartuko dutenak bilduko dira irizpideak ondo finkatzeko. Dena den, urrats bakoitza amaitu ondoren lan-bilerak egingo dira.



1. Lanaren prestakuntza

Urrats honetan ikerketaren premia, terminologi lanaren oinarriak eta helburuak egiaztatu eta zehaztuko dira, informazioa bildu eta ikerketa egituratuko da.

1.1 Eremua aukeratzea eta aztertzea

Langai den eremua edo azpieremua aukeratu eta gero, ikerketa eta terminologi erabakiak hartzeko orduan lagungarri izango den eremuari buruzko ikerketa txiki bat egin behar da; hori izango da eremuarekiko lehenengo hurbilketa.

Kontzeptu-azterketa

Adituek lagundurik, eremuaren kontzeptu-antolaketa hurbildu. Azterketa hori eremu-zuhaitzaren oinarria izango da.

Errealitate profesionalaren azterketa

Eremuaren antolaketa profesionalaren azterketa: inplikaturik dauden arloak, horiek ordezkatzen dituzten erakundeak, terminologiak zabaltzeko dauden zentroak, e.a.

Aholkularien aukeraketa

Eremuko adituekin harremanetan jarri, lana burutzeko laguntza eman dezaketen pertsonak aukeratzeko. Beti ere espezializazio-mailak eta ordezkapen-esparruak kontuan harturik.

Terminologi lana, terminologoen eta adituen osaturiko lantaldeak egin behar du. Horretaz gain, kontsulta puntualak eta lanaren berrikuspena egiteko lantaldetik kanpo dagoen adituen bat edukitzea komeni da.

Besteak beste honako hauek dira adituak aukeratzeko orduan interesgarri diren irizpideak: eremu edo azpieremuan duten espezializazio-maila, eremua bere osotasunean ondo ezagutzea, lan-esperientzia, gizartean adituak duen prestigioa, eta lanarekiko interesa eta jarrera positiboa.

Errealitate linguistiko, soziolinguistiko eta psikolinguistikoaren azterketa

Lantzen ari den eremuan hizkuntzaren egoerari buruzko ikerketatxoa —corpusa zein erabilerari buruzkoa— eta, era berean, eragin dezaketen beste hizkuntzei buruzkoa.

Hizkuntzak neologismoak onartzeko duen jarrera ere aztertu beharko da.

Ikerketa bibliografikoa

Bai landu nahi den hizkuntzan bai beste hizkuntzatan egindako lanen inbentario erabilgarria egin behar da.

Hiru multzotan sailkatzea komeni da:

- a) langai den eremu edo azpieremuari buruzko **testu berezituak**: lan zientifikoak eta teknikoak, aldizkariak, eskuliburuak, arauak, katalogoak, e.a. Ikerketa terminologikoan, hau da, terminoak eta nozioak hustutzeko orduan, dokumentu horiek dira fidagarrienak, erabiltzen diren testuinguruan agertzen baitira;
- b) lantzen ari den eremu edo azpieremuari buruzko **lan terminologikoak** (edo hurbileko eremuei buruzkoak): hiztegiak, lexikoak eta glosarioak. Nahiz eta laneko hizkuntzak ez izan, interesgarriak dira beste hizkuntzetan egindako terminologi lanak, batez ere definizioak badituzte;

- c) langai den hizkuntzan egindako **lan lexikografikoak**: hizkuntza arrunteko hiztegiak, hiztegi entziklopedikoak eta entziklopediak.

Lan terminologikoak eta lexikografikoak dokumentu baliagarriak dira erreferentzi corpus moduan. Nomenklatura egiteko ezin dira oinarritzat hartu, baina ondorengo urrats batean hustutako datuak osatu, konparatu eta berrikusteko erabil daitezke.

Termino bakoitzaren txertatze-maila jakiteko, landu nahi den hizkuntzan dauden lan lexikografikoak kontsultatu beharko dira sistematikoki. Hizkuntza baliokideetan, lan lexikografikoak kontsultatzeak zalantzak argitzeko balio behar du.

1.2 Eremua egituratzea eta kontzeptuak zedarritzea

Eremua ezaguturik, kontzeptu-egituraketa edo eremu-zuhaitza egin daiteke.

Egituraketak eremuaren sailkapena erakutsiko du. Terminoak lana egiten den bitartean sailkatuko dira adarren barruan. Horrela, errazago ikus daitezke terminoen artean dauden erlazioak, eta non kokatzen den termino bakoitza kontzeptu-sistemaren barruan.

Eremu-zuhaitzak ikerketa bideratuko du, eta gainera, ondoren zehazten denerako balio izango du:

- lana mugatzeko,
- hustuketa-plan sistematikoa egiteko,
- terminoen pertinentzia egiaztatzeko,
- fitxak sailkatu eta ordenatzeko,
- eremuko unitate terminologikoak era logikoan eta sistematikoan definitzeko.

Eremu-zuhaitzean oinarriturik, eta eremuaren azterketaren emaitzak kontuan harturik, ikerketaren helburu izango diren atalak zehaz daitezke. Atal horien arabera lanaren egileak termino pertinenteak zeintzuk diren erabaki ahal izango du. Zuhaitzari esker, eremu bereko edo ondoko eremuetako terminoak ikusterik izango da, halaber.

Egindako egituraketa alda daiteke, ikerketan zehar ikusten bada ez datorrela bat eremuaren terminologi errealtatearekin.

1.3 Helburuak eta lan-plana zehaztea

Hiztegia edo glosarioaren termino-kopurua eta jasoko diren datu sistematikoak (hizkuntza baliokideak, definizioa, irudiak, e.a.) zehaztea komeni da. Ondoren ikerketan zehar eta lanaren ondorengo urratsetan eskuragarri izango diren baliabide material eta pertsonalen balioespina egingo da: datubaseak, testu-tratamendua, adituak, terminologoak e.a.

Eremuaren azterketa egin ondoren lan bakoitzerako ikerketa-helburu erabilgarriak eta errealistak finkatuko dira, hots, eremuak eta erabiltzaileek dituzten ezaugarrien eta premien arabera.



2. Benetako lan terminologikoa

Bigarren urrats honetan gauzatzen da terminologi lana; beti ere, lehenengo urratsean egindako azterketa eta bildutako dokumentazioa abiapuntutzat hartuta.

Hustuketaz eta fitxagintzaz hitz egin behar da.

2.1 Hustuketa

Hustuketa-corpora

Eremu-zuhaitzaren atalak kontuan harturik, hasierako urratsean bildutako dokumentazio-materialik interesgarriena aukeratu da hustuketa egiteko. Zabalegia izan gabe, interesatzen diren atalak aztertzeko balio izango duen materiala hain zuzen. (Berez erreferentzi lanak ez dira kontuan hartuko momentu horretan.)

Corpora laneko hizkuntza bakoitzerako aukeratuko da. Idatzizko zein ahozko testu berezituak izan daitezke (hitzaldiak, telebistako programak, adituei egindako elkarrizketak, e.a.). Idatzizkoei emango zaie lehentasuna.

Hustutzeko eskuratu behar den dokumentazioa egungoa, jatorrizko hizkuntzan idatzitakoa (gure hizkuntzaren kasuan nahitaez itzulpenez baliatu behar), zabalduena eta terminologo eta aholkularien aburuz hizkuntza eta teknikaren aldetik gehien balio duena aukeratuko da.

Hustuketa-corpora osatzen duten lanak zein erreferentzi lanak kodetuta egotea komeni da. Baita ahozko iturriak ere. Kodeak datuen erreferentziak emateko erabiliko dira.

Hustuketa

Testuetatik ustez eremukoak diren terminoak beren testuinguruekin ateratzea eta hustuketa-fitxetan jartzea da (hustuketa-fitxaren eredia finkatu behar da).

Eremu-zuhaitzean sailkatu ezinako terminoren bat edo termino-multzo bat agertzen bada, eta eremukoak direla uste bada, urrats honetan biltzea komeni da. Hustuketa bukatutakoan egiaztatuko da pertinentzia.

Termino bati buruz hainbat datu jasoko da. Fitxan terminoa —aurkitu den moduan—, iturriaren erreferentzia eta interesgarritzat jotzen diren argibideak agertuko dira, bakoitza bere tokian.

Terminoak, fitxan sarrerarako uzten den tokian jasoko da, baina testuinguruko gramatika-markarik gabe. Horrela terminoa izena bada singularrean hartuko da (lema), aditza bada infinitiboan, e.a.

Testuinguru baten barruan terminoak zedarritzeko zalantzarik izanez gero, formarik zabalena hartu behar da. Terminoa fitxa terminologikoak betetzerakoan erabakiko da.

Terminoaren esanahiari edo erabilerari buruzko informazioa ematen duten testuinguruak dira terminologiari interesatzen zaizkionak; ez, ordea, ilustrazio hutsa diren testuinguruak, nozioa zedarritzen laguntzen ez dutenak alegia.

Puntu horretara iritsita, komeni da lanaren egileek terminologi lana nola aurkeztu behar den jakitea.

Hustuketaren emaitza informazio desberdina (testuinguruak, definizioak, baliokideak, sinonimoak, oharrak, irudiak, e.a.) duten fitxa-multzo heterogenoa da. Termino bakoitzeko fitxa bat baino gehiago egitea gomentatzen da; beti ere informazio berria edo ter-

mino baten erabilera-maiztasuna jaso nahi baldin bada.

Dena den, komeni da hustuketa terminologikoari buruz idatzitakoa irakurtzea eta bereganatzea (RONDEAU, G.; *Introduction à la terminologie*): unitate-motak, unitateak identifikatzeko irizpide objektiboak eta semantikoak e.a.

Fitxak eremu-zuhaitzaren arabera ordenatuko dira; horrela, hustuketa fitxetatik aterako da behin-betiko nomenklatura abiapuntu-hizkuntzan, ikerketa bideratuko duena.

2.2 Fitxa terminologikoak

(Fitxa-eredua aldeztatik definitu eta finkatu behar da.)

Fitxak betetzen hasi aurretik, terminoen lehenengo berrikuspena egingo da: hustuketa-garaian hartutako terminoak lanaren helburuarekin bat ez badatoz edo egindako eremu-zuhaitzaren arabera pertinenteak ez badira ezabatu egin behar dira.

Termino bati buruz landu nahi den hizkuntzan egindako hustuketa-fitxa guztiekin terminologi fitxa bakarra beteko da. Fitxa horretan beharrezkotzat jotzen diren datuak sartuko dira.

Gerta liteke hizkuntza-forma batek aztertutako espezializazio-eremuan esanahi bat baino gehiago izatea. Kasu horretan nozio bakoitzeko fitxa bat osatuko da.

Urrats honetan hustuketatik datozen datuak berri edo egokitu daitezke. Kasurako, terminoari ez dagokion elementuren bat kendu, bi definizio batean elkartu, sailkatutako termino bat tokiz aldatu, sinonimiak ezarri, e.a.

Abiapuntu-hizkuntza ez bada landu nahi duguna, abiapuntu-hizkuntzan hustuketa-

garaian hartutako datuekin beteko da fitxa, eta gure hizkuntzari dagozkion laukiak zuriz utziko dira. Fitxero hori abiapuntu-hizkuntzaren arabera ordenatuko da.

Ondoren hiztegia edo glosarioan aurkeztuko diren terminoen inbentarioa edo nomenklatura egingo da eta behin-betiko kenduko dira pertinentek ez direnak.

Nomenklaturak bateratzea

Hustuketa-fitxetan oinarriturik, abiapuntu-hizkuntzak izan ez direnen baliokideak jasoko dira orain fitxa terminologikoan. Korrespondentziak jartzeko terminoen esanahia hizkuntza guztietan ezagutzea komeni da; bestalde ez da ahaztuko terminologia egitea ez dela itzultzea.

Baliokiderik aurkitzen ez bada hutsik utziko da tokia fitxan. Urrats honetan, oso sarritan, fitxa terminologikoak oraindik osatu gabe daude, hustuketa-garaian jasotako datuekin bakarrik lan egiten baita.

Fitxa terminologikoen azterketa

Fitxak banan-banan berrikusiko dira eta oso egokitzat jotzen ez diren datuak kendu edo zehaztu egingo dira. Horretarako lan lexikografikoak, terminologikoak, espezializatuak eta adituak kontsultatuko dira.


Lantzen ari den hizkuntzan, kontzeptu bat izendatzeko terminorik aurkitu ez bada dokumentazioan, terminologoak, adituen laguntzaz, neologismo-proposamena egin dezake.

Hiztegiak edo glosarioak definizioak eraman behar baldin baditu, batetik, lan terminologikoei eta espezializatuak ematen dituzten definizioak hartuko dira kontuan, eta bestetik, definizioak egiteko dauden arauak.

Fitxategia, nahiz eta hasiera batean abiapuntu-hizkuntzaren arabera ordenatu, lanaren urrats honetan, hau da fitxa terminologikoak osatu ondoren, landu nahi den hizkuntzaren arabera ordena daiteke. Dena den, gaur egun hori antolatzea ez da lehen bezain zaila informatikak izugarri laguntzen duelako, eta erabiltzen diren softwareek zerrendak edozein hizkuntzaren arabera prestatzea onartzen dutelako.

Egindako inbentarioaren barruan egon daitezke terminologia edo hizkuntzaren arauak jarraitzen ez dieten terminoak. Hori dela eta, lantzen ari garen hizkuntzako terminoei ponderazio-marka jarriko zaie. Horrek berrikuspena erraztuko du (sistema ezberdinak erabili ohi dira).

Terminologi lanaren urratsaren emaitza, bukatu ondoren, aukeratu eta berrikusitako datuak dituen fitxategi terminologikoa da.



3. Lanaren antolaketa eta aurkezpena

Hirugarren urratsean, lanaren aurkezpenari begira, datu terminologikoak behin-behiko ordenatu eta orraztuko dira .


Informatikak izugarri laguntzen du fitxa terminologikoetako datuen tratamenduan, zuzenketak onartzen baititu eta lanaren ordenatze-prozesua eta aurkezpena azkartzen baititu.

Terminologian terminoak sistematikoki ordenatuta aurkeztea gomendatzen da, hots, eremu-zuhaitzaren arabera. Hiztegiaren corpusaren barruan, terminoek alfabetoaren ordena diskontinuoari jarraituko diote (dena den hori aukerakoa izaten da).

Bukaeran aurkibide alfabetikoak sartuko dira: lehenengoa abiapuntu-hizkuntzarena, eta gero lanean dauden beste hizkuntzenak.

Lanari azken forma emateko, horren gainean dauden arauak aintzakotzat hartuko dira (ISO).

Ez da ahaztu behar: terminologi lan batek izan behar dituen atalak; atal bakoitza garatzeko arauak eta gomendioei jarraitzea, eta estandarizatutako formak eta sinboloak errespetatzea.



4. Berrikuspena eta normalizazioa

Terminologoeak (askotan terminologi zentroa egon arren, terminologi lanak beste erakunde edo talde batzuek egiten dute) lanaren berrikuspena egingo dute, eta kontzeptuei buruz zein terminoen onargarritasun-mailari buruzko zalantzak eremuko adituekin argituko dituzte.

Terminologoeak arazoak sortu dituzten formei buruzko txostenak egingo dituzte. Hiztegia terminologoeak egin badute arazoak ondo aztertzeko balio izango dute txostenok, eta besteren batek egin badu, aldaketak edo proposamenak aurkezteko bidea izango dira. Lan-bilerak egingo dira.

Toki askotan badago terminologi arloan erabakiak hartzeko ahalmena duen batzorde bat. Aurrean aipatutako pausoak burutu ondoren, terminoen zerrenda (inbentarioa) prestatuko da batzorde horrek azter dezan.

Neologismo guztiek ez dute arazorik sortzen, baina batzuetan, berrikusi eta hizkuntza-arloko agintariak onetsi egin behar dituzte. Arazoak sor ditzakete, adibidez, beste hizkuntzei hartutako maileguez, eta ez hizkuntzaren baliabide morfologikoei esker sortutako neologismoek (beti ere irizpide finkorik ez badago).

Azterketa sakonagoa —formarena zein kontzeptuarena— egin behar izanez gero, erabakia erraztearren, ahalik eta dokumentaziorik zabalena aurkeztuko da. Material horri, behar bezala ordenaturik eta aurkezturik, normalizazio-txostena esango zaio.

Normalizazio-txostenak kontzeptu bat izendatzeko dauden proposamenak, beren alde eta kontra den guztiarekin, jasoko ditu. Txostena, erabaki behar dutenei aurkeztuko

zaie. Txostenean datu guztiak arrazoituak agertuko dira.

Arazoak sortzen dituen termino bakoitzeko normalizazio-txostena aurkeztuko da. Beti ere lanaren jarraipena eta berrikuspeneren barruan.

4.1 Kontzeptuen normalizazioa

Adituei edo aditu-taldee dagokie definizioen balioa, gaikako sailkapenaren pertinenzia eta terminoek izan dezaketen arrakasta edo onarpen-maila adieraztea. Beraz, azken saioa egin ondoren (ahalmena duen batzordearekin) normalizazio-saio gehiago egingo da.

4.2 Formen normalizazioa

Terminologi arloan erabakiak hartzeko ahalmena duen batzordeak, arazoak sortzen dituzten terminoen behin-betiko forma erabakiko du. Hainbat kasutan, forma bat baino gehiago utz daiteke, lehentasunak adieraziz edo adierazi gabe. Terminoren bat erabaki gabe uzten bada, argitalpenean ager daiteke, baina beti, marka baten bidez erabakitzeko dagoela adieraziz.

Batzordeak onartu ondoren, lana zabalduerako prest dagoela esan daiteke, eta ondorioz, sortutako neologismoak normalizatutzat jotzen dira.

Argitalpena prestatzeko, oso komenigarria da eredu bat finkatzea. Hala eta guztiz ere, ez dira ahaztu behar nazioarte-mailan, normalizazio-bidean, ISO erakundeak terminologiaz eta terminologi lanak aurkezteko moduz eman dituen gomendioak (ikus bibliografia).

Terminologi lana euskaraz

Ikusi dugun metodologia gure lan sistematikoan aplikatzeaz gain, beste baldintza batzuk beharko genituzke lan normalizatuak egiteko:

- Koordinazio-gune bat beharko litzateke egiten ari diren edo egiteko asmotan diren lanen berri izateko, interferentziarik egon ez dadin.
- Aurrekoarekin bat, metodologia eta irizpide bateratuak erabili beharko lirateke lan guztietan.
- Batzorde bat, terminologiaren berrikuslea, beharko litzateke (Kataluniako "Consell Supervisor" en antzekoa): premiak detektatzeko, lehentasunak finkatzeko, metodologia aplikatu dela ziurtatzeko, irizpideak finkatzeko, azken erabakiak hartzeko, terminologi produktua zabaldu, normalizatu eta gomendatzeko. Horretaz gain, jarraipena eta ebaluazioa ere egin beharko luke.
- Terminologi zentro ofizialik ez (Kataluniako TERMCAT en antzekoa), "batzorde berrikuslea" k (izena alda daiteke), egin beharko luke lan guztien jarraipena, egiten hasten direnetik bukatu eta zabaldu arte. Lanaren egileekin lanaren urrats bakoitzaren ondoren bildu eta egiaztatu metodologia eta pixkanaka-pixkanaka finkatuz joan diren irizpideak aplikatzen direla.

TERMINOLOGI LANAREN METODOLOGIA

Lanaren urratsak

Aurretik:

- eremuari buruzko informazio orokorra
- eremu horretaz dauden lanak
- hizkuntzak
- lantaldeak
- baliabide eskuragarriak
- denbora

1. Lanaren prestakuntza

1.1 Eremua aukeratzea eta aztertzea

- Kontzeptu-azterketa
- Errealitate profesionalaren azterketa
- Aholkularien aukeraketa
- Errealitate linguistiko, soziolinguistiko eta psikolinguistikoaren azterketa
- Ikerketa bibliografikoa

1.2 Eremua egituratzea eta kontzeptuak zedarritzea

1.3 Helburuak eta lan-plana zehaztea

2. Benetako lan terminologikoa

2.1 Hustuketa

- Hustuketa-corpora
- Hustuketa

2.2 Fitxa terminologikoak

- Nomenklaturak bateratzea
- Fitxa terminologikoen azterketa

3. Lanaren antolaketa eta aurkezpena

4. Berrikuspena eta normalizazioa

4.1 Kontzeptuen normalizazioa

4.2 Formen normalizazioa



BIBLIOGRAFIA

- AUGER, P.; ROUSSEAU, L.J. (1978) *Méthodologie de la recherche terminologique*. Office de la Langue française. Québec, Éditeur officiel du Québec.
- CABRÉ, M.T. (1992) *La terminologia. La teoria, els mètodes, les aplicacions*. Editorial Empúries. Barcelona.
- RONDEAU, G. (1983) *Introduction à la terminologie*. Chicoutimi (Québec): Gaëtan Morin.
- ISO 704 *Principes et méthodes de la terminologie*.
- ISO 1087 *Vocabulaire de la terminologie*.
- ISO 1951 *Symboles lexicographiques, particulièrement pour l'emploi dans les vocabulaires systématiques à définitions*.
- ISO 6156 *Format d'échange sur bande magnétique des données terminologiques et/ou lexicographiques (MATER)*.
- ISO/DP 4466 *Présentation des vocabulaires systématiques unilingues*.
- ISO/R 1149 *Présentation de vocabulaires systématiques multilingues*.
- ISO/R 639 *Indicatifs de langue, de pays et d'autorité*.
- ISO/R 860 *Unification internationale des notions et des termes*.
- ISO/R 919 *Guide pour l'élaboration des vocabulaires systématiques (exemple de méthode)*.
- TERMCAT Centre de terminologia (1990) *Metodologia del treball terminològic*. Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura. Barcelona.

Administrazio sanitarioko euskara: egoera, itzulpena eta arazo terminologikoak

ROBERTO MANJÓN LOZOYA

Erakunde sanitarioetako euskararen arazoa

Egoera soziolinguistikoa

Osakidetzak —eta Osasun Sailak— egin-kizun handiak ditu Euskadiko Administra-zioak bultzatu behar duen normalizazio lin-guistikoa, ez bakarrik langileetan ugariena delako (hogeita hiru mila gutxi gora-behe-ra), baita haren jarduera motak gizartean duen eraginagatik ere, herritarren eguneroko bizitzari estu eta artez lotzen baitzaio, kezka-bide handiko alor batean hain zuzen, eta medikuen munduak duen prestijioagatik, ereduak sortzen oso ahaltsua baita.

Osasuna erabakiorra da, gutziz, gure bi-zitzan, eta alde honetan sentitzen dugu inon baino errazago noraino garen zaugarriak; horrexegatik, agian, eremu horretan inon bai-no errazago onartzen dugu zenbait menpe-kotasun, beste batzuetan jasangaitzago zaiz-kigunak; hortik ere datorke neurri batean, profesional sanitarioekiko jende xeheak duen

mirespena —izkutuko beldurra ez denean— bai eta beraien boterea eta itzala ere.

Baina, ondo dakigunez, administrazio eta zerbitzu sanitarioak atzeratuenetarikoak dira euskararen normalizazioan, gizartearen alde-tik ere presio motela jasotzen dutela.

Izan ere, Euskal Herriko arazo linguis-tikoez erakusgarri argia dute Osakidetzan. Bertan inon baino nabarmenago da euska-rak funtzio formaletan duen gabezia, egune-roko jarduera administratibo eta asistentzia-letik kanpo dagoelako, salbuespenak salbues-pen. Behargin gehienek ez dakite euskaraz, dakitenean, berriz, ez dira gauza izaten mai-la formaletan erabiltzeko. Gainera, nekez gainditzen da mendeetako muga ezagun hori: herritarrek nahiz funtzionarioek ondo daki-te etxe ofizial batean nola mintzatu behar den, halako moldez non euskaldun asko de-seroso ere senti baitaiteke euskaraz egin be-har badu.

Adibide baterako, Deba Garaiko ospita-lea: % 65,12 da eskualde horretako euskal-dunen kopurua (Antzuola, Aretxabaleta,

Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati). Handiagoa da portzentaia umeak eta nerabeak oinarri (66,82), baina txikiagoa da erdiko adinei bagagozkie: 60,89 25-34 urtekoetan, 59,61 35-44 urtekoetan. Zaharretan, berriz, nabarmenki handitzen da: %79,33.

Besteen aldera, handia da euskaldunen kopurua ospitale honetako langileen artean: % 40 (7. maila edo goragoko bat egiaztatua dutenak edo euskaldun zaharrak, gehienak, eta oso gutxi alfabetatuak). Oro har, ez dira funtzio formaletan euskaraz egiteko gai; euskaldun zaharrak, behintzat, gai dira pazienteekin euskaraz aritzeko.

Hala ere, ez da langileen artean euskaraz egiten eta, sarritan, ezta pazienteekin ere. Beste alde batetik, hiru inprimaki baino ez dira elebidunak.

Euskarri grafikoak

Osakidetzako errotulazioak eta inprimakiek ederto erakusten dute euskararen gaitzen larria: toki askotan, errotulo asko edo guztiak erdera hutsez; testu ulertezinak nonahi; errore tipografiko, itzulpenezkoak edo gramatikazkoak, ugari; bazter guztietan, lexikoan, garai edo ikuspegi desberdinetako aukerak elkarrekin edo kontrajarrita ageri dira.

Testu elebidunetan euskara gehiago nabarmentzeko Gobernuak emandako arauak ez dira oraindik zentro askotan betetzen, aurrera pausu handiak eman baditugu ere.

Ez da munta txikiko arazoa inprimaki eta liburu-liburuxka elebidunen diseinuari lotutakoa. Aurrekontuak direla, euskararen irudia erdaldunenganaino ere helaraztea dela, sarri askotan, batera agertzen dira euskara eta

erdera, irudi koniko berean alegia, bakoitza bere zutabeen, edo nahasi samar, taulak eta grafikoak direnan. Jakina, agertzeko modu honek traba egin dezake irakurtzerakoan—inprimaki, taula eta grafikoetan batez ere. Irakurle euskaldunarentzat da kalterik handiena.

Hizkera

Administrazioko beste eremuetan bezala, berriki eta ia tradiziorik gabe sartu da euskara administrazio sanitarioan. Ondorioak ere berdintsuak dira: bazter guztietan eta egunero zalantza, nahaspila, naturaltasun falta, itzulpen txarreko menpekotasuna, testu ulergaitzak, aukera anitz kontrajarrita, sakanatzea.

Lexikoa urria da administrazio sanitarioko beharrezko erantzuteko, era berean, sintaxi eta estiloaren aldetik ez da behar bezalako egokipenik lortu; halatan, arin eta sustrairik gabe sortzen ditugu berbak, formulak, eraikuntza sintagmatikoak. Ondorioa: hizkera berriak ez du erabili behar luketenen artean arrakasta handirik.

Horrela, nekez izan daiteke euskara funtzio linguistikoko berrietarako tresna baliagarria.

Kontu zaharrak dira hauek. Itzulpenaren menpeko da euskara, baita berba berriak sortzen ditugunean ere. Eta ezbaian gabilta gehienetan, berba okerrak, ulergaitzak bultzatuko ote ditugun beldurrez, edo aukera desberdinen artean bidea ezin aurkiturik.

Hizkera ez dago behar bezain finkaturik ez baturik: ohikoa da termino baten tokian hiru edo lau berba agertzea. Ohikoa da kontzeptu baterako berba desberdinak erabiltzea, zeren toki eta garai diferenteetan berba des-

berdinak baitira lehenetsiak. Irizpide anitzek horrenbeste berba sortzen dute, egunetik egunera aldatzen dira eta, baita itzultzaile beraren kasuan ere.

Ondorioa: igorle eta hartzailearen arteko kodigoa ez dago batere argi, lauso baino; honela, komunikazioa ez da efikaza. Guztiagatik ere, euskaraz egiten denean, erabilera errituala baino ez da.

Bada, euskarak ez du administrazio sanitarioan erritualizazio maila gainditu ("hizkuntza ofiziala", "euskotarron hizkuntza"), baina gainditzen hasi behar du erakunde sanitarioetako hizkuntza izango bada.

Ematen ari diren pausoak

Aurreko legealdian hasita, pauso batzuk ematen ari dira euskararen bidea behar bezala jorratzeko. Hiru dira garrantzitsuenak:

- Irizpideak bateratzeko eta finkatzeko ahaleginak egin dira Osakidetzako Idazkari-tza Nagusian eta Osasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan, eta Osakidetzako sarean zabalatzeko apur bat ere bai.

- Euskara-zerbitzua Osakidetzaren barruan sortzeko proiektua dago, aurreko legealdian zuzendaritza-kontseiluak onartuta, baina erakunde sanitarioak berriro egituratzeko prozesuan daudelako oraindik gorpuztu ez dena.

- Administrazio sanitarioetako euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko batzordea

eratu da. Izan ere, badugu azken urte haue-tako jardunean erabilitako hainbat hitz be-rezi eta terminoren corpusa (dokumentue-tatik atera behar ditugunak), corpus zaharra ("tradizionala" deritzaguna) baztertu gabe. Eseri eta aukera hauek guztiak aztertu behar ditugu, batzuk bultzatu eta besteak bazter-tzearren, Administrazioaren, profesionalen eta adituen artean iritziak ezagutaraziz eta akordioetara helduz.¹

Administrazio sanitarioko hizkeraren osagaiak

Atal honetan administrazio sanitarioko euskal hizkera sortzeko eta egokitzeko dauzkagun arazo garrantzitsu batzuk aztertu nahi ditut, ez, beraz, normalizazioari datxez-kion guztiak, ez baita artikulu honen hel-burua hizkuntza-plangintzaz jardutea.

Administrazio sanitarioan, besteetan be-zala, jatorri desberdinetako hizkera bereziak gurutzatzen dira (juridikoa, jarduera admi-nistratibokoa, ekonomia eta kontabilitate-koa...) baina, espezifikotasunez, medikun-tzakoa, farmaziakoa eta erizaintzakoa. Gai-nera, eta hauxe da oraingo honetan interes-gunea, sarritan erraz bereizten ez den hizke-ra-eremu bat dago, espezifikoa hertsiki helduz gero, administrazio sanitarioko hizke-ra hain zuzen, neurri batean medikuntza eta gestio administratiboa gurutzatetik eroto-rria.

1. Lana egin behar duen batzorde teknikoak: Mikel Alvarez, Basurtuko ospitaleko zuzendariorde medikua; Xabier Agirre, UZEIko medikua; Patxi Arrasate, Gipuzkoako Farmaziaburua; Alberto Loizate, Osasungo Euskalduntzeko Erakundekoa; Iñaki Ugarte-buru, UPV-EHUko Medikuntza-Falkultatean euskara teknikoak irakasten duena; Elena Etxezarreta, HPINeko teknikaria; Edorta España IVAPeko teknikaria; Alfredo Hurtado de Saratxo, Osasun-saileko euskara teknikaria; Roberto Manjón Lozoya, Osakidetzako euskara-teknikaria.

Nafarroako Gobernuak izulpen-zerbitzua ere gonbidaturik dago eta badirudi ez dela eragozpenik egongo.

Jakina denez, hizkera berezietako terminoen eginkizuna ez da izendatze hutsa, sailkapen-sistema baten euskarria delako. Kontzeptuak sailkatzeko eta bereizteko erabiltzen dira, sinbolo bihurturik. Hortaz, arlo zientifiko-teknikoen sistema nozionalen parean ditugu sistema terminologikoak. Eta sistema den aldetik, nozionala antolatzen den koherentzia beraz antolatu behar ditu bere atalak, bere unitate adierazleak, hala zatika daitzkeenak (konposagaiak, morfemak eta lexe-mak erakutsiz, alegia) nola osoak.

Terminoen helburua bereizketak egitea baita, biziki murriztuta du adiera, ingurukoetatik aparte argi antzemateko behar heinean.

Katramilak bide bitatik datoz: batetik, baliteke eremu honetan zentzu bereziaz erabiltzen diren hitz guztiak terminoak izatea —edo ondo eraturako terminoak ez izatea bederen—, bestetik, medikuntzakoa eta administrazio sanitariokotzat jo ditugun hizkerak bereizteko zailtasuna, lehenengoaren eremua biziki zabala eta mamitsua izanik, hizkera bion arteko mugak lauso eta lanbrotsuak direlako; izan ere, maiz, ez dugu marra bereizgarri metodologiko bat baino egiten, errealitatean, bizitzan, ez baita horrelakorik agertzen.

Bereizketa funtzionala izan ledin, hizkerok sistema ireki bi direla pentsatu behar genuke: ezaugarri multzo batek emango luke sistema bakoitzaren gunea edo ardatza; elementuek —hitzek eta berezitasun morfosintaktikoeak, alegia— neurri aldakor batean beteko lituzkete ezaugarriok, gainera, ez liekete ezaugarri guztiei zertan erantzunik. Ho-

nela, sistemok baliagarriak lirateke elementuak sailkatzeko, baina ez lukete ezinbestean elkar baztertuko.²

Nola zedarritu hizkera sanitarioari dago-kion eremua? Izendatu dugun moduak berak eskaintzen digu, nonbait, giltzarria: helburu administiboaz erabiltzen diren terminoak izan behar dute eta jarduera sanitarioa arautzeko edo gestionatzeko erabili behar dira.

Esaera zaharrak dioenez, *gaitz bakoitzak dauka bere gaitzago*, eta arazo batek beste bateraino garamatza: zer esan nahi dugu "sanitarioa" diogunean?

Hona hemen proposizio edo abiapuntu bat, behin-behineko sailkapen lagungarri bat izan dadin. Handika-mandika agertuta, honelako azpieremuetako terminoak hartuko ditugu sanitariotzat:

- Asistentzia eta atentzio sanitarioa ematen duen egituraren gunekak: zerbitzuen, unitateen, zentroen, gela moten izenak.

- Administrazio sanitarioko egitura osatzen duten unitate, zerbitzu, zuzendaritza, zuzendariordetza espezifikoen izenak.

- Administrazio sanitarioko eta erakunde asistentzialetako pertsonal espezifikoaren profesioak, jarduerak, baita lan-erregimeneko espezifikotasunak ere.

- Administrazio sanitarioko jarduera administratibo eta gestio-lan espezifikoa izendatzen duten terminoak.

- Jatorriz medikuntzatik, erizaintzatik edo farmaziatik badator ere, badago administrazio sanitarioko eguneroko jardueran oinarritako eta ohikoa den lexiko eta terminologia

2. Farmaziakoa da administrazio sanitarioan gurutzatzen diren besteetatik gehien aldentzen dena, espezifikoena, termino batzuk gora behera; erizaintzakoak, berriz, termino asko dauzka amankomunean administrazio sanitariokoarekin, baina, edonola ere, hartzen duen eremua ez da bestecna bezain zabala.

mota bat, itxuraz, administratiboa ez dena, baina, Administrazioako testuak ikusi eta berehala ohartzen gara gestio sanitarioak erabat bereganatu duela. Gehienetan, oso eza-guna eta erabilia izaten da eta fakultatiboak ez direnek ere erabiltzen dituzte askotan: gaixotasun arruntak, jendeak aipatzen dituen medikamentuen edo prozedura medikoen terminoak. Izan ere, administrazio sanitarioan ohikoak direlako bereganatu edo bereganatzeaz ditu hizkera arruntak.

Medikuntzaren hizkeratik eratorria da, gehienbat, hizkera sanitarioa, esan bezala, farmazia eta erizaintza eragile garrantzitsuak badira ere. Izan ere, oinarrian zientzia hori duen jarduera administratuz sortzen da mundu sanitarioa.

Medikuntzako terminologia grekeratik³ eta latinetik hartutako erro, aurrizki eta atziki-ekin gorpuztu da.⁴ Esan daiteke hizkuntza klasikoetako ekarpena beste terminologietan baino handiagoa eta nabarmenagoa dela honetan.

Antzinate klasikoan grekera zen medikuntzaren hizkera, eta halaxe jarraitu zuen erromatar inperioan ere, ertaroan, berriz, arabierak eta latinak izan ziren oinordekoak, Bizanzion izan ezik, bertan, grekerak iraun baitzuen. XIX. mendean erabat aldatu zen egoera: hizkuntza arruntek hartu zuten latinaren tokia. Hasiera batean, frantsesa izan zen medikuntzaren hizkuntza, gero alemanerak bereganatu zuen nagusigoa, gaur egun, berriz, ingelesa da hizkuntza erreferentziala.

Erromantzez argitaratzen direnak xedetuak izaten dira, zeharka edo artez, sorburu-testu baten itzulpena dira eta. Ingelesa da, bada, sorburu-hizkuntza. Itzulpen okerrek (sasiadiskideak gehienbat) eragindako hitz eta esamolde okerrak sartzen dira ate honetatik, baita alperreko anglizismoak.

Euskal itzulpenak neurri handi batean gaztelaren menpean daudenez gero, gaztelarera heldutako okerrak sartzen dira euskararen ere: "detect" berdin "detectar" itzultzen dute gaztelarera, baina gaztelaraz "detectar" beste zerbait da: "poner de manifiesto, por métodos físicos o químicos, lo que no puede ser observado directamente".⁵ Hortaz, minbizia "se detecta" mamografiaren bidez baina organo-emaileak ez, "se localizan" edo "obtienen", arazoak, berriz, "se observan", "se perciben", "se notan". Eta euskaraz? "detektatu", "bilatu", "aurkitu" eta "ohartu" bereizi behar ditugu edo ingelesari jarraitu "detektatu" eta kito?

Grekera eta latinetik erroak, aurrizkiak eta atzizkiak hartzen dira, baita, batzuetan, hitz osoak ere:

"profilaxi" (medikuaren iritzia), "paranoia" ("para" ondoan "noia" izpiritua), "epi-" (gainean) "para-" (ondoan), "an-" (gabezia), "peri-" (inguruan), "skhizo-" (zatitu), "-algia" (mina), "-emia" (odola), "geni(a)-" (sorkuntza), "-iatria" (medikua), "linfo" (ura), "-lisi" (disoluzioa), "mano" (erotasuna), "narko" (lozorro), "neumo" (birikia), "obo" (arraultza), "onko" (hantura), "orexia" (jangura), "osi" (gaitz kronikoa), "-patia" (gaitza), "-plastia"

3. NAVARRO, F.A., HERNANDEZ, F. "Palabras de traducción engañosa en el inglés médico", *Medicina Clínica*, Barcelona, 1992, 99 zk., 575-580 orr.

4. AGIRRE, Jabier, ETXEBARRIA, Elixabete, JAUREGI, Mariaje, *Osasun zaintza*, HABE-UZEI, Donostia, 1992

5. REAL ACADEMIA ESPAÑOLA DE LA LENGUA, *Diccionario de la Lengua Española*, Espasa-Calpe, 1990

(taxutu), “-plegia” (kolpea), “-ragia” (hautsi), “(e)sklero(si)” (gogorra, zurruna), “terapia” (sendatzea), “-tomia” (zaitzea), “zefal” (buru).

Nabari denez, grekeratik datoz ia guztiak, baina, jakina, erroak, aurrizkiak eta atzizkiak hizkuntza klasiko horretatik badatoz ere, sortutako hitzak ez dira grekoak, hizkuntza bakoitzaren hizkera berezitu modernokoak baino. Nazioarteko hitzak dira eskuarki, fonologia eta arau ortografiko desberdinen arabera moldatuak.

Zenbaitetan, nahasi samarrak eta txarto eratuak izan daitezke hitzok, hala ere, munta gutxikoa da hori hizkuntzetan, hitzek konbentzioz onartuak eta erabiliak diren neurrian balio baitute, ez jatorriaren kalitateagatik. Adibidez, esan dugun bezala, “para-” aurrizkiak (grekoa) “ondoan” esan nahi du, “entero” (grekoa) “heste” da, “parenteral” terminoak, beraz, esan nahi du ez dela hesteen edo urdailaren bidez egiten; komunzki, zainetatik elikagaiak nahiz medikamentuak sartzeari dagokio. Amaierako atzizkia, berriz, erro-mantzetik jaso da, latin jatorrikoa (“-lis”, genitiboan).

Zientziaren izpirituaz jokaturaz gero, unibertsaltasunari men eginez, nazioarteko termino hauek mailegatu behar ditugu, itxura behar bezala egokituta, zientziaren beharrik zuna baita kontzeptuak bat etortzea, adiera bakarrekoak, argiak eta eragozpenik gabe identifikatzeko modukoak izatea.⁶ Honela,

ez dugu “haur-medikuntza” esango, “pediatria” baino.⁷

Honela bada, neurri batean baino ez diogu bertoko tradizioari eutsiko, mendeetan eta gaur egun arte herriak erabili izan dituen gaixotasunen izenetan hain zuzen, eta honetan ere murrizketa handiekin: “elgorria”, “bantzanga”, “buruko min” edo “bihotz-”, “bihotzeko” erabil ditzakegu, noski, baina, testu motaren arabera (espezializazio maila oinarri), “zefalea”, “zefalalgia”, “entzefalo”, “kantzerra”, “kardio-”, “kardiako” e.a. ere bai. “zain”, “zainzuri”, “kirio” esango dugu noiz-bait, baina gehienetan “baso”, “baskular”, “arteria”, “bena”, “nerbio” eta “tendoi”.

Dena den, sarritan arazobide nagusia ez dute termino bakunek ematen, konplexuek eta multzoek baino —ohikoak hizkera berezietan—. Orduan, eraikuntza sintagmatikoak egin behar ditugula, hizkuntza bakoitzak bere erregela sintaktikoak dituenz gero, noraezekoa da eraikuntzak nork bere erara egitea, eta, itzulpenen munduan baikabiltza, sorburu-hizkuntzako eraikuntza sintagmatikoen balioak ematean sortzen dira karamilak.

Administrazio sanitarioko hizkeraren arazoak

Arao terminologikoak

Esandako guztiagatik ere, errealitatea makurragoa da teoriar dirudiena baino, bazuetan, gure inguruko hizkuntzak ez baita-

6. Hau ez dute humanistek beti argi ikusi. Nekez eztabaidatuko genuke gaur egun “kimika”, “fisika”, “matematika”, “biologia” e.a., esan behar dugula —hitz “jatorrak” asmatzen ibili gabe—, era berean, ez dago “linguistika” ez esateko arrazoirik, bestela, behar ez dena asmatzen ibiliko gara, kontzeptu lausoak ekartzen eta txarto eraturako hitzak bultzatzen. Berton, hain zuzen, alperrik hitzak asmatzeko jolas nazionalari loturik, “hizkuntzalari” eta “hizkuntzalaritza” asmatu ditugu, zeren, denek dakitez, euskaldunok diferenteak baikara.

7. Ingeleseaz “paediatrics” edo “pediatrics” (EEBB), “pédiatrie” frantsesez, alemanieraz “Pädiatrie” eta “kinderheilkunde”.

toz bat gauzak izendatzeko orduan, hau da, beren erara moldatzen dute zenbait.

Arazoa hiru bidetatik dator:

- Kontutan hartu behar da, hizkuntzak gora-behera, gure administrazio sanitarioa eremu batekoa dela, hots, erdaraz nahiz euskaraz adierazita, bat bera dela. Beraz, "servicio de asistencia" edo "servicio de atención" gauza desberdinak balira, desberdintasun hori euskaraz ere eman beharko genuke, zerbitzu hori Erresuma Batuan bestela antolatzen badute ere.

- Norainoko itzala gorde behar diote itzultzaileak eta gai hauetaz idazten dutenek dabilen hizkuntzari eta hitzari?

- Asma ote daitezke desberdintasun kulturalak?

Ez dut konponbide unibertsalik edo errezetarik, auzian irizpide linguistikoak ez ezik pragmatikoak eta ideologikoak —zentzu zabalean hartuta, balioak alegia— baitaude jokoan. Hala ere, iritziak iritzi, hona nire ikuspegia:

- Hizkuntza gizararena baita⁸, errespetatu behar da arlo bakoitzeko profesionalak sortzen duten lexikoa edo terminologia, alor zientifiko edo tekniko horretan funtzionatzen duelako, gramatikaren kontra jotzen ez duen neurrian, beraiek baitira erabiltzaileak eta eguneroko jardunean funtzionarazten dutenak, bestela, etorkizunik gabe, oztupoak baino ez dira bidean jartzen.

Hizkuntza bizitzak egiten duelako bizi da, ez bulegariak.

- Itzultzaileak ez du, bere iritziak medio eta dagoenetik ihes egitearren, hizkerak asmatzen ibili behar,⁹ bestela, idiolektoak edo hizkera asozialak sortzen baititu: itzultzailearen eginkizuna zubiak eraikitzea da, testu bidezko komunikazioaren ingeniaria baita.

- Gizarte moderno batean, kultur bereizketa txikien euskarriak dira hizkuntzak, elebiduna denean ere bai, areago kultura berriei begiratzen badiegu, elementu handietan kultura-batasun handia egotea baita gizarte modernoaren ezaugarri nagusietariko bat.

Bat bera da —bazterreko salbuespenen bat gora behera— Euskal Komunitate Autonomoko kultura sanitarioa, eta berdin dio medikua edo pazientea euskaldunak direntz. Esate baterako: "paziente" / "gaixo" du buruan euskal mediku batek, erdal medikuak "paciente" / "enfermo" duen era berean.

Kultur desberdintasunak asmatzen ibiltzeak alferrikoa ez ezik, traba ere egiten du, interferentziak sortuz eta adierazi behar duen errealitatek urrunduz, hizkuntza minorizatua indarge uzten baitu, nagusiaren mesedetan noski. Mundua aldatzea dago, inbentzerik ez, literaturan ezik.

Ez dut planifikazio linguistiko normalizatzailean euskal itzultzaileak duen zeregina ukatu nahi, baina azpimarratu nahi dut edozein ekimenek oinarri bi izan behar dituela present: hizkeren mekanismoak giza-komunikazioaren mekanismo orokorren barruan daudela eta terminologiak sistematikoa eta

8. Hauxe da linguistika modernoaren oinarri teoriko nagusienetako da, Saussurek definitua: hizkuntzaren izaera soziala.

9. Ezinbestez baizik ez da asmatu behar, euskara zientifikoan, esate baterako, sarritan egin behar izan duten bezala, baina orduan ere hizkuntza erreala eta beharkizun zientifikoak ezinbesteko erreferentzia direla. Hala ere, ez nabil zeharkako itzulpenaren gainean, hau da, euskal teknikariek edo zientifikoek norik bere arloko jardunean sortzen duenaz, zuzeneko itzulpenaz baino, itzultzaileak beste batek sortutako testuaren baliokidea alegia.

argi eta zehatz itzultzeko modukoa izan behar duela.¹⁰

Egunero bidelagun ditugun arazo terminologikorik tipikoenak azalduko ditugu hurrengo orrietan. Beltzez nabarmenduko ditut erdal terminoak eta hobesten ditudan euskal baliokideak, behin-behineko proposizio gisa.

• Administrazio sanitarioiko termino oso arrunt bik jartzen gaituzte lehenengo arazoaren aurrean: “atender” / “asistir” eta eratorritako abstraktoak, “atención” / “asistencia”. “Atender”, dio *Diccionario Ideológico de la Lengua española*¹¹ hiztegiak, “Aplicar los sentidos al conocimiento de alguna cosa. Tener en cuenta alguna cosa. Cuidar de alguna persona o cosa.”, eta berdintsua da *Diccionario de la Lengua Española*¹² eta *Diccionario de uso del español*¹³ hiztegiek dakarten esanahia. “Asistir”, berriz, honelaxe zehazten du Julio Casaresek: “Prestar determinados servicios. Servir interinamente. Socorrer, ayudar. Tratar a un enfermo para su curación”. Gehiago zehazten du María Molinerrek: “Contribuir con los medios propios o esfuerzos a que alguien salga de un apuro o mala situación. Particularmente, cuidar a alguien en una enfermedad, como médico, como enfermero, etc.”.

Ñabardura bat dago kontzeptu bion artean: lehenengoak, “atender”, zerbait uler-

tzen saiatzea, arreta ematea, kontutan hartzea, eta, azkenez, zaintzea adierazten du; bigarrenak, “asistir” laguntzea, zerbitzua ematea, tratamendua ematea, sendatzea. Lehenengoan, jarrera da azpimarratzen dena; bigarrenean, berriz, jokabidea adierazten da, arazoa konpontzera daraman ekintza.

Termino sanitarioek bereizketa hori dute oinarrian: “atender”, “atención” hitzek zerbitzu sanitarioek laguntza eske datorrenaren aurrean daukaten jarrera fokalizatzen dute, jaramon egiten zaiola, erantzuten zaiola, alegia; “asistir”, “asistencia” terminoek, berriz, osasun-arazoa konpotzeko jarduera erakusten dute. Halatan, “atención” barruan laguntza sanitarioa ere egon daiteke inoiz, zentzu orokor batez erabiltzen denean, “asistencia”, aldiz, espezifikoa da.

Adibide bat. Badira “ambulancias asistidas” eta “ambulancias no asistidas”; “no asistidas” direnek bestelako “atentzioa” ematen dute —pazientea garraiatzea— ez baitaramate medikurik ez aparatu sanitarioirik. Beraz, honetan datza “asistentzia”, laguntza sanitarioa ematea hain zuzen, “atender”, berriz, ambulanzia guztiek egiten dute.

“Asistitu” eta “atenditu” euskal tradizio literarioan dauden arren, ez bide dute zentzu sanitarioirik hartu.¹⁴ Beste hitz bi agertzen dira ñabardura horrekin: “artatu” (“arretatu” sinkopatuta) eta “sorotsi”. Hitzok ez

10. Aasen-ek norvegiara normalizatzean erabilitako irizpide batzuek hartuko nituzke aintzakotzat: hizkera arruntetatik ahalik eta hurbilen ibiltzea, hitzak asmatzen edo galdutakoak berpizten ez ibiltzea. Aasen-en normalizazio modernizatzaile hori da ezagutzen diren arrakastatsuenetariko bat. MARCOS MARIN, Francisco eta SANCHEZ LOBATO, Jesús, *Lingüística aplicada*, Síntesis, Madrid, 1991, 152 or.

11. CASARES, Julio, *Diccionario ideológico de la lengua española*, Gustavo Gili, Barcelona, 1989

12. REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, *Diccionario de la lengua española*, Espasa-Calpe, Madrid, 1990

13. MOLINER, María, *Diccionario de uso del español*, Gredos, Madrid, 1991

14. MITXELENA, Koldo, *Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia-DDB-Mensajero, Bilbao, 1987

dute erderaren bereizketa egiten. Lehenengoa testu bakanetan azaltzen da, gutxitan erabiltzen baita gaur egun; bigarrenak, orain dela urte batzuk ezkeroztik inguru batzuetan ikusten dugun arren, ez du indarrik hartu eta iraungitzeko bidean dago.¹⁵ “sorotsi”, bada, hilda zegoen XVI. menderako;¹⁶ azken mende honetako giro garbizaleak egin ditu berpizteko ahaleginak.

Jakina, “asistitu” eta “atenditu” maileguk jatorrizkoen balio semantikoa bereganatu dute. Horregatik, ziur aski, nahiko zabaldu daude medikuntzaz edo Administrazio sanitarioaren inguruan azken urteotan argitaratu diren testuetan.¹⁷

“Laguntza” proposatu da “atención” eta “asistencia” batean jasotzeko, baina polisemia-arazorik ez da falta, “laguntza”, “ayuda”, “compañía”, “atención”, “asistencia”, “apoyo”, “prestación”, “subvención”, “auxilio”, “socorro”..., izan daitekeelako. Esperientziak dakigu, “laguntza” esanahi horiekin erabilita, orrialde batean lau “laguntza” desberdin azal daitezkeela eta, itzulpena sorburu-hizkuntzara atzera eginda, alde handiak azaltzen direla sorburu-eta xede-testuaren artean.¹⁸



“Osasun-zaintza” da bazterretan ibili den beste aukera bat. Ez du aurrekoaren oztopo bat ere gainditzen, arazoa handitu baino: “zaintza trinkoak”, “zaintza bereziak”, “erizaintzako zaintzak”, “zaintza paliatiboak”...

• Bereizi behar ote ditugu euskaraz “salud” eta “sanidad”? Eta “sanitario”? Ondorio zuzena da “salud” eta “sanidad” “osasun” hitzean batuz gero, “sanitario” ere horren azpian sartzea. Bereiztea beharrezkoa balitz, ordea, nekez lortuko genuke kasu guztietarako “osasun-” ataldun konposizioa joz.

“Salud”, dio Julio Casaresek, “Estado del ser orgánico en que todas sus funciones se efectúan normalmente”; María Molinerrek “Estado del organismo que no está enfermo [...] Circunstancia de los seres orgánicos por la que pueden estar más o menos sanos o estar enfermos.”

“Sanidad”, Casaresen hitzetan, “Calidad de sano” eta “Conjunto de servicios gubernativos encargados de proteger la salud del común de los habitantes del país.” María Molinerrek, “Calidad de sano” eta “Conjunto de servicios administrativos que se refieren a la salud pública.”

15. Esan didatenez, “sorospen” Gipuzkoako Foru Aldundian erabiltzen dute “socorro” esateko.

16. Garibayren *Refranes y sentencias* da jasotzen duen dokumentu bakarra. Askari ezaguna denez, eta erretrauek hizkera arkaikoa isladatzen dutenez gero, jasotzen direnerako hilda dauden hitzak eta moldeak ere erakusten dituzte.

17. Batez ere, UZEIk eta Elhuyarrek kaleratutakoak ditut gogoan.

18. “laguntza-sistema” “sistema asistencial” edo “sistema de prestaciones”? “laguntza emateko zerbitzua” “servicio de asistencia” edo “servicio de atención”? “psikologi laguntzako zerbitzua” “servicio de apoyo psicológico” edo “servicio de asistencia psicológica”? “laguntza-kostuaren unitatea” “unidad de coste asistencial” edo “unidad de coste de prestaciones”? “laguntzaileak” “auxiliar” edo “ayudante”, ez baita gauza bera osasun-laguntzaile teknikoak (ATS) edo klinikako laguntzaileak (auxiliar de clínica).

“Sanitario”, adjetibo erreferentziala, “Pertenciente o relativo a la sanidad” dela dio Casaresek, eta “De sanidad” dakar María Molinerrek.

Hortaz, aski desberdinak dira “salud” eta “sanidad”, bata egoera eta bestea, kalitateaz gainera, instituzioek eskaintzen duten zerbitzuen multzoa dira eta.

Askotan, hitzen testuinguruak berak desegiten ditu nahaspilak, ondoan “arlo-”, “zerbitzu-” edo “-garraio”, “-jarduera”, “-ikuska-pen” agertuz gero, Administrazioa baitator burura (“sanitario”, beraz). Hala ere, honela, ezin dira anbiguetateak saihestu: “osazun-zentroa” (“centro de salud” ala “centro sanitario”?) “osazun-arazoa” (“problema sanitario” ala “problema de salud”?), “osazunaren arloa” (“área de lo sanitario” edo “área de salud”), “osazun-hondakinak” (asistentziak sortzen dituen hondakinak), “osazun publiko” (“salud pública” ala “sanidad pública”?), “osazun-eredu” (“modelo sanitario” ala “modelo de salud”?).

Ingeleseaz “health” (“salud” eta “sanidad”) eta “sanitary” (“sanitario”) bereizten dira, baina “safety” (“public safety”) eta “sanitation” ere erabiltzen diren arren (zenbait konposatutan, “sanitation problems”). Frantsesez, “service sanitaire” erabiltzen dute, gutxitan “santé” (“salud”), “sanitaire” da, bada, adjetiboa.¹⁹ Beraz, frantsesez eta gazteleraz “sanitarioa” adjetiboa berezko lexema batez ematen dute eta era berean jokatzeko dute instituzioarekin ere.

Geure aldetik, gero eta gehiagotan baliatzen gara “sanitate”, “sanitario” (sanitateari

dagokiona) eta “osazun” kontzeptuez, argi eta zehatz bereizteko.

• “Paciente” eta “enfermo” erabiltzen dira erakunde sanitarioetan, dakigunez, lehenengo bigarrena baino usuago. Desberdinak dira kontzeptualizazioaren aldetik, baita ikuspegiaren aldetik ere.

“Enfermo”, osazunik ez daukana da, “paciente” dena, ordea, osazuntsu egon daiteke. Osazun-zentro eta ospitaletan jende asko dabil osazuntsu: analisiak egitera datozenak, medikuaren kontsultara doazenak, dietistari bisita egiten diotenak, haurdun dauden emakumeak... Hauek guztiak ez dute zertan gaixorik egonik. “Paziente”, bada, atentzio sanitarioa eskatzen duen pertsona da, batzuetan, asistentzia ere jaso dezake, gaixorik edo osazuntsu egonda ere. Gaixorik dagoenak gaitza du.

Edukia ez ezik, ikuspuntua ere aldatzen da, eta horixe da erabakiorrena, “paciente” medikuaren begira sortzen baitu: atentzioa eskatzera datorren hiritarra.

Baliteke euskaraz, tradizioz, “gaixo” baino ez erabiltzea, edonola ere, ez digu ezer konpontzen, batetik, tradizio administratiborik ia ez dagoelako, bestetik, gaur egungo administrazio sanitarioan dihardutenek, euskaldun nahiz erdaldun, kontzeptu horiek bereizten dituztelako.

Administraziooko zuzendaritza, diskurtso berri bat eraikiz —erreforma dela kausa noski— beste kontzeptu bat bultzatzen ari da: “bezeroa”. Ez dakit “paciente” baztertzeko beste arrakasta lortuko duen.

Geure aldetik, batzuetan, aipatzen dena gaixorik dagoela zalantzarik gabe oharitzen ga-

19. Larousse hiztegia, 1991

renean, eta, testuaren hartzailea zein den kontutan hartuta, "gaixoa" esanda argiago da goela uste badugu, "gaixoa" ematen dugu lasai asko.

- "celador" edo "zeladore" den langileak eginkizun ugari eta oso desberdinak ditu: "jagole"²⁰ eta "zelari"²¹ proposatu dira euskal baliokidea emateko, ziur aski, erdal hitzaren etimoa gogoan. Zeladore batzuek zaindu egiten dute, beste batzuek, aldiz, jarduera guztiz desberdinak dituzte. Zer da, bada, "celador de autopsias" deritzana? "autopsia-jagole"? Ez noski.

Ez dugu berme hoberik aurkituko "zelari" aukerari lot dakizkiokeen hitzak burura ekarriz gero: "zelatatu. du ad. 1. Norbaiti, bera konturatu gabe, so egon, egiten duenaz jabetzeko. 2. Ezkutaturik norbaiten zain egon, hari ustekabea erasotzeko" edo "zelatu: du. ad. Zaldi eta antzekoei zela jarri."²²

- "mediku" eta "sendagile" hitzen artean aukeratu behar izanez gero, ez dugu ahaztu behar ezen, batetik, "mediku" hitzak tradizio literarioa daukala bere alde, bestetik, herri-hizkeraren bermea ez zaiola falta.²³

- Askoz korapilotsuago da "médico" adjetiboaren baliokide egokia aurkitzea, adiera desberdinak baititu, sarritan, nekez, antzematen diogunak.

Hainbat kasutan, "medikoa" eta "kirurgikoa" kontrajartzen dira, hots, "medikoa" ez dela "kirurgikoa" adierazi nahi du Administrazioak: "zuzendariorde medikoa", "onkologia medikoa", "unitate medikoa", "egune-

ko ospitale medikoa", "tratamendu kirurgikoa eta medikoa"... Ezbairik gabe, kasu honetan, baliokidea ezin daiteke "medikuntza-" izan. Baina, maiz, medikuak egiten duela erakusten du, edota, oro har, medikuntzaren arlokoa dela: "medikuaren goardia", "enpresako medikuntza-zerbitzua", "medikuntza-komunikaziorako unitatea", ezgaitasunak baloratzeko medikuntza-unitate...

Dena den, usu sortzen da zalantza; horrelakoetan, "mediko" adjetiboa mailegatuaz baliatzeari deritzat egokiena: "jarduera medikoa", "eguneko ospitale medikoa"...

Hala ere, "médico" adjetiboa balio sanitariorik gabe ere erabiltzen da, hitzek duten majiagatik. "Larrialdi medikoak" irakurri dugu anbulantzia batean, beraz, ez dira suhiltzaileak hor doazenak.

- Batek baino gehiagok dio administrazio sanitarioan beharrezkoak diren guztiak "langileak" edo "beharginak" direla eta, halatan, instituzio hauetan dihardutenen taldeari "langileak", "langileria" izendapena dago kiola. Ildo horretatik, "langile sanitarioak" (edo "osasun-langileak?"), "langileria sanitarioa", "sanitarioak ez diren langileak" edo "langile ez sanitarioak" e.a., esan beharko genukeela dirudi.

Casaresek dio "personal": "Conjunto de las personas que pertenecen a una determinada clase, corporación o servicio."

Bazter ditzagun, hasteko, "langilego" eta, zer esanik ez, "lanarigo" —txarto eraturako

20. Euskadiko osasun-erakundeetarako seinaleztapen-proiektua, Eusko Jaurlaritza, 1985, argitaratu gabea.

21. *Hiztegia 2000*, 1991

22. *Euskal hiztegi modernoa*, Elhuyar-Elkar, 1994.

23. Esate baterako, Axularren eta Jean Etchepare mirikuaren lanak, Iparraldean "sendakin" ere erabiltzen bada ere.

hitzak omen— azken bolada honetan biziki kritikatu baitituzte eta.

Zertan datza arazoa? Erderaz, “**trabajador**” “**obrero**” tik hurbil sentitzen dugu. Julio Casaresek dio “Jornalero, obrero”, eta María Molinerrek “Obrero. Persona que se gana la vida con un trabajo corporal” dakar. Baliteke ñabardura horregatik, Administrazioan —orobat lan teknikoa egiten den tokietan— “**personal**” hitzaz baliatzea, lan-harremanetarako “**trabajadores**” ere erabiltzen duen arren. Hala ere, pertsonal hori “subalterno” denean, eragozpen gutxiago dago “**trabajador**” esateko.

Euskaraz gauzak ez dira oso diferente: “Langile. iz (1575). 1. Lan egiten duena; bere lanetik ogibidea irabazten duen pertsona.” Eta gaineratzen du: “Lanbide jakin batean sari-truke aritzen dena; batez ere, eskuen bidez industriari lan egiten duena.”

Administrazio sanitarioko askok “**trabajador**” edo “**langile**” direla esaterik ez lukete onartuko. Ezin uka dezakegu guztiaren azpian aurriritzi ideologikoak daudela. Ondorioz, “**personal sanitarioa**” eta “**personal ez sanitarioa**” —edo “**sanitarioa ez den pertsonala**”— baliokideak onartzen ditugu gero eta errazago.²⁴

• Tokiak izendatzeko ere badago gorabeherarik. “**Centro de salud**” hitzez hitz ematen dugu: “**osasun-zentro**”. Erarik hedatuen da, Euskadiko Komunitate Autonomoan behinik behin. “**Osasun-etxe**” eta “**osasundegi**” ere irakur daitezke nonbait. Kontutan

hartu “**centro de salud**” eta “**centro sanitario**” ez direla gauza bera.

“**Zentro**” diogu, lehen erabiltzen zen “**zentru**” baztertuta, Euskaltzaindiak -**ter**, -**tra**, -**trum** amaiera zuten hitzetan -**tro** hobesten duelako, nahiz eta Axularrek, “**zentru**” idazten zuen.²⁵

“**Zentro**” hitz generikoaz baliatu behar dugu hainbatetan. Nire ustez, eskuarki, ezin dugu “**etxe**” erabili “**centro**” esateko, “**osasun-etxe**” dugunean funtziona dezakeen arren: “**laguntza-zentro**”, “**zentro ambulatorio**”, “**hitzartutako zentro**”, “**tratamenduko zentro monografiko**”, “**medikamentuei buruz informatzeko zentro**”, “**eguneko zentro**”, “**osasun mentaleko zentro**”, “**gestio-zentro**”, “**harre-ra-zentro**”, “**ama-haurrentzako zentro**”...

“**Sorotsi**” konposagaidun beste aukerei dagokienez (“**sorostegi**”, “**sorospen-etxe**”, “**sorospen-zentro**”), gogora bedi hitz horretaz beste toki batean esan duguna.

• Ezaguna denez, Osakidetzan, normalki, “**ospitaleak**” dauzkagu, ez “**eritegiak**” edo “**eritetxeak**”. Literatur tradizioa du bere alde “**ospitaleak**” —Axular eta Jean Etchepare kasurako—, herritarren hizkera ere bai, nazio arteko hedapenez ahatu gabe. Gainera, ospitalea ez da eritetxea eta eritegia, zerbait konplexuagoa baino. Jakina, Komunitate Autonomoan, osasun faltaz, “**gaixorik**” egoten gara, Ekialdean, berriz, “**eri**”.

• Ezbaian ibili gara, luze, “**anbulategi**” mailegua, -**tegi** atzizkiaz mozorrotu arren, eta txarto eratutako hitza, baztertu behar genuen-

24. “**Pertsonal**: enpresa, erakunde, zerbitzu publiko batean lan egiten duten pertsonen multzoa; langilegoa. *Klinikako personalak greba egingo du.*” *Euskal hiztegi modernoa*, op. cit.

25. *Maileguzko hitzak*, Euskaltzaindia, Bilbao

nentz erabakitzeke. Arazoa honetan datza: bazterretan dabil eta, hizkuntzen etenik gabeko moldaketan, konbentziozkoak eta historikoki determinatuak baitira, gizartearen onarpenak du garrantzia, ez sorreraren kalitateak. Hala eta guztiz ere, ez dugu egun erabiltzen, irmoki finkatuta ez dagoelakoan eta oraindik baztertzeko paradan gaudela uste baitugu. Haren orde, bada, "ambulatorio" darabilgu.

Kasu berdina da "laborategi" hitzarena, eta era berean erabaki dugu: "laboratorioa". "Kontsultategi" denean, berriz —hau ere moztortua, eutsi egin diogu hedatu denari, ez baitago, guk uste, txarto eratuta.

• Baina ohar gaitzen "ambulatorio", sustantibo ez ezik, adjetibo ere izan daitekeela, "ambulatorioak" baitira ospitaletatik kanpo Administrazio sanitarioak eskaintzen dituen espezialitateak: "asistentzia ambulatorioa", "ebakuntza ambulatorioa", "kirurgia ambulatorioa". Okerra da, bada, "servicios ambulatorios" esateko "ambulategiko zerbitzuak" esatea.

• Tratamenduren edo araketaren bat egiteko pertsona bat ospitalearen ardurapean egun bat baino gehiago geratzeari "ingresar" deritzagu eta "ingreso" ekintzari. "Ingresatu" eta "ingreso" maileguak hobetsi ditugu "ospitalean sartu", "sarrera" edo "sartzea" aukeren kaltetan.

Ingelesaren eta frantsesaren ildotik jo genezake²⁶ eta, ondorioz, "ospitalean onartu" eta "onarpena" erabiltzea, "onarpen-zerbitzu" esaten dugun bezala, ez dugu egin baina.

"Hospitalizar", eta "hospitalización" hurrean dabilzkie aurreko kontzeptuei, baina ez dira berdinak. "Ospitaleratu", eta "ospitaleratze" baliokideak eman ditu zenbaitek, administrazio sanitarioetako euskara-teknikariok, ordea, "ospitalizatu" eta "ospitalizazioa" hobetsi ditugu, hitz bat mailegatuz, haren ibilera, urteetan zedarritutako balio semantikoa alegia, bereganatzen baitugu. Bada, ez zaigu egokia iruditzen "ingresar" "etxeratu", "elizaratu" eta era horretako hitzen familian sartzea, "ospitalizazioa" "ospitalera joan" ez izanik, kontzeptua ia erabat galtzera garamatza eta.

"Ospitaleratu" baztertuta, "ospitaleratze" aukerak ez du euskarririk, "ospitalizazioa", berriz, -zio euskal atzizki jatorraz hornitua, egokia bezain naturala iruditu zaigu.

• "Medikamentu", "medikazio", "sendagarri" eta "sendagai" (Mendebaldean) edo "sendagailu", "sendakari" (Iparralde-Ekialdean dira farmakoak izendatzeko ezagutzen diren hitzak. Denak onartu ditugu, baina fiabardura desberdinekin: "medikamentu" eta "medikazio" farmakoak hizpide direnean eta gainerakoak, oro har sendatzen duten sustantziak, oro har, aipatzen ditugunean, "sendagarri" eta "sendagailu", tokian tokiko, erregistro arruntagoetarako bereiziz.

"Botika" hitzak ere (medikamentua eta farmazia) izan lezake parte banaera horretan, jendearentzat edo zabalkunde handiko testuetan.

Agian, arazo bera dugu "botikari" eta "farmazilari" hitzen kasuarekin, "Farmazia" jakintza izendatzeko utzita. Dena den, alor ho-

26. Ingelesez "to be admitted to the hospital" eta "admission", "admis" eta "admission", frantsesez.

rretako profesionalek beren hitza esan behar-ko dute.

- “Emailea” da odola edota organoak ematen dituen. Koherentziaz, “eman” da “donar” aditzaren baliokidea. Aski arrunta izan arren, ez dirudi, kasu honetan behintzat, polisemia-arazorik dugunik.

Bestela da familiako beste baliokide bat eman behar dugunean: “donazioa”. Askotan, ildo beretik jota ez da inolako eragozpenik, “odola eman” eta “odol(a) emate” diogun bezala, orobat, “organo(a) emate” esan dezakegu eta. Hala ere, gauzak ez dira beti hain goxo eta, testuinguru batzuetan, lotura sintaktikoek ezarritako mugak direla, testu mota edo testuaren erritmoa dela, “donazio” (“organo-donazio”) hitzaz ere baliatu beharra gertatzen da.

- Testu batzuetan “emanketa” da “prestación” hitzaren baliokidea: “emanketa ortoprotesikoa” kasurako. Gure aldetik, ordea, ez dugu ikusten zertan datzan neologismoak sortzeko garai batean hain ugari korritu zuten -keta, -pen atzizkien abantaila -zio atzizki jator, malguago, arruntago eta hedatua-goaren aldera. Honela, “prestazio” hobetsi dugu. Jakina, “laguntza” ere (“laguntza ortoprotesikoa”) azaldu zaigu lehiara.

- Ziur aski, “larrialdi” ez da “urgencia” euskaraz esateko baliokiderik egokiena, ezta, bazterretan dabilzan arnas txikiko lehiakide batzuek ere (“presakako”, “premiabidezko”, “premiatasun”...), dena den, “larrialdi” ho-

rren arrakasta eta hedapena ikusita, bere hartan utzi dugu, gauzak gehiago nahastuko ez ote genituzkeen beldurrez.

- “Osasun mental” hautatu dugu Axularren “adimenduzko osasun” hitzaren kalte-tan, izan ere, desegokia deritzagu “salud mental” bezalako terminoa gaur egun adierazteko, ez baitira, berez, “adimenduzkoak” gizakiok pairatzen ditugun arimako gaitzak, ezta “burukoak” ere.

- “Ebakuntza” da “operación” eta “intervención” adierazteko gehienetan ematen duguna. Baina, alde batetik, “intervención” guztiak ez dira “ebakuntzak”, beste aldetik, aukera horrek “operar” euskaraz “ebaki” esatera garamatza nonbait. Okerra da, begi bistan dagoenez, “ebakuntza egin” bezalako perifrasiak ezer gutxi konpontzen du. Hori guztia jendeak erabiltzen dituen “operazio” eta “operatu”²⁷ hitz arrunt eta guztiz hedatuen kaltetan ez ezik, zehaztasun eta argitasunaren kaltetan ere bai.²⁸

- Atalarekin amaitzeko, oraindik garbitu gabe ditugun beste auzi batzuk agertu nahi ditut, bazterretan dabilzan aukera desberdinak, arazoen erakusgarri:

- “prebentzio”, “aurrezaintza”, “aurreba-bespen”
- “preskribitu”, “preskripzio”, “agindu”
- “administratu” (medikamentua), “harrazari”, “eman”
- “tratamendua hartu/ eman/jaso”, “tratamenduan egon”, “tratatu”

27. Frantsesez “opération chirurgicale”, “opérer”, ingelesez “surgical operation”, “to operate on” edo “to operate upon”.

28. Zein da, bada, haien hobena? Hoben nazionala: normala izatea, bestela esanda, inguruko europar hizkuntzekin erlazonaturik egotea, hegoaldekoontzat, hoben handiagoa gazteleraren antza izanez gero, orduan, edonork ulertzen duelako. Jakina denez, euskara ulertzen ez den hizkuntza mitikoa da, denborarik—historia eta espaziorik— gabea.

Adjetiboak

Terminoak, denotatzeaz gainera, sailkatzeko sistema bateko unitateak direnez gero, konposatuak izaten dira sarritan, gauzak ahalik eta gehien zehaztu beharrez. Honela, adjetibo ugari dago medikuntzaren eta administrazio sanitarioaren hizkeran, agian, beste hizkera berezietan baino gehiago, arazo bakoitza non eta nolako erlaziotan gertatzen den zehaztearren. Jakina, ez dira iritzi eta ikuspegi subjektiboak adierazteko, batzuk balioesteko eta deskribatzeko diren arren ("agudo", "crítico", "leve" ...), erreferentzialak baizik.

Erreferentziok eman beharra dago, salbuespenak salbuespen, baita xede-hizkuntzan ere. Ereku labainkorra da itzulpenaren ikuspegitik, terminoa hitz talde batez ematen denean esaldiak eraikitzeke erregelak sartzen baitira jokoan, hots, sintagmatika, hizkuntza desberdinen arau sintaktikoak.

Horretarako hiru bide ditugu: izen konposatuak sortzea, perifrasiak egitea, adjetiboak mailegatzea. Gehienetan, hiru bideak erabili behar ditugu: "Mamografía bilateral en doble proyección: cráneo-caudal y oblicua medio-lateral" edo "Titi bietako proiektzio biko mamografía: burezur-kaudala eta erditik alde baterako zeharkakoa".

Ikusten denez, sarritan, nekez jo daiteke LEF batzordeak honelakoetan aholkatzen

digun ildotik, zein baita, maileguak ekiditeko ahaleginetan, konposizioa jotzea.

Batzuetan, gainera ezinezkoa edo zentzugabekoa izan daiteke adjetibo mota hauek ez mailegatzea: "unidad central" berdin "unidade zentrala" ("unidade nagusia"?), "infección nosocomial" berdin "infekzio nosokomiala" ("nosokomio-infekzioa"? "nosokomioko infekzioa"? "nosokomiozko infekzioa"?).²⁹

Testuingururik gabe jokatzuz gero, eta erdararen antzera ez egiteko helburua nagusi dela, "funtzio-antolamendua", "epidemiologi inkesta", "erradiologi azterketa", "diagnosi eta terapia-unitatea", "mamografiaren diagnosi irakurketa", "diagnosi kategoriak", "erradiologi kontrola", "epidemiologi analisi" ... bezalakoak asma genituzake,³⁰ baina zer gertatzen da dagokien tokian sartzen ditugunean? Demagun testu hau daukagula:

"Berariaz aukeratutako zerbitzu eta unitateetan egin behar dira tratamendu kirurgikoa, erradioterapikoa eta medikoa: kirurgikoetan, onkologia erradioterapikoan eta onkologia medikoan, hurrenez hurren. Sareko gainerako ospitaleetan ere egin daiteke tratamendu kirurgikoa baina erreferentzia-ospitalearen tumoretarako batzordeak koordinatuta."³¹

Nire irudiko, ondorio gaizto bi izango genituzke honelakoetan konposizioaren bidetik joz gero:

- Irakurketaren jaria kortasuna motelduko litzateke, hots, eten gehiago egin behar geni-

29. "Nosocomio" edo gaixoak zaintzeko tokia ("nóso" edo gaixotasuna, "komein" edo zaindu).

30. "Antolamendu funtzionala", "inkesta epidemiologikoa", "azterketa erradiologikoa", "unidade diagnostiko-terapeutikoa" (edo "diagnostikoa eta terapia egiteko unitatea"), "mamografiaren irakurketa diagnostikoa" (edo diagnostikoa egiteko irakurketa), "kategoria diagnostikoak", "kontrol erradiologikoa", "analisi epidemiologikoa"


31. "Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko EAEko Programa", Osakidetza, 1995.

tuzke eta, anafora gehiago sartzearen poderioz testua korapilotsuago sortuko genukeenez gero, ez genuke inondik ere erdaraz dugun erraztasuna lortuko.

• Naturaltasunean ere galduko genuke, euskarak, orokortasunetik espezifikotasunera igaro behar dugunean, hots, izenek seinalatzen duten eremua murrizteko, balibide desberdinak dituen arren, izena-adjetibo erlazioa baita ohikoena, maiztasunik handiena duena.

Hizkuntza bakoitzak bere estiloa du: erritmoak, kadentziak, ohiko aukera morfologikoen eta sintaktikoen, konbinazio jakinen maiztasunak egiten dutena. Begi bistakoa da euskaraz, izenlagunez gainera, konposizioa ere oso emankorra dela, baina, nik uste, ez da izenen orokortasuna murrizteko bide nagusia.

Euskara eta inguruko erromantzeak, dau-den desberdintasun asko eta sakonak gorabehera, bat datoz honetan, izen-adjetibo egituraren alegia, ingelesez ez bezala, murriztailea izenaren ondotik baitaramate. Horregatik mailegatzan ditu euskaldunak hain erraz honelako adjetiboak, gutxitan, konposiziora jotzen badu ere. Izan ere, "nuklear", "natural", "artifizial", "entziklopediko" adjetiboek ez dute euskara bortxatzen, baina aberastu egiten dute, "kardiobaskular" adjetiboak egiten duen bezala.³²



Nire irudiko, berezkoagoa da, "ospitale psikiatrikoa" "psikiatri ospitalea" baino, edo "zumo naturala" "naturazko zumoa" nahiz "naturazumoa" baino, edo "energia nuklearra" "nukleoenergia" baino, "komunitate terapeutikoa" "terapia-komunitate" baino.

Zer esanik ez "erresonantzia nuklear magnetikoa" deritzan teknika berriaren kasuan.

Ez dut ezagutzen, berez, "Autonomi Elkarte" edo "Autonomi Komunitatea" esango lukeen euskaldunik, "Komunitate Autonomoa", berriz, guztiok esango genuke inolako eragozpenik gabe, hizkuntza biak, egitura horren aldetik (izena + adjetibo) bederen, bat datoz eta.

Preposiziodun osagarriak

Gaztelerak, adjetibazioaz gainera, preposiziodun osagarrien bidea darabil, orokortasunetik espezifikotasunera igaroz, izenaren eremua murrizteko.³³ Egituraren aldetik oso desberdinak diren arren —murriztailea aurretik agertzen da—, berdintsuak dira funtzioaren aldetik, izenaren erlazio erreferentzialak emateko erabiltzen direlako.

Ugariena "de" preposizioduna da, eta oso anbiguoak, azpian balio semantiko desberdinak izkutatzen dituelako. Hala ere, gehiengotan, testuinguruak desegiten du anbiguetate

32. *Euskal hiztegi modernoa*, Elhuyar-Elkar, Donostia, 1994

33. "Complementos preposicionales del nombre" direlakoak.

hori, erraz igartzen baita izkutatu den erlazioa nolakoa den.

Euskaraz izenlagunaz eta konposizioaz baliatzen gara gehienetan balioak emateko, nahiz eta beste aukera batzuk ere dauden. Izenlaguna darabilgunean, **-en**, **-(**ko*)**,³⁴ **-rako** dira erabiltzen ditugun erlazio-atzizkiak, baina, oraintsu arte, Administraziooko itzultzaileak helburutasuna sumatu duenean **-rako**, hobetsi duenez gero, biziki ugaritu da besteen kaltetan, **izen-erl.-izen** ("Aurrekontu Kudeaketarako Zuzendariorde" izen sintagma kalkatuak eginez.

Esan beharra dago azken bolada honetan zenbait aldaketa gertatu dela, zeren kalko sintaktikoaren indarrez hain arruntak egin diren nominalizazioei³⁵ hadapena txikitzearen, oinarrian aditza nabaritzen denean, aditza + **-tzeko** egitura bultzatzen ari baita, oinarrian aditza sentitzen bada: "Euskara Gizarteratzeko Zuzendaritza", "Kutura Sortu eta Zabalatzeko Zuzendaritza"...

Orobat, nolabaiteko bultzada jaso du **-ko** erlazio atzizkiak lehen **-rako** jaun ta jabe zen eremuetan. Hala ere, askoz motelago suspertzen ari da, zergatik? Nire iritziz, besteak beste, ondoko arrazoi hauengatik:

- Ideia oker bat zabaldu da, **-ko** atzizkiak **NON-NOIZ** leku-denborazko erlazioa baino ez duela adierazten edo, birdeklazioaren bitartez, adizlagunak izenlagun bihurtzeko baino ez duela balio. Bada, zein euskaltegitan ez da eztabaidatu "kotzeko giltzak" edo "kotxearen giltzak" esan behar ote den, gehienok —nik ezagutzen ditudan euskaretan bederen— lehenengoa erabilia ere.

- Garbizaletasunak indartu du murrizketa hau. Izan ere, kalko gaiztotzat hartu da **-ko** balio horietatik kanpo erabiltzea, batez ere, sorburu-testuan **"de"** agertuz gero.

Baina hamaika lekuko dago murrizketa hori gezurtatzeko, hain da nominalizatzaile boteretsua:

- "Mendiko botak", "ainguru guardakoa", "laneko tresna", "lotako txanoa", "etxeko giltzak", "etxeko andrea", "zesta puntako txapelketa" (ETB), "mezatako liburua", "elizako bidea", "emazteetako gutizia" (zioen Axularrek), "Antiguako Ama", "fisikako liburua"...

Taldea adieraztea da balio behinetariko bat: "Badiolaneko Txomin" diote Ondarroan, "Pastorkoa", "Letraukoa", "PNVko alkatea", "HBko militantea"... Eta ez da munta gutxiagokoa posesiboa, -dun ordezkatzuz: "urte biko umea", "ele ederretako gizona", "begi urdineko mutila", "ehun ardiko taldea", "bi ugazabako etxea kaltea"...

-Ko leku-denborazkoa dela iritziarekin bat, oso zabaldurik dago balio destinatiboa emateko **-rako(a)** baizik ez dugula. Azpian, **"-ko"** berdin erdal **"de"** eta **"-rako"** berdin **"para"** erlazioa suposatzen dira. Baliteke kalko sakon eta izkutu baten emaitza izatea ikuspegi hori, zeharkako itzulpenaren bidez isuria, erderaz pentsatu behar baita bereizketa hori egiteko, atzoko nahiz gaurko euskarak ez baitu horretarako biderik ematen.

Egun, **-rako** atzikiaz izenlagun eta adizlagun funtzioak emateko baliatzen gara Hegoaldean, kasu bietan balio destinatiboarekin. Baina **-ko** balio destinatiboduna ohikoa da Iparraldean, zein tradizio literarioan zein

34. -entzako, -enganako, ekiko...

35. "Natura Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketarako zuzendaria", "Sailaren Koordinaziorako Sailburuorde"...

gaur eguneko hizkeretan, Axularren "kalte egin arimako" edo lehengo "emaztetako guztizia" horiek adibide. Izan ere, Iparraldean guk **-rako** atzizkiak baliatzen garen askotan nahikoa dute **-ko** erabilia, baita, aditzari atxikirik, esaldien arteko erlazioa adierazten duenean ere: "Ekia jalgi zeneko..." Oraindik ere "norako" galderari "etxeko", "mendiko", "baserriko" erantzuten diote.

Hegoaldean, berriz, ez da atzo arratsaldekoa **-rako** adizlagun sortzailea, eta horixe da alomorfo nagusia, **-ko** hutsa oraindik ere oso ugaria den arren: "Zertako?" galdetzen da Bizkaiko hizkera gehienetan, eta "jateko" erantzuten dugu denok; halaber, "Noizko?" entzuten dugunean "biharko", "eguerdiko" da erantzuna, "dagoneko" lagun dutela.

Bizkaiko euskararen, tradizio literarioan nahiz gaurkoan, honelakoak ez dira batere bitxiak: "abadetako ikasi", "zerbait bazkaitako", "okelatako erosi"... Baita izenlagunean ere: "buruzagitako gai", "pekatuko okasino", "matrimonioko sakramentua", "adulterioko pekatua", "lapurretako pekatua"...

Hala ere, Euskaltzaindiak azaldu duenez, euskal tradizio literario osoan **-rako** oso guztixitan erabili da izenlagunak sortzeko —bi lekuko baino ez,³⁶ komuniki, adizlagunen

erlazio-funtzioa egin baitu. Euskaltegietan irakatsiagatik ere, "Tolosako autobusa" eta "Madrilgo bidea" diogu euskaldun gehien-gehienok, ez, ostera, "Tolosarako autobusa" edo "Madrilerako bidea", toki horietara garamatzala zalantza izpirik gabe, erdaraz pentsatzen hasi ezik. **-rako** izenlagun sortzailea da berriztapena, tradizio urrikoa eta oraindik ere gutxi erabilia.³⁷

Badirudi, hala ere, **-rako** izenlagun sortzailea Bizkaian zabaldu eta indartu dela gehien eta toki batzuetan "Bilborako autobusa" esan ere egiten ei dutela, baina orokorra izan gabe.

Honela bada, aski berria da **-rako** izenlagun destinatiboa sortzeko eginkizunetan, ez **-ko**, berriz.

Begi-bistakoa da **-rako** mota honek lur emankorra aurkitu duela Administrazioan, halako moduan ezen toki eta garai batzuetan **-ko** baztertzeraingo heldu baita. Premia berriei erantzuteko esfortzuan gertatu da eraberritzea, "para" balioa azpimarratzeko beharra sentitu baita. Sarritan, ondo dator beste baliabide hori, bai anbiguetateren bat argitzeko bai kakofoniak saihesteko.³⁸ Kasu askotan, berriz, ez dago inolako arrazoirik **-ko** ez erabiltzeko.

36. Fray Bartolomerenak dira, **-ko** hutsa dutenekin batera; azken hauek ugarietak: "Soinuba bada ona ta oneracua, joiqiyac bere onac dira. Soinuba bada pecaturacua..." *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1985, 381 orr.

37. "Gure iritzeia hau da: horrelakoetan, azken urteotako jaidura gorabehera, badirudi **-ra** gabeko formak zaharragoak direla eta adineko euskaldunek, euskalkirik gehienetan bederen, egungo egunean ere maizago erabiliak, nahiz eta euskaldun gazteek, bizkaieraz batez ere, zerbait **nongo** izatea eta **norako** izatea, ondotik izena darraionean ere, bereizi beharra somatzen duten. Adineko euskaldun huts bati, ordea "Elizako liburua badut etxean" dioenean, "liburua ez da elizakoa, baizik elizarakoa" erasotzeak ez du zentzurik; hark ez du horrelako bereizkuntzarik somatzen.

Bestela esanda, **nongo** beti izenlaguna den bezala, **norako** beti adizlaguna da, edo nahiago bada, izan da. Beraz "Bilboko tren", "Errenderiko autobusa", "Etxeko zapatilak", "kanposantuko bidezigorra", "zeruko bidea", "zineko sarrera" eta abar guztiz jatorrak dira eta guztiz zaharrak eta horiei **-ra** erastea ez da inola ere beharrezko, hizkuntzaren —euskalkirik gehienetan bederen— lege eta usadiociei errespetorik zor bazaie." *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, op. cit., 379-380 orr.

38. "**-koko**" taldeak sortzen dira hitza "**-koz**" amaituz gero.

Administrazio sanitarioan ez dugu baliabiderik galdu nahi —ez -rako berria ez betiko -ko atzizkia ere—, gure ustez, euskara ez baitago eskueran eduki dezakeen ezer alperrik botatzeko, aldiz, eskuratu, hartu, sortu, berriztatu behar du funtzio linguistiko jasotarako duen mendeetako eskasia gaindituko badu.

Halaber, uste dugu herriaren mintzamolde eta idazmoldetik hurrean jardun behar dugula, ahalik eta gehien, eta ez bakarrik administrazio modernoaren izpirituekin bat egitearren; euskarak bere komunitate linguistikoa du, errespetoa merezi duena, sarritan esperantoa bailitzan erabili badugu ere, hizkuntza makal eta gaixo honi ordaindu ezinezko kaltea ginez.

Hortaz, -rako atzizkiarekin batera, -ko maiz erabiltzen dugu administrazio sanitarioan —konposizioaz gainera noski— kasu bitan batez ere, izenak adierazten duena zein arlotan gauzatzen den edo zertarako den, adibidez:

“osasun mentaleko moduloa”, “eskola-osasuneko taldea”, “erizaintzako eskola unibertsitarioa”, “asistentzia espezializatuko zerbitzua”, “asistentzia psikologikorako zerbitzua”, “ospitalizazio-unitatea”, “zerbitzu nagusietako zuzendariordetza”, “ikerketa sanitarioetarako fondoa”, “asistentziarik gabeko ambulanzia”, “erizaintzako laguntzaila”, “osasuneko mahai sektoriala”, “erizaintzako zaintzak”, “instalazio eta mantentimenduko injineru tekniko”, “oftalmo-

logiako zerbitzua”, “pediatriako kontsultak”, “pediatriako larrialdiak”, “egonaldi laburreko unitatea”.

Izenlagunen kateak eta estiloa

Besterik da erdal izenlagunen kateak —erlatiboak barne— itzultzen ditugunean. komunzki, kate gogaikarriak eta ulergaitzak egin izan dira Administrazioan eta Administrazioetik kanpo, alperreko kalkoak sartuz eta euskal estiloari iruzur ginez:

“Formula honekin Nafarroarentzat berria den etapa politikoan sar gaitezke. Formula hau ahalbidetzea, elkarrizketa nagusi izan daitekeen eta izan behar duen, gure herriaren pluraltasuna present egon daitekeen eta izan behar duen, gure herriaren aberastasuna agertu bai baina bere mixeriak ezkutatzen ez dituen etapa berria ahalbidetzea da.”³⁹

Are txarrago, aurreko kasuan bezala, Sebero Altubek emandako galdegaiaren legeari jarraituz gero, oraindik orpoz orpo jende askok egiten duen bezala.

Ziur aski, ondoko hauen problema ez da, funtsean, desberdina:

“Pazienteen guztirako banaera eta beren bilakaera.”⁴⁰

“Pazienteen bilakaeraren araberako banaera.”

“Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako zuzendaria.”

“Sareko gaixo larrientzako ospitaleetako ingreso guztien gainekoa.”

39. “Felix Tabernaren tartea. Nola ikusten duzue PSN-CDN-EA kolalizioa?” *Argia*, 1995-VII-30, 1.541 zk.

40. Hau da, pazienteak, guztira hartuta, nola banatzen diren eta banaera hori nola bilakatzen den.

Mende hasieratik hona biziki kezkatu izan gara hizkuntzaren garbitasunaz, hamaika sagramatika eta *Appendix Probi* idatzita, hizkuntzaren estiloaz, aldiz, behar baino gutxiago, nire irudiko.⁴¹

Gauza jakina da inguruko erromantzeetan egitura nominalek oso pisu handia dutela, testuaren antolamenduan ardatz bihurtu arterainokoa; zer esanik ez hizkera administratiboaren denean. Baina horrelako sintagmen sorburu-hizkuntza euskara balitz, ziur aski, oso era desberdin batez antolatuko genuke, euskararen, ingelesaren antzera, egitura nominalen pisu erlatiboaren askoz txikiagoa baita, aditzaren mesedetan.⁴²

Aldizkari honen aurreko alean erakutsi denez,⁴³ gaztelaren arruntak diren erlatibo askok euskararen ez dute erlatiboaren balioa, batzuetan, benetako funtzio adjetiborik ez dutelako, enfatizatzailea baino, edo erdaraz mintzo, askotan, funtzio adjetiboaren azpian beste balio asko estaltzen direlako, edo, azkenik, euskararen beste bide batzuk ho-

besten dituelako. Euskararen ez da kasu bixia, inolaz ere ez. Ingelesez irakurrita, esate baterako, berehala ohartzen gara horretaz: sintagma askok, erlatiboak izan gabe, erlatiboak lukete baliokidea gaztelaraz.⁴⁴

Euskal literatura klasikora jo eta berehala konturatzen gara aspaldiko idazleak malgutasun handiz baliatzen zirela izenlagunaz —batez ere perpaus erlatiboaren kasuan— ez baitziren motel eta beldurrez ibiltzen irakurleari esan behar ziotena argi eta zehatz helarazterakoan. Izan ere, erlijioa arinkeriaren hartzeko moduko gauza ez zela, eta testua elebakar, ez zuten pentsatzen, Administrazioan sarritan den bezala, jendeak ulertzen ez bazuen, ondoan erdal testua zeukanik edo hurrengo belaunaldiek egingo zutenik.

Nork bere estiloa eta berezitasunak izan arren, ez zituzten kateatzen, aldiz, maiz, adjetiboaren tokira eramaten zituzten izenlagunak, helburu birekin: balio murriztailea ahuldu eta azalpenezkoa⁴⁵ indartzea, izen sintag-

41. Emaizta hor dago: hizkera berezietako testu asko —itzulpen zuzen edo zeharkako fruitua beti ere— beharrak eragindakoa baino arrotzago zaizkio euskara errealari, hots, euskal komunitatearenari, hots, euskara bakarrari, balizko euskara ez baita asmoa baino besterik: balizko olak burdinik ez.

42. Abiapuntu eta noraezko erreferentzia erdal testua dela, nekez egiten diogu itzuri izen sintagmen kateamendu horri, horretarako, ikuspegia eta, agian, baita gure erlatiboaren, kontzeptualizazioa ere, aldatu behar baikenuke, ahalmen hori, ostera, gutxitan dugu eskumenean. Izan ere, mezuaren karga izentasunetik adiztasunera eroan behar genuke, gramatikazko aldaketa edo modulazio hutsa ez dena.

43. BIGURI, Koldo, "Erdarazko erlatiboaren itzulpena" *Senez*, 1994, 10. urtea, 37-72 orr.

44. Esperientzia pertsonal bat azalduko dut, hizkuntzaren estiloaren eta gramatikaren artean dagoen tarte handiaren erakusgarri. Ingelesa ikasten nengoela, irakasleak, britaniarra, idazlan bat egiteko esan zidan. Ahalegin handiak egin nituen garbi-garbi idazteko. Irakasleari eman eta, hura harrigarria biziki haserre esan zidan halakorik berriro ez egiteko. Huts gramatikakal zeintzuk ziren argitzeko eskatuta, batere ez zegoela ihardetsi zidan, baina hura ez zela ingelesa "spanenglish" baino, hau da, ingelesaren gramatikarekin idatzitako gaztelera, gauzak ez zirela-eta nik bezala esaten. Askok ziren ingeles estilotik aldentzen zirenak, baina, bi dira, gogoratzen dudanaren arabera, nabarmenenak: bata, egitura nominalek adiztasuna azpiratuta —hots, aditzak ardatz, egindako sintagma eta esaldi osagarriak— estiloan zeukaten gehiegizko pisua; bestea, esaldiak txertatuz nolako perpaus luzeak egituratzen zuten testua, horretan erlatiboaren lana gailentzen zela.

45. Gogoratu erlatibo murriztaile eta azalpenezkoaren arteko diferentzia. Juan Garziak esaten duenez, euskal erlatiboaren beti da murriztailea, askotan zentzuz izan ez arren, pragmatikagatik ohartzen baikara murrizketa edo azalpena ote den, ez egituragatik. Adjetiboaren tokira eroanda, berriz, azalpenezko balioa indartzen omen da.

maren ardatza eskuinera ez eramatea, osagari-kate luzeak izen sintagmaren gunearen aurretik agertzeak ulertzea oztopatzen duelako:

"Izen lotsagarri damu emoten deusteenak"

"Erran zien behar ziela langile ezagutzen ez zien hura tronpatu"

"Agur egiteko apez eskualdun arrotz gu hainbertze maite gintuen hari"

*"Menditar laborari beti bere gain ibili den bat"*⁴⁶

*"emacume cleitu andi bagaco asco"*⁴⁷

Frai Bartolome Santa Teresaren adibide batzuk, aposizioak:⁴⁸


"Tratu asco dagoz engainuzcuac" (122)

"Norberac faltac daucazanac" (196)

"Agura zaarrac ta Juezac, lotsa pusca bat euqui biar evenac, cirian Santa Susana garbija galdu gura euqueen guizon bijac." (250)

"Izan leitequez gurarijac guere izatiac berez escauten ez ditubanac baina gueure us-tiac ontzat daucazanac" (252)

XX. mendearen hasieran Helgoaldean piztu zen garbizaletasunak euskara tradizio



literariorik gabe utzi zuen, lurperatu behar zela uste baitzuten. Erasoa ez du lexikoak bakarrik pairatu: baliteke sintaxiari emandako kolpeak garrantzitsuagoak izatea, baina ez gara hain erraz ohartzen. Sabino Aranak, Arrandiagak eta haren kideek lexikoan egindako saiakerek ordain zuzena dute sintaxian Sebero Altubek-eta egindakoeekin.⁴⁹

Handik hona, sintaxi zurrunagoa eta txi-roagoa izan dugu gure beharrezanean erantzuteko idazle klasikoek beraienean egiteko zituztenak baino, euskarak eremu berriak bereganatzeko tresna malguak eta ugariak behar dituenen.

46. Adibide hau eta aurreko guztiok liburu honetatik aterata daude: AGIRRE BEREZIBAR, Jesus Maria, *Euskal Gramatika deskriptiboa*, Bizkaiko Foru Aldundia-Labayru Ikastegia, Bilbao, 1991. Dena den, Fray Bartolome Santa Teresa da sistemaz baliatzen ausartena eta corpusik handiena eskaintzen duena.

47. SANTA TERESA, Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, Iruñea, 1817, 178 orr.

48. SANTA TERESA, Fray Bartolome, op. cit., 122, 196, 250, 252 hurrenez hurren.


49. Euskal literatura klasikoari gainbegirada bat egitea baino ez dago Sebero Altubek emandako ordenari buruzko legeak testu zaharrek, oro har, ez dituztela egiaztatzen konturatzeko, Mitxelenak behin esan zuen bezala, non egin zuen gogoratzen ez banaiz ere.

Arazoa ez da urliak edo sandiak erabiltzen zuen juntagailu hartaz baliatzea, nolako irizpidez ziharduten jabetzea baino. Baina, askotan goretsi arren, klasikoen amnesia dugu. Aztertu behar da idazle klasikoek nolako ahaleginak egin zituzten "Basarteko" hizkuntza hori garaiko kultura adierazteko gai izan zedin.

Gauza ezaguna da literaturak, gorputzik izanez gero, hizkuntza egiten duela, espresa-

bideak bilatuz, tresna antzuak alboratu eta emankorragoak sortu eta ereduak bultzatzen baititu. Horixe da gaztelerak jorratutako bidea, garai batean, kulturaz eta administrazioaz jabetzeko herri xehearen bazterretatik jauzi egin behar izan baitzuen. Euskara txokoraturik egon da, funtzio sozial batzuetan baik ez baita erabili.

Euskaraz arnas egiten duen literatura sortuz gero, bere sintaxia ere eraberrituko du.



Hizkuntza eguneratzeaz

IÑAXIO LÓPEZ DE ARANA
LIDIA BEITIA

Euskal hedabideak berriki plazaratu dira gure artera. Izan ere, oraindik urte asko ez dira hemengo kazetaritzaren eguneroko ihardunean ezin zela euskararen zantzu txikiarik ere somatu. Euskal kazetaritzak urte hauetan egindako bidea laburra bezain trinkoa izan da: oztopo bat baino gehiago gainditu behar izan ditu, hizkuntza kazetaritzaren egungo beharrei egokitzeko. Horren ondorioz, hitz eta izendapen berri asko sortu, kalkatu, egokitu edota mailegatu behar izan dira gure hedabideetan erabiltzeko. Auzi hori hurbilagoetik ezagutze aldera, ETBk, Euskadi Irratiak eta Euskaldunon Egunkariak (aztertutako aleak: 1995eko ekainaren 9koa, 10ekoa, 13koa, 14koa, 15ekoa, 16koa, 20koa eta 23koa) darabilten lexikoari inoizko arretarik handiena eskaini diogu boladatxo batean, telesaioretan, irratsaioretan nahiz artikulu idatzietan erabiltzeko hitzen antzintasuna edo berritasuna ebazteko asmoz. Galbahe lan horretarako, *Lur* eta *Elhuyar* hizte-

gi entziklopedikoez baliatu gara. Bestalde, artikulu hau nolabait egituratu beharra zegoela eta, modu hau iruditu zaigu egokiena: lehenengo, aurkitutako hitz berri horiek ekarri dizkiguten zenbait gogoetagai helaraziko dizkizuegu, eta gero, hitz horiek osatutako zerrenda edo corpusa bera.

Aurrerabidearekin batera, hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere hitz eta termino berrien premia du. Halere, euskarak ez du gaztelerak edo frantsesak beste baliabide hitzak sortzeko orduan. Euskarak kazetaritzan duen tradizioz eza, albisteak kanpoko berri agentzietan mamituak izatea, kazetaritzak behar dituen izendapen berriak atzerriko hizkuntzetan (batez ere, ingelesez) sortuak izatea; horiexek dira euskarak gainditu behar dituen traba batzuk egungo kazetaritzaren beharrik asetzeko. Gainera, hori gutxi balitz, euskara oso bestelakoa da kazetaritzaren lexikoa hornitzen duten hizkuntzen aldean, hizkuntz tipologiari dagokionez.

Euskal kazetaritzarako lexiko egokia sortzea gaitza bada, are gaitzagoa da hedabideetan erabili ohi diren hitzak kalean normaltasunez eta edozein hiztunen ahotan entzutea. Izan ere, edozein euskalduni samurragoa eta normalagoa egiten zaio erdal hedabideetan entzundako hitzak ahoratzea euskal hedabideetan argia berriki ikusi duten eleak erabiltzea baino. Esaterako, *aulkia* eta *mugikorra* edozein euskaldunek ezagutu eta ulertzen dituen hitzak dira; biak termino bakarrera (*aulki mugikorra*) bilduz gero, ordea, nekeza egiten zaie euskaldun gehienei, baita kirolaz edo kirol horretaz —izan ere, arraun kirolari dagokion espresioa da— aritzeko ohitura duenari ere, horren esanahia antzematea eta, jakina, are nekezagoa hitz hori beren solasaldietan erabiltzea. Horrelakoetan, aspalditik ezagutzen duen hitzari lotzea du errazen eta usuen: kasu horretan, zalantzarik gabe, *aulki mobila* erabiliko luke hiztun arruntak, euskal hedabideek *aulki mugikorra* formaren aldeko milaka aldarrikapen egin arren. Arazoa areagotu egiten da hitza erregistro kulturalik datorrenean. Esaterako, *atsikipen* hitza (gaztelaraz “adhesión”) ez da inola ere euskaldunon eguneroko hizkeran sartzen, hedabideek bultzatu arren, hiztunek ez baitute oraindik erabiltzen. Horixe da, bada, hitz bat onetsia izateko ezinbesteko baldintza. Beraz, oraindik izugarritzko aldea dago euskal hiztun arruntek eta hedabideek darabiltzaten hizkeren artean. Hori horrela izanik, hedabideek irakaste lan horretan jarraitu behar dute, beren eta herritar soilen arteko hizkuntza aldea murriztea nahi badugu. Lantegi hori errazteko, euskal hedabideen arteko adostasuna gauzatu beharko litzateke lexikoari dagokionez. Orain arte hedabide bakoitza bere aldetik ibili da erabili beharreko hitzak auke-

ratzeko orduan. Bakoitzak bere zerrendak ditu eta ez dirudi gehiegitan jotzen dutenik elkarrengana beren beharrak asetzeko. Horren ondorioz, hitz, kontzeptu edo ideia bat adierazteko ordain bat baino gehiago dugu. Hori aberastasun-ezaugarri izan daiteke norbaiten irudiko, baina batasun falta horrek ikus-entzule-irakurlea nahastea baino ez du lortzen. Izan ere, aski usu topatzen ditugu *gailurreko bilera* eta *goi bilera* eta *albiste zerbitzuak* eta *zerbitzu informatiboak* bezalako bikoteak.

Lexikoa eratzeko bideak

Hauexek dira gaur egungo joera nagusiak hitz berriak sortzeko:

Hitzak mailegatzea:

Hizkuntza bateko hitz bat hartu eta beste batera ekartzea. Maileguen barruan bi multzo bereiz ditzakegu:

- a) Mailegu berriak: SHtik XHra testuan zeuden-zeudenean, inolako aldaketarik egin gabe isurtzen diren hitzak. Esaterako: *set*, *play-off* eta beste. Ingelesetik gure hizkuntzan sartzen ari diren hitz guztiak gaztelararen bidez txertatu dira; are gehiago, euskarak ez du hartzen gaztelaraz erabiltzen ez den ingelesetik hitzik. Gaztelarak betidanik aurea hartu izan dio euskarari auzi horretan; horixe da euskarak gaztelarari dion morrontzaren beste agerbi-de bat.
- b) Mailegu egokituak: euskal ortografiara moldatuta, atzizkiren bat hartu edo bestelako egokitzapenen bat eginda,

SHtik XHra isurtzen diren hitzak. Esaterako: *luntx*, *rokodromo*, *enbargoa*, *eskuderia*, *errekorra*, *asentamendua*, *errealizatu*, *bisibilitatea*, eta beste.

Hala ere, mailegua ez da beti beharrezkoa, batzuetan alfer-alferrekoa baita, euskararen lexikoaren kalteko: *solasaldia* eta *lasterketa* hitzen partez, *tertulia* eta *karrera*. Gehiegikerian erortzeak hizkuntza desitxuratzea eta besteren esanera jartzea dakar. Behar ez denean ez hartzeak, aldiz, hizkuntza pobretzea eta bigarren mailako bihurtzea eragiten du. Neurri egokia bilatzea da giltzarria.

Hitz soil edo multzoak kalkatzea:

Hizkuntza bateko hitz bat (bakuna edo konposatua) hartu eta beste batera aldatzea itzulita, lehendik hizkuntzan zegoen hitzaz edo hitz segidaz baliatuta, alegia.

Esaterako: *adiskidantzazko partidua*, *argi berdea eman* (baimena eman), *bake indarrak*, *diru bereziak*, *gastuak estali* (ordaindu), *eskuhartze azkarreko indarrak*, *telefonoa hartuta eduki* eta beste.

Mailegu-mota berezi bat da kalkoa. Azken urteotan nagusitzen ari den baliabidea dugu gainera, eta zalantzarik ez dago hizkuntzaren altxor lexikoa aberasteko bide guztiz egokia dela, ongi eta zuhur erabiltzen asmatuz gero; izan ere, sarritan neurritz gora erabiltzen da, euskarak lehendik ere dituen baliabideak zokoratuz. Gehiegizko erabilera horren ondorioz, euskararen altxorra bazterrean uzten ari da eta gazteleraren nahiz ingelesaren menpekotasuna areagotzen. Esate baterako, kalko okerrak ere erabiltzen dira, gaztelerari orpoz orpo jarraitzeagatik: *gerra lehertu* ipini partez ez al litzateke egokiagoa izango *gerra sortu* edota *gerra hasi* esatea?

Gaizki eratutako bestelako kalkorik ere aurkitu dugu gure corpusean: *zorpen*.

Hitzak sortzea:

Euskarazko moldeetatik abiatuak hitz berriak eratzea. Maileguen eta kalkoen alderantzizko joera dugu hau. Honelakoak, zoritxarrez, oso gutxi ditugu. Eskasia horrek agerian uzten du hitz berriak erderetatik hartzen direla gehienbat.

Esaterako, *bakebideratu*, *diru bereziak*, *etxeratze deia*, *hitzartu* eta beste.

Adiera berriak ematea hitz zaharrei:

Euskararen altxorreko hitzei hedabideek beste adiera bat ematea, lehendik zuena galdu gabe. Gisa horretako adibide gutxi aurkitu ditugu: *asentamendua* ("kokapena" esanahia ere hartu du), *aurrizkia* ("prefijo telefónico" adiera hartu du); *indarrak* ("armada" esanahia hartu du, ingelesezko *force* hitzaren eraginez); *dilijentzia* (ibilgailua ez ezik, orain zuzenbide gaietako izapideak edo iharduerak ere badira), *denboraldia* (kirol gaietan adiera berezia du; partidu ofizialak hasten diren garaitik amaitzen diren bitarteko aldia); *gailurra* ("goi bilera"-ren pareko esanahia ere hartu du); *eragingarria* (zergen alorreko adiera berri bat ere badu, "zerga gutxiago ordaintzeko bidea" edo esan nahi du); *ibilbidea* (irudizko adiera ere hartzen du: "trayectoria"—politikoa edo dena delakoa—); *kanporaketa* (kiroletan "eliminatória" esan nahi du), *neurketa* (kiroletan "partidu" hitzaren parekoa da), *salataria* (azken bolada honetan "txibatoo" ere esan nahi omen du). Bestalde, *suspenditu* aditzak gaztelerazko "suspender" aditzaren adierarik gehienak hartu ditu.

Sintagma osoak (izen konposaketa) erabiltzea:

Euskarak gaztelarazko izen konposaketak errespetatu egiten ditu. Esaterako: *adiskidantzasako partidua*, *eskuhartze azkarreko indarrak*, *bake indarrak*, *bake misioak*, *bakebiderratu*, *aulki mugikorra*. Sintagmen osagaiek sorburu hizkuntzetan dituzten kategoriari eusteko joera dugu euskaraz. Esaterako, *bake indarrak* gaztelarazko *fuerzas de paz* esamoldeetik hartu du euskarak. Era berean, gaztelarak ingelesezko *peace forces*-etik hartu du. Alegia, ingelesezko bi izenek osatutako elkarre hori gaztelaraz bi izenen bidez ematen den bezala, euskaraz ere halaxe erabiltzen dugu. Ez al litzateke ulergarriagoa euskal hiztunentzat, kasu honetan, *indar baketzailleak* terminoa geure egingo bagenu, kanpotiko joera saihestuta? Beraz, ulergarritasunari lehentasuna eman behar zaio, gure ustez.



Kazetaritza: iturri oparoa

Albisteen zer-nolakoari dagokionez, kirola, politika eta nazioarteari buruzko sailak emankorrenak ditugu hitz berrien sorkuntzan; kultura eta gizartea sailetan, ostera, ez dugu horrenbeste hitz berri aurkitu, sail hauek ez dutelako hitz berrien hainbesterainoko beharrik.

Hedabideek gizartearen alor guztien berri eman behar dutenez, denetariko terminologia erabili behar dute. Eginkizun hori ganoraz burutzeko, terminologiak osaturik eta bateraturik egon beharko luke. Horrek, ordea, ez luke hedabideen betebeharra izan beharko, bestek sortutakoa erabili eta hedatzea baizik. Euskara eguneroko langai duten batzuek (itzultzaileek, interpretariek, irakasleek, idazleek eta bestek) hizkuntz lehengai finkatu horren premia badute, zer esan, bada, euskal kazetariez? Ez al da garaia denok dugun arazo honi irtenbidea emateko?

Terminologia bateratu ez delarik, hedabide bakoitzak bere gustuko hitzak hautatzen ditu, lehen adierazi bezala. Horren ondorioz, termino berbera izendatzeko hitz bat edo sintagma bat baino gehiago topatzen ditugu sarri, aniztasun horren ispilu. Esaterako: *agerpena* eta *agerraldia* (comparecencia); *albiste zerbitzuak* eta *zerbitzu informatiboak* (servicios informativos); *bisibilitatea* eta *ikusgarritasuna* (visibilidad); *deitu* eta *konbokatu* (convocar); *diru kutzak* eta *diru bereziak* (fondos reservados); *eleduna* eta *bozeramalea* (portavoz); *eskainua* eta *aulkia* (escaño); *ezlegezkoa* eta *ilegala* (ilegal); *gailurreko bilera* eta *goi bilera* (reunión en la cumbre); *gobernu hirukoitza* eta *hiruko gobernua* (gobierno tripartito); *konpetitibitatea* eta *lehiakortasuna*

(competitividad); *unitate ibiltaria* eta *unitate mugikorra* (unidad móvil).

Bestalde, unean uneko beharrei erantzuteko, errazenera lerratzen dira hedabideak, beste hizkuntzan dagoena hartzera, alegia. Horren ondorioz, ezer gutxi sortzen da euskaraz (*hitzartu*, *bakebideratu*, *gainsaria* eta beste hitz bakan batzuk salbu), beti atzerriko hizkuntzen meneko; horra jokabide horren arriskua.

Hiztegietan oraindik jasota ez badaude ere, kazetaritzak hitz berri asko eta asko bere egin ditu. Horien artean bi multzo bereizi behar ditugu: adierazpide galkorrak eta adierazpide iraunkorrak.

a) Adierazpide galkorrak: unean unekoak, denboraldi batez baino bizirik ez dirautenak, haien sorrera eragin duten albisteak hedabideek erabiltzen dituzten bitartean, hain zuzen ere. Esaterako: *kazeako untziak*, *eskubartzte azkarreko indarrak*, *altxorrenaren pagareak*, *dekretukada*, *bake misioa* eta beste.

b) Adierazpide iraunkorrak: euskaran dagoeneko erroto direnak. Hizkuntzaren altxorrean sartu beharrekoak ditugu horiek, aurrerantzean ere beren beharra izango duelako kazetariak. Esaterako: *bizkarzaina*, *diru bereziak* (edo *diru kutzak*), *berri agentzia*, *final laurdenak*, *golegilea*, *denboraldia* eta beste.

Hitz berrien kategoria gramatikala

Hitzik edo izendapenik gehienak izenak ditugu, gazteleratik mailegatuak edo kalkatuak. Izan ere, euskaraz berriki erabiltzen hasi

garen kontzeptu horietako gehienak izenak dira, hitz horien sorburuko hizkuntza diren erdarek (gaztelerak eta ingelesak, batik bat) izenak erruz erabiltzeko joera oso nabarmena baitute. Bestalde, kazetaritzaren helburua gertakarien berri ematea da eta ez horrenbeste, ordea, gertakariei buruzko baloraziorik egitea. Hori dela eta, hizkera objetiboa darabilte kazetariak, izen askoren eta adjetibo gutxiren beharra duena.

Transposioaz ezer gutxi baliatzen dira hedabideetan. Alegia, gazteleraz edo ingelesez izena dena euskaraz ere izena izaten da gehienetan. Esaterako: euskarazko *erretirada* gaztelerazko *retirada*-tik dator. Eta zergatik erabiltzen da, *erretirada* eta ez, esaterako, *erretiratzea*? Alegia, zergatik itzultzen da izena izen gisa eta ez, adibidez, aditz gisa?

Lehen adierazi bezala, adjetiboak askoz gutxiago dira izenak baino. Haatik, adjetibo erlazional batzuk (izen batetik eratorritakoak) erabiltzen dira: *bideografikoa* (*bideografia* izenetik); beste batzuk, aldiz, erdarazko hitzetatik eratorritakoak: *binkulantea* (gaztelerazko "vínculo"-tik), *biolentoa* ("violencia"-tik) eta beste. Kasu horietan maileguetara jotzen da zuzenean, oinarrian duen izenari erreparatu gabe. Esaterako: *violencia*: *bortxa* edo *bortizkeria* → *violento*: *bortxazkoa*, *bortxazalea* edo *bortitza*, *bortizkeriazalea*.

Aditz berri gutxi sortu dute hedabideek gure corpusean. Hona guk jasotako guztiak: *estortzionatu*, *azpikontratatu*, *dinamizatu*, *di-bertsifikatu*, *errealizatu*, (*gastuak*) *estali*, (*gerra*) *lehertu*, *gorpuztu*, *hitzartu*, *identifikatu*, *inpugnatu*, *inputatu*, *kamuflatu*, *kodetu*, *konbokatu*, *promozionatu*, *saneatu*, *suspenditu*, *zigorgabetu*. Horietan hiru talde bereizi behar ditugu: maileguak, kalkoak eta euskaratik bertatik sortutako aditzak.

a) Maileguak:

- Euskal hitz egokia egonda ere, mailegaturik hartzen dira hainbat aditz: *inputatu* (egotzi, leporatu), *promozionatu* (sustatu, piztu), *konbokatatu* (deitu).

- Euskal hitzik egon ez eta ezinbestekoa egiten zaigu hainbat aditz mailegatzea, perifrasiatar jo nahi ez badugu behintzat. Gaztelaraz, aditz baten inguruan esanahi antzekoak (ñabarduraren bat gora edo behera) dituzten aditzak badaude; euskaraz, berriz, ez, gehienetan behintzat. Esaterako, gaztelarazko *estorsionar* aditzaren alor semantikokoak dira: *afanar, arrancar, arrebatar, depredar, despojar, desposeer, desvalijar, devastar, expoliar, hurtar, pillar, quitar, robar, saquear, sisar, substraer* eta beste. Horiek adierazteko, ordea, hauexek ditugu euskaraz: *ebatsi, kendu, lapurtu, ostu*. Lau horiek esanahikideak izanik, ez dira erdarazkoen ordainak, ez baitituzte erdarazkoen ñabardura guztiak biltzen. Beraz, euskal kazetariak baliabideak behar ditu gaztelaraz eta beste edozein erdaraz dituen ñabardura horiek ere emateko, perifrasiak ez dira-eta kazetaritzaren hizkuntz tresna aproposak. Hona arrazoa: argitasuna eta zehaztasuna dira, izan ere, hizkera horren ezaugarriak behinenak.

b) Kalkoak: sail honetan bi multzo ditugu:

- Egokiak: erabide eta hautapen zuzena izan duten aditzak: *azpikontratu, kodetu, errealizatu, zigorgabetu* eta beste.

- Zalantzazkoak: (*gastuak*) *estali*, (*gerra*) *lehertu* nahiz *gorpuztu* (*antzeztu* aditzaren adieraz). Aditz horiek hartu duten adiera berri hori zuzena da ala gaztelararen edo ingelesaren gehiegizko eraginaren ondorioa?

c) Euskaratik bertatik eratutako aditzak. Esaterako: *hitzartu*. Honelako kasuak, zoritxarrez, oso gutxi dira, errazago izaten baita maileguetara nahiz kalkoetara jotzea.

Beste hainbat iritzi

Urte luzetako hutsunea betetzera etorri dira euskal hedabideak. Garai berriek premia berriak ekarri dituzte berekin. Horiek asetu nahirik, EITBk eta Euskaldunon Egunkariak estilo-liburu bana kaleratu dute. Argitalpenon helburua hauxe da: beren kazetariei funtsezko irizpide batzuk ematea beren lana errazago eta hobeto egin dezaten. Era, jakina, lexikoari dagozkion hainbat aipamen ere badakartzate liburuok.

Ikus dezagun, bada, Euskaldunon Egunkariaren estilo-liburuak hitz berriez, esamoldeez, maileguez eta beste zer dioen:

“(…) Mailegura jo behar denean, oso zuhur ibili behar da. Espainoetik hartzeko erraztasun handiagoa izango dugu noski erredakzioran, baina EGUNKARIA nazionala denez, eta euskararen beraren onerako eta mailegua dependentzia bihur ez dadin, frantseseko espresioarekin parekatu beharko dugu gaztelaniazkoa. Berdinak direnean (“fúnebre / funèbre”) ez dugu problemarik izango.”

“Desberdinak direnean (“control / barrage”, “gol / bur”) aztertu egin behar da batak bestearen eremuan nolako eta zenbaterainoko hedadura duen, eta horren arabera aukeratu.”

“(…) Euskaraz arrotz gelditzen diren esapiak itzultzen tematu beharrean, hobe perpausa beste era batera esaten saiatzea. Euskaraz “menos grande / moins grand” zuzen-zuzen itzuli ezin den bezala, bitxi eta itsusi ematen dute “mugatik ez urruti” (hobe “mugatik nahiko hurbil”), “ura ez-edangarria da” (“ez da dateko ona”, adibidez) eta antzek. ek.”

“Prentsa idatziak topikoak sortzeko erraztasun handia du. Eguneroko errutinak idazteko-tasun estereotipatuak finkatzen ditu nahitana-hiez, eta medio batetik bestera ere esportatzen dira gainera. Hizkuntza bakoitzak bere topikoak sortzen ditu, baina hizkuntzatik hizkuntzara ere pasatu ohi dira, ez bakarrik gaztelaniazko edo frantseseko prentsarik euskarazkora, baita ingelesezkotik hurbiletara eta handik gurera.”

“Hizkuntzaren aldetik, topiko horiek ez dira zuzenak askotan. Zuzenak direnean ere ez dira beharrezkoak beste askotan eta esamolde arrun-tago, jatorrago eta ulergarriagoekin ordezkatzakegu.”

Maileguen auzian zuhurtasunez jokatu behar dela esaten digu, beraz, Euskaldunon Egunkariaren estilo-liburuak. Horrekin batera, beste aholku batzuk ematen ditu: mailegua hartu aurretik, gaztelera eta frantse-seko espresioak sakonki aztertzea; euskaraz arrotz gertatzen diren esapideak itzultzea eta bai beste era batera esatea; prentsa idatziaren topikoekin kontu handiz ibiltzea, askotan ez baitira zuzenak, eta zuzenak izanda ere, sarri ez baitira beharrezkoak.

EITBren esku-liburuak, ostera, hauxe dio maileguaren erabileraz:

“(…) Aipa ditzagun labur-labur, hitz bat maileguz hartu aurretik, aintzat izan beharreko zenbait puntu:

* Maileguaz adierazi nahi duguna euskaraz esateko modurik badagoen ikusi, euskararen beraren baliabideei lehentasuna emanaz.

* Erabili nahi dugun maileguaren historia; noizdanik erabiltzen den euskaraz...; zein hizkuntzatatik hartua den...

* Maileguaren hedapena; non erabiltzen den eta zenbat; zenbateraino dagoen sustraitua...

* Mailegua hartzerakoan kontutan hartu behar ditugu egungo bi mailegu-iturri nagusiak, frantsesa eta espainola, alegia. Iparraldean eta

Hegoaldean nola esaten den ikusi beharko dugu mailegua aukeratzean.

* Hirugarren mailegu-iturri handia ere ondo aztertu, ingelesaren eragina, alegia. Nazioartean hedaturik egotea, ez da besterik gabe, hitz bat hartzeko arrazoi.

* Gainontzeko hizkuntzetan hitz eta kon-tzeptu berriak nola erabiltzen diren begiratuko dugu.

* Hitz teknikoak, eta batez ere oinarritzat latina eta grekoa dutenak, askotan erabilgarri izan daitezke euskaraz ere.

* Euskararen alor semantikoak aintzat har-tu; hitz bat maileguz hartzeak ez du esan nahi bere alor semantiko osoa bereganatu behar due-nik.

* Euskal itxura hartzen duten maileguak ere arretaz erabili behar dira.”

Beraz, EITBren esku-liburuak, Euskaldu-non Egunkariaren estilo-liburuak bezala, maileguekin eta kalkoekin tentu handiz ibili behar dela esaten digu: euskarak baliabide-rik izan ezean baino ez da erabili behar mai-legua eta gainera ez nolana, haren nondik-norakoak ezagutu behar dira lehenago. Honen iritziz ere, euskarak bi mailegu-iturri nagusi ditu: gaztelera eta frantsesa. Ingelese-tik ere hitzak har ditzakegu baldin eta ondo aztertzen baditugu aurretik. Halere, ikusi behar da nola erabiltzen dituzten gainerako hizkuntzetan ere.

Bestalde, esamoldeak direla eta ez direla, Justo M^a Mokoroaren *Ortik eta Emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca* esaeren bildumaren hitzaurrean Antonio Zavalak azaltzen duen iritzia ekarriko dugu orriotara, auzi honi argi pittin bat ekarriko diolakoan. Bere ustez, hizkuntzaren jabe osoa izateko, lexikoa eta gramatika ezezik, esaerak ere menderatu behar dira, horiexek ematen baitigute munduko dinamikaren berri.


Horretarako, irudi eta metaforen bidez baliatzen dira askotan.

Gaur egun, Antonio Zavalaren aburuz, euskarak esamolderik sortu beharrean, errazkeriara jo eta erderetatik (batez ere, gaztele-
ratik) hartzen ditu, batere gupida gabe. Bere hitzetan:

“Oartu gabe, izan ere, erdal kutsua oso zabaldua daukagu, ta gero ta geiago sartzen ari zaizkigu erdal esaerak gure eguneroko izketan. Erdarak alderdi guztietatik erasotzen dio euskerari, ta gure izkuntza gaixoa pobretzen eta baldartzen ari zaigu urtetik urtera”.

Hori, jakina, euskal kazetaritzan bete-betean isladatzen da, erdal kutsuko esamoldeak eta topikoak gero eta gehiago baitira euskarazko hedabideetan. Joera hori saihesteko, berebiziko esfortzua egin beharko lukete euskal kazetaritzan dihardutenek, euskararen altxorreko esamoldeak berreskuratuz, lehendik zeudenak berregokituz edota berriak egoki eratuz eta zabalduz.

Esaterako, gaztelerazko “dar luz verde” euskaraz *eskua eman* edota *baiezkoa eman* esamoldeen bidez adieraz dezakegu. Gazteleratik zuzen-zuzenean hartutako *argi berdea eman*, berriz, alfer-alferrikakoa dugu. Beste hainbeste gertatzen da *cubrir gastos* esapidearekin. Zertarako asmatu zalantzazko *gastuak estali*, *ordaindu* aditz jatorra izanda? Eta zer esan, bada, *gorpuztu* aditzaz? Ingelesezko *to embody* aditzetik hartu da zuzenean, gaztelerazko *incorporar* bitarteko izan dela. Dударik gabe, *gorpuztu* aditzaren alor sematikoa bortxatu da: *gauzatu*, *eratu* nahiz *forma hartu edo eman*-en sinonimoa izatetik, hainbat testuingurutan *antzeztu* aditzaren esanahikide izatera igaro da.



CORPUSA

Abenturerismo: aventurerismo. Abenturerismo nuklearra: aventurerismo nuclear.

Abonodun: abonado. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Euskal Hiztegian *abonamendu* jaso du. Horren esanahia: *abono, suscripción*. Beraz, horren arabera, hitzak *abonamenduduna* behar luke eta ez *abonoduna*.

Adiskidantzazko partidu: partido amistoso.

Amosal: amosal.

Argi berdea (eman): (dar) luz verde (baime-na eman). Horren pareko, aspaldiko *eskua eman* edo *baiezkoa eman* esamoldeak ditugu.

Arte: arte. Arrantza arteak: artes de pesca. Koldo Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegian eta ELHUYAR nahiz LUR hiztegi entziklopedikoetan *artea* hitza jasotzen da, eta ohizkoa ez ezik, beste adiera bat ere ematen zaio bertan: *harrapagailua, amarrua* edota *zepoa*.

Asentamendu: asentamiento. Hitz honen lehengo esanahia hauxe da: egindako obran gerta daitekeen beheramendua, material konpresio-lanagatik edo azpiko lurzorua mugimenduagatik (LUR hiztegi entziklopedikoaren definizioa. Orain, ordea, beste adiera bat ere eman zaio, *kokapen mota batena*, hain zuzen.

Atxikipen: adhesión. *Atxikipen zabala:* amplia adhesión. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Hiztegian *atxikimendua* jaso du. Horren esanahia: *apoyo, adhesión, lazo, ligadura*.

Aulki mugikor: asiento móvil.

Aurizki: prefijo (telefónico). Adiera berri bat hartu du hitz honek. Baliteke oso zuzena ez

izatea erabilera hau, *aurrizkia*, berez, *aurre* eta *hizkia* hitzen elkarte delako, eta telefono zenbaki bat, jakina, ez dago hitzez osaturik, zenbakiz baizik.

Azpikontratatu: subcontratar.

Bake indarrak: fuerzas de paz. Izen konposaketa edo hitz elkarketa. *Indarra* hitzak adiera berri bat hartzen du, *armadaren* parekoa, ingelesezko *force*-ren eraginez.

Bake misio: misión de paz (Milit.). Izen konposaketa edo hitz elkarketa.

Bakebideratu: pacificar. Izen konposaketa edo hitz elkarketa. Euskaratik bertatik sortutako hitza. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Hiztegian *bakebidea* jaso du. Horren esanahia: *medio de poner paz, modo de pacificar*.

Berrekin: reanudar. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Hiztegian adierazten duenez, Sabino Aranek 1897an sortutako hitza dugu *berrekin*.

Berri agentzia: agencia de prensa.

Berrinbertsio: reinversión.

Bidegrafiko: bideográfico. Adjetibo erlazionala.

Binkulante: vinculante. Erabaki binkulanteak: decisiones vinculantes. Adjetibo eratorria.

Biolento: violento. Adjetibo eratorria. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Hiztegian *biolent* hitza jaso du. Hain zuzen ere, hitz hori Donibane Lohitzuneko Pierre d'Urte-k idatzitako liburu batean agertzen da.

Bisibilitate: visibilidad. Koldo Mitxelenak bere Orotariko Hiztegian *bisible* hitza jaso du. Itxura denez, hitz hori Joannes Leizarra-

gak, Tartasek eta Joseph Otsoa de Arinek erabiltzen zuten.

Bizkarzain: guardaespaldas.

Bolanta: bolanta.

Bonba-auto: coche-bomba.

Debate: debate. Koldo Mitxelena bere Orotariko Hiztegian adierazten duenez, Eusebio Erkiagak erabiltzen zuen hitz hori eta Ibon Sarasolaren Maiztasun Hiztegian ere jasotzen da.

Dekretukada: decretazo.

Denboraldi: temporada. Kirol gaietan adiera berezi bat izaten du hitz honek: partidu ofizialak hasten diren garaitik amaitzen diren bitarteko aldia, eskuarki irailetik edo urritik hurrengo urteko maiatzera edo ekainera arte.

Derrotista: derrotista. Adjetibo eratorria. Koldo Mitxelena bere Orotariko Hiztegian *derrotatu* aditza jasoa du eta honako definizio hau ematen zaio: "Quedarse saciado de comer y beber". Halaxe erabiltzen du José M^a Aspirozek "Azkue hiztegiari gehituz" izeneko artikuluan.

Desestabilizazio: desestabilización.

Dibertsifikatu: diversificar.

Dilijentzia: Diligencia (Zuzenbi.). Lehen *zaldiz tiratutako ibilgailuaren* adiera besterik ez zuen. Zuzenbide gaietan adiera berezi bat hartu du azken bolada honetan: *izapideak edo iharduerak*. Koldo Mitxelena bere Orotariko Hiztegian adierazten duenez, Joannes Leizarragak ere bigarren esanahi horrekin erabiltzen zuen.

Dinamizatu: dinamizar.

Diru bereziak: fondos reservados.

Disidentzia: disidencia. Barne disidentzia: disidencia interna.

Diskrezio: discreción. Koldo Mitxelena bere Orotariko Hiztegian adierazten duenez, Joannes Leizarragak, Silvain Pouvreaux, Joseph Otsoa de Arinek eta bestek erabiltzen zuten.

Distentsio: distensión. *Distentsioaldiak*: épocas de distensión.

Disuasio: disuasión. Disuasio nuklearra: disuasión nuclear.

Eledun: portavoz.

Enbargo: embargo. *Arma enbargoa*: embargo de armas. Koldo Mitxelena bere Orotariko Hiztegian *enbargoa* gabe *enbargua* jasoa du. Pedro Miguel Urruzuno idazleak erabiltzen zuela adierazten da bertan.

Enfrentamendu: enfrentamiento.

Entzunketak: escuchas. *Telefono entzunketak*: escuchas telefónicas. *Entzunketa sarea*: red de escuchas.

Eragingarriak: incentivos. *Zerga-eragingarriak*: incentivos fiscales.

Errealizatu: realizar (Zin.).

Errekor: record. *Denbora errekorra*: tiempo record.

Erretirada: retirada (Milit.).

Eskainu: escaño.

Eskuderia: escudería.

Eskuhartze azkarreko indarrak: fuerzas de intervención inmediata. Kalkoa. *Eskuhartu* aditzak *parte hartu* esan nahi izaten du normalean; kasu honetan, berriz, *borrokari lotu* adierazteko erabiltzen da.

Esprint: sprint.

Estali: cubrir. *Gastuak estali*: cubrir gastos. *Estali* aditzaren adiera berri bat, *ordaindu* aditzaren parekoa, hain zuzen ere.

Esterminio: estermínio.

Estortсионatu: estorsionar.

Estralurtar: estraterrestre.

Etxe Zuria: La Casa Blanca.

Etxeratze dei: toque de queda.

Final-erdi: semifinal.

Final-laurdenak: cuartos de final.

Folio: folio.

Foro: foro.

Foruzaingo: policía foral.

Gaiezpen: incapacitación. *Gaiezpen berezia:* incapacitación especial.

Gailur: Cumbre. *Gailurreko bilera:* reunión en la cumbre. *Gailurra* hitzak adiera berri bat hartzen du, *goi mailakoaren* parekoa, hain zuzen.

Gainsari: bonificación (Kir.). Euskaratik bertatik sortutako hitza.

Gerra lehertu: estallar la guerra.

Giza ezkutua: escudos humanos.

Gobernagarritasun: gobernabilidad.

Gobernuburu: jefe del gobierno.

Golegile: goleador.

Gorpuztu: interpretar (incorporar). *Gorpuztu* aditza *gauzatu*, *eratu* nahiz *forma hartu edo eman*-en sinonimoa da. Aditz honek, ordea, adiera berri bat hartzen du, *antzezturen* parekoa, hain zuzen. *Gorpuzturiko pertsonaia:* personaje interpretado. Ingelesetik (*to embody*) gaztelarrera igarotako hitza eta gaztelertik euskarara.

Gregario: gregario (Kir.).

Hartuta eduki (telefonoa): tener intervenido el teléfono. *Hartu* aditzak ohikoa ez den adiera du kasu honetan.

Hazkundearen goi: techo del crecimiento.

Hazkuntza: crecimiento. *Hazkuntza ekonomikoa:* crecimiento económico.

Hegal: ala. Talde bateko jokalaria bat izendatzeko erabiltzen da zenbait kirolean. *Rugby talde bateko hegala:* ala de un equipo de rugby.

Hesi: barrera. *Segurtasun hesia:* barrera de seguridad.

Hiruko gobernu: Gobierno tripartito.

Hiruko marra: línea de tres (Kir.).

Hitzartu: acordar. Euskaraz sortutako hitza.

Ibilbide: trayectoria. Izen konposaketa. Adiera berria (irudizkoa) hartu du hitzak. *Ibilbide politikoa:* trayectoria política.

Identifikatu: identificar.

Ilegal: ilegal.

Inbestidura: inversión.

Inflazio tasa pilatua: tasa de inflación acumulada

Inhabilitazio: inhabilitación.

Inpugnatu: impugnar.

Inpunitate: impunidad. *Inpunitate giroa:* ambiente de impunidad.

Inputatu: imputar.

Intransigente: intransigente.

Ireki: abierto, open. Golf-eko lehiaketak izendatzeko modu bat.

Irudi-robot: retrato robot.

Irregularitasun: irregularidad.

Iturri: fuente. *Polizi iturria:* fuente policial.

Kadete: cadete. *Kadete maila:* categoría cadete.

Kamuflatu: camuflar.

Kanporaketa: eliminatoria. Kirol gaietan adiera berezi bat hartzen du hitz honek; lehiaketa mailakatu baten faseetarikoa bakoitza.

- Karnada:** carnada.
- Karrera:** carrera (Kir.).
- Kazeako untxiak:** barcos de cacea.
- Kodetu:** codificado. *Katea kodetua:* canal codificado.
- Kolokazio:** colocación. *Kolokazio agentzia:* agencia de colocación.
- Komenientzia:** conveniencia. *Komenientziako bandera:* bandera de conveniencia.
- Komisariatu:** comisariado.
- Konbokatu:** convocar.
- Konfrontazio:** confrontación. *Konfrontazio egoera:* situación de confrontación.
- Konpetitibitate:** competitividad.
- Kontrol:** control (Kir.).
- Kontzentrazio:** concentración.
- Kostera:** costera.
- Lauko gobernu:** gobierno cuatripartito.
- Lidergo:** liderazgo.
- Luntx:** lunch. *Harrera-luntxa:* lunch de recibimiento.
- Lur harrotu:** tierra batida (Kir.).
- Makinaria:** maquinaria.
- Makro:** macro.
- Masibo:** masivo. *Erabilera masiboa:* utilización masiva.
- Master:** master.
- Maternizatu:** maternizada. *Esne maternizatua:* leche maternizada.
- Minoritario:** Minoritario.
- Mundial:** Mundial (Kir.).
- Muntaia:** montaje.
- Neurketa:** partido. Kirol gaietan *partidua* esan nahi du.
- Ofentsiba:** ofensiva. Balizko ofentsiba: ofensiva hipotética.
- Pagare:** pagaré. *Altxorraren pagareak:* pagarés del tesoro.
- Pankarta:** pancarta.
- Play-off:** play off (Kir.).
- Plus:** plus. *Biolentziaren plusa:* plus de la violencia.
- Prebentzio:** prevención. *Prebentziozko neurria:* medida de prevención.
- Prebisio:** previsión.
- Prekarietate:** precariedad.
- Prekarizazio:** precarización.
- Prentsa ohar:** nota de prensa.
- Presidentzialista:** presidencialista. *Erregimen presidentzialista:* régimen presidencialista.
- Pribatizazio:** privatización.
- Promozionatu:** promocionar(se).
- Rokodromo:** rocódromo.
- Salatari:** confidente. *Salatari hitzari* beste ñabardura bat ematen zaio. Izan ere, *confidente* erdarazko hitza norbait edo zerbait salatzen duen pertsona izateaz gain, izkutuko informazioa norbaiti (normalean, poliziari) jakinaraziz dirurik eskuratzen duena ere bada.
- Saneatu:** sanear.
- Saskiraketa:** enceste. *Hiruko saskiraketa:* enceste de tres puntos.
- Seniorra:** senior.
- Set:** set.
- Super-talde:** super-grupo (Musik.).
- Suspenditu:** suspender (musika edo horrelako ekitaldiei dagokienez).
- Teklista:** teclista (Musik.).
- Telefono mugikor:** teléfono movíl.

Telonero: telonero (Musik.).

Tertulia: tertulia.

Tipifikazio: tipificación.

Traslado: traslado.

Txantaje: chantaje.

Txikane: chicán.

Ultraeskuindar: ultraderechista.

Umilazio: humillación.

Untziola: astillero.


Zelular: celular. *Telefono zelularra:* teléfono celular.

Zentro-eskuin: centro-derecha. *Zentro-eskuineko Gobernua:* gobierno de centro-derecha.

Zerrendaburu: cabeza de lista.

Zigorgabetu: Despenalizar.

Zorpen: endeudamiento. *Gaizki eratutako kalkoa dugu hau. Zorpen politika:* política de endeudamiento.





Miren Azkarate, Euskal Filologian doktorea, euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiaren Jagon Saileko burua da; bestalde, euskal hiztegi-gintzan aritua, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Tekniko irakaslea eta, gaur egun, EHUko Euskararako Errektoreordea da. Oso pertsona egokia, beraz, ale honetako gaiaz, terminologiaz alegia, hausnarketa egiteko, bai eta itzulpenaren inguruko zenbait gora-behera jorratzeko ere. Elkarrizketa joan den maiatzean egin zen, hau da bertan hainbat aldiz aipatzen den Euskara Institutuaren sorreraz uztailean eman zen albistea jakin aurretik; hortaz, orain badakigu erakunde hori 1997tik aurrera hasiko dela lanean, baina elkarrizketan egiten diren aipamenak zeuden-zeudenean utzi ditugu.

Miren Azkaraterekin berbertan

ELKARRIZKETA: KOLDO BIGURI

■ *Jagon Saileko buru eta hiztegi gintzan aritua izanik, zein da zure iritzia terminologia alorrean euskaraz egin den, egiten ari den edo egiteko dagoen lanari buruz?*

Horrela, bat-batean, terminologian orain arte egin dena hartu eta bi garai bereiziko nituzke. Batetik, hasierako urteak, eman dezagun, UZEI sortu zen garaikoa, 77 edo 78, eta, *grosso modo* esateko, 90 ingurura artekoa-edo, edo beharbada lehenago, 85era artekoa, ez dakit. Hor, nik esango nuke, terminologian, batez ere unibertsitatearen ikuspuntutik zerbait landua baldin bazegoen, Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik zegoela landua, ez beharbada terminologia osozozorik hartu eta kezka horrekin eta hiztegiak egiteko kezkarekin, baina bai behintzat unibertsitateko gaiak euskaraz eman eta zenbait gauza argitaratu zituztelako. Gero, ekimen horrekin loturik-edo, UZEIk atera zituen hiztegi terminologikoak daude; hor alor edo jakintzagai desberdinak landu ziren eta horrek

Badugu oraindik eginkizun nagusi bat: koordinazioa

eman ziren EHUen euskaraz ari ziren irakasleei lehen tresna bat behintzat. Gaur ikusi beharko da zer zuzendu behar den, zer geratu den atzeratua, zer termino berri behar den... baina hor badago oinarrizko tresna bat. Beste mundu bateko terminologia etorri da, Autonomia Erkidegoaren eskutik esango nuke nolabait, Administrazioaren munduari dagokiona, eta batik bat IVAP/HAEEK landu duena. Eta horren ondoan, baina beste maila apalago batean esango nuke nik, komunikabideen mundua etorri da. Orduan, hori da egin dena, bakoitzak ahal izan duen moduan.

Bestalde, nola ikusten dudan etorkizuna edo zer diagnostiko egingo nukeen? Nik uste dut badugula oraindik eginkizun nagusi bat: koordinazioa; Katalunian, esate baterako, badute batzorde bat terminologia kontuetan, Euskaltzaindiak bestelakoetan egiten duenaren pareko eginkizuna duena: egindako terminoen zerrendak aztertu, zuzendu beharre-

koak zuzendu edo behintzat proposamenak egin eta nolabait azken onespina eman, azken erabakigunea da, nolabait esateko. Horretan ikusten dut hutsunea. Ahaleginak badaude, lan dexente egiten da, baina gero hori guztia non biltzen den, nork hartzen duen azken erabakia...; hemen proposamen bat baldin badago eta hor beste bat, nork esaten du azken batean zein den forma zuzenena? Egia esan, zorionez, garai bateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza eta orain Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik talde-lanak egin dira. Talde-lanean bai Iparraldeko, Nafarroako, Autonomia Erkidegoko ordezkariak eta Euskaltzaindiako ordezkariak bildurik, bateratu ziren barne errotulazioko kontuak, bide seinaleak, nekazaritza hiztegia... Bide horretatik jo beharko genuke. Orduan, beste goiko batzorde horren beharrik gabe ere, kapaz baldin bagara horrelako ahaleginak egiteko forma baten zuzentasunaz kontsentsua lortzeko Nafarroako jendearekin, Iparraldekoekin, Foru Diputazioetakoekin eta Jaurlearitzaren ordezkariarekin, UZEI-rekin eta euskaltzainekin, badirudi horrek berak nahiko indar ematen diela hor ateratzen diren lan horiei. Gero beste kontu bat da ateratzen diren lan horiek nola hedatu, nola sartu buruan jendeari, material hori gero kontsultatu beharrekoa dela, askotan ez begiratzeagatik, edo ez galdetzeagatik edo ez dakigulako, ez dugulako erreflejo hori izaten, beharbada alferrikako ahalegin asko egiten da.

■ *Kontsentsua aipatu duzu. Uste dut, hain zuzen ere, terminologiak arrakasta edukiko badu, kontsentsua behar duela, ezta?*

Dudarik gabe. Jendeak jakingo balu proposamen bat eginda dagoela, beharbada bes-

terik gabe onartuko luke, baina, askotan, ez dakizu nora jo, ez dakizu non begiratu, edo nola jakin egin den ala ez; eta horregatik, "guk hemen beste proposamen bat egingo dugu" esaten du jendeak, eta konturatu orduko badaude hiru edo lau proposamen desberdin ingurune diferenteetan, eta gero lana handiagoa izaten da: denak bildu, hustu, zerrendak atera. Adibidez, *sala de reuniones* edo *sala de plenos* esateko, hemen lau forma dituzu. Batzuetan, gainera, laurak izaten dira gramatikalak, berez zuzenak, eta zein bultzatuko dugu?

■ *Euskaltzaindiaren eginkizun hori, orduan, koordinazio lana egitea edo kontsentsu hori bilatzen laguntzea izango litzateke?*

Ez, ez. Nik uste koordinazio lana gehiagoko dela, esate baterako, Hizkuntza Politikako arduradunena edo beste norbaitena. Euskaltzaindiaren lana gehiago da, termino zerrendak ikusten ditugunean, atzizkiarekin bat ondo erabili den, hitz elkartu mota bat zuzena den, hitz elkartuaren ordeztantzia bat egokia den, edo alderantziz, horrelako kontuak. Hau da, gehiago da lexikoaren eta morfologiaren ikuspegi orokorretik aholkuak ematea. Ez, ordea, alor berezietako terminoak euskaraz nola eman behar diren erabakitzea: horretarako, alor horietako aditua izan behar da, fisikoa, ingeniaria... Eta jakin behar da zer kontzeptu den, eta hizkuntza ere ondo menderatu behar da. Baina hortik aurrerakoa, eman dezagun, morfologiaren edo lexikoaren ikuspegi orokor bat eskain dezake Euskaltzaindiak.


■ *Itzultzaile lanetan gabiltzanok beste hainbatetik baino beharbada lehenago ere somatzen dugu terminologiaren beharra, eta, askotan, bakoitzak bilatu behar izaten du bere irtenbi-*

dea; horrela, arriskua dago, ez lau formula desberdin, baizik eta beharbada hamalau ere desberdin egoteko. Eta hori guztia ez baldin bada nolabait kontsentsuatzen edo modu bat bilatzen bateratzeko, edo hor egiten ari den lan guzti hori batera biltzeko, alde batetik kaltea ere bada hizkuntzarentzat. Ez da forma bat finkatzen, baizik eta hainbat bertsio hortik zirkulatzen ibiltzen dira inora iritsi gabe. Hortaz, ez al duzu uste kaltegarria dela itzultzaile soilen esku geratzea terminologia sortu beharra, momentuan momentuko beharren arabera?

Hor egokiena izaten da lehen proposamenak egitea, eta adituek egiten baldin badituzte askotan izaten da zuek testu bat idazten duzuenean edo eskola bat ematen duzuenean edo hitzaldi bat, normalean hor bertan sortzen da terminologia. Gertatzen dena da, euskara dagoen egoeran egonik, askotan, adibidez, Unibertsitateko irakasleek-eta esaten dizute, "termino zerrenda bat banu, behintzat oinarrizkoa izanda ere, zerbait banu, lehen gauzak jakiteko, eta hortik aurrera zerbait egingo nuke". Orduan, badirudi hutsetik abiatuta egin behar direla proposamenak eta batzuetan egin izan da hiztegi terminologikoak hartu, edo itzulpenak edo horrelako kontuak. Esaten da itzultzaile batek edozer itzul dezakeela, baina hiztegi egokiak aurrean ez baditu, sekulako hankasartzea egin dezake, non eta ez den bera fisikaria edo alor horrelako kontuak itzultzera dedikatzen dena. Nik behintzat ikusten ditut hiztegi mordoa ondoan dutela eta orain hau eta bestea arkitekturakoa, eta bestea...; horrelakoak beharko lituzke itzultzaileak.

Egia esan, beharbada hain gauza espezializatuetera iritsi aurretik ere, Euskalterm bezalako zerbait, katalanek Termcat duten bezala, datu-base terminologiko bat, ondo eratu, eta hori kontsultatzen ohituko bagina

eta horrek aukera eskeiniko baligu, esate baterako, norbaitek behar bat sortu baldin bazaio eta proposamen bat egin badu edo termino jakin bat erabili baldin badu, hori hara bidali eta horrelakoak egiteko...; katalanek esaten zidaten, esate baterako, Unibertsitatean orain Interneten posta elektronikoen bidez ari direla horrelako eztabaidak sortzen. Badituzu hainbat helbide, badakizu zer ikertzaile edo zer irakasle dagoen hor eta dei orokor bat egiten duzu. "Fisikan ari zaretenok, nik momentu honetan termino hau erabili dut, zer deritzozue, onartuko dugu?"; horrelakoak bultzatu beharko genituzke, informatikak azken urteetan eskura jarri dizkigun bide horiek.



■ Unibertsitatearen alorrera etorri, pentsatzen al duzu, hain zuzen ere, terminologia sortzeko lekuri aproposenetako bat berez, gure kasuan, Unibertsitatea izan daitekeela?

Alor gehienetan bai, ez dakit guztietan, baina askotan bai.

■ *Ari al da zerbait egiten, nolabait ahalegin horiek bateratzeko, edo banaka egiten diren ahalegin horiek modu sistematikoagoan antolatzeko?*

Zerbait egiten da. Nik hurrengo urteetan gauzak beste modu batera edo, ez dakit, antolatuagoak ikusi nahi nituzke. Orain arte egiten dena da, batez ere, urtero itzuliko diren liburuen zerrenda bat egin, itzultzen diren liburu horiek (edo, helburua hori litzateke) oinarrizko testuliburuak dira, Unibertsitateko ikasleentzat behar-beharrezkotzat jotzen ditugunak. Itzulpen horiek gehienetan ez dituzte Unibertsitateko irakasleek egiten (kasuren batean bai, baina ez gehienetan), kanpoko itzultzaileek baizik. Unibertsitateko irakasle bat izaten dute arduradun; beraz, berak berrikusten du bai terminologiaren aldetik bai sintaxi arazoetan eta abar, eta liburu horiek argitaratzen direnean, amaieran eramaten dute termino zerrenda bat. Oraindik horretan gaude. Hortik aurrera, urtetik urtera lortu beharko genuke argitaratzen diren liburu horiekin, eman dezagun jakintza arlo guztietan oinarrizko gauzak behintzat betetzea. Atzo bertan izan genuen eztabaida: ingenieritza munduan, zuzenbidean, biokimikan (biokimika esaten zenean kimikarientzat balio zuen, zientzi fakultatekoek baietz esaten zuten, odontologia aipatzen zen, medikuntza, farmaziako zenbait gauza...) badaude oinarrizko testuliburuak espezialitate baterako baino gehiagorako balio dezaketanak. Hor, azaltzen diren terminologia zerrenda horiek datu base batean sar litezke, badaude orain programak merkatuan, nonbait eros daitezkeenak eta

martxan jar daitezkeenak, eta Unibertsitatean gehienok ordenadorea dugunez, bide horretatik gauzak erraztea posible da. Horrek ez du esan nahi gero, horrekin batera (batez ere ikasleentzat, edo hasten ari diren irakasleentzat) oinarrizko zerrendak argitarara ezin daitezkeenik. Batak ez du bestea kentzen. Uste dut argitalpenekin batera talde-lan handiagoa behar dugula, oraindik ere ordu gehiago pasa behar ditugula Unibertsitatean, leku bateko eta besteko irakasleek horrelako gauzak eztabaidatzen, eta berriro diot eta ez naiz aspertuko esaten, gaur egun informatikak eskaintzen dizkigun aukerak hobeto aprobetxatzen ikasi beharko genuke.

Dena dela, aldi berean oihartzen naiz, guztiok gabiltza lanez leporaino, euskal adarretako irakasleek sekulako ahalegina egin behar dute eskolak goitik behera prestatzen, seguruenik erdarazkoek egin behar ez duten plus bat edo egin behar dute, eta orduan, jendeari eskatzea "gaintetik, atera itzazu astean edo hilean ez dakit zenbat ordu beste zera egiteko" zaila da. Baina lortu beharko genuke, gela batean mahai baten inguruan eserita ez bada, behintzat ordenadoreak eskaintzen duen bidez baliatzea: nahi duzunean joan eta ikusi zer dagoen, eta zure proposamena egin; bide horretatik lortu beharko genuke zerbait.

■ *Ez ote litzateke Unibertsitatearen beraren barruan halako zentro bat sortu beharko itzulpenak bideratzeko, terminologi beharrak nolabait lantzeko, edo beharbada pertsonal bat liberatuta edukitzeko halako denbora batez?*

Hor badago Euskara Institutuaren proiektua, orain eman behar dituen pauso guztiak eman, Madrilen Unibertsitate Kontseiluaren onspena lortu eta Hezkuntza Sailburuaren

edo Unibertsitateko Zuzendariaren mahai gainean dagoena, hori martxan jartzeko azken onarpena baldin badator, Euskara Institutua izango litzateke orain aipatu duzun zentro edo gune hori. Ez zuzenean itzulpenak egiteko, baina bai egiten diren itzulpenak berrikusteko, orain ibiltzen garen baino lasaiago edo patxada gehiagorekin. Jende liberatua baldin baduzu, euskara teknikoko irakasleentzat bilgune izan daiteke, zenbait ekimen hor bateratzeko, terminologia lanean lehen aipatzen nuen azken onarpen hori edo nork eman erabakitzeke. Egia esan, Euskaltzaindia aipatu dugu, Unibertsitatea aipatzen ari gara, baina herri honetan (eta katalanei ere berdin gertatzen zaie) askotan euskaltzainaren txapela eta Unibertsitateko irakaslearen txapela biak daramatzagunak bat baino gehiago gara eta alde horretatik horrelako koordinazio lanak egiteak ez du inolako problemarik sortzen eta beharbada jende gehiegi horretan jarri gabe, hiru bat lagun, esate baterako, egun osoko arduraldian, horretarako edukiko bagenitu, gaurko egoerarekin konparatuta, pentsatzen dut sekulako aurrerapausoa egin daitekeela. Horiek dira, eman dezagun, datorren urterako asmo onak-edo.

■ *Euskara teknikoko irakasleak aipatu dituzunez gero, eta zu horretan jarduna zarenez gero, zure esperientziaren arabera, irakasle horiek dira behar hauetaz arduratu behar dutenak, ala beste ardura batzuk dauzkate horietaz gainera?*

Ez, egia esan, irakasle horien ardura eskolak ematea da, beste edozein irakaslerena

bezala; orduan, horiek eta ingurukoak horrelako gauzez arduratu izan garen neurrian, beti izan da gure lanorduz kanpo edo geure eginkizun normalei beste hauek gaineratuaz. Euskara teknikoko irakasleen eginbeharra irakasgai horiek ematea da, besterik gabe. Irakasgai horietan, lehenengoan sintaxia, morfologia eta horrelako kontuak irakasten zaizkie ikasleei, batasun kontuak azken urteetan zertan dauden, zer arau mota eman den, azken urteetan estandarrean ikusten diren hutsunerik nabarmenenak zeintzuk diren... Gehiena Leioako Biltzarrean eman zen ikuspegiaren antzeko zerbait... Horrekin batera ahalegina egiten da, esate baterako, hizkuntzak izan ditzakeen baliabide diferentek edo egitura diferentek irakasten; esate baterako, lokailuen erabilerak zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen, edo menderakun-

tzan zenbat egitura desberdin izan ditzaketen hau eta bestea adierazteko, eta gero, euskara teknikoarekin izaten da eratorpena, hitz elkar-keta, maileguak nola

egokitu, hau da, lehen esan dugun ikuspegi orokor hori ematea, gero bakoitzak pedagogian ari dela, edo psikologian ari dela, edo medikuntzan edo estomatologian, hizkuntzaren ikuspegi orokor bat izan dezan morfologiaren edo lexikoaren ikuspegi horretatik zer den onargarri eta zergatik, edo zergatik ez, eta horrelako kontuak.

■ *Horren barruan ez litzateke komenigarri izango euskara teknikoaren ikasten dutenei itzulpenaren teknikak irakastea, beren lanetan ere horren beharra edukiko dutelako? Behar bat, gainera, terminologiarekin benetan sortzen ez dena. Zeren, jende askoren arazoa, edo ardu-*

ra, hobeto esanda, izaten da "halako termino bat nola itzultzen da euskarara"? Baina, beharbada, ez dira konturatzen horrela ez direla behar bezala konpontzen sortzen diren arazoak.

Nik esango nuke testurik traketsenak seguruenik ez direla terminologia arazoak dituztenak. Izan daiteke terminologia primeran erabilia, baina bestelako kontuetan benetan traketsa izatea. Egia esan, euskara teknikoa gaur dagoen bezala, batetik ez dago horretarako pentsatua, eta bestetik ez dut uste horretarako aukerarik ematen duenik. Esan nahi dut plan berrietan irakasgai guztietan, edo gehienetan, irakasleek dituzten ordu kopuruak urri samarrak dira, nolabait esateko. Orduan Euskara Teknikoa I ikasgaiak leku batzuetan 30 ordu baditu eta beste horrenbeste Euskara Teknikoa IIk, 60 eman dezagun izan daitezkeela egoerarik onenean (gehienetan tarte horretan dabilta, 30 eta 60 tarte horretan), egiten diren akats larrienak sintaxi mailakoak izaten dira, eta hori ere bada nolabait itzulpenaren eraginez edo sortzen dena, eta batasunerako zer esan den, eta eratorpenaren nondik norakoak, eta hitz elkarketaren nondik norako nagusiak-eta esplikatzeko baldin badizkiezu, hor joaten zaitu denbora. Orduan, itzulpenarena berez ondo iruditzen zait, baina horretarako beste gai bat planteatu beharko litzateke, eta egia da, gaur egun euskaraz, modu batean edo bestean, beti itzuli egiten dugu eta azken batean irakurtzen dugun zati handi bat eta Unibertsitatean zenbat eta goragoko mailako gauzak esplikatu, esate baterako doktoreei ikastaro bat emateko, normalean irakurtzen duzun bibliografia askotan ez da gazteleraz ere izaten, gure kasuan ingelesez izaten da gehiena, beste kasu batzuetan alemanez izan

daiteke eta orduan hortik gero zuk euskaraz kontatzen duzu. Orduan, zuzenean hartu eta itzultzen aritu edo beste modu batean aritu, azkenean nolabait beti da itzulpena, ezta? Eta hor beharrak garbi daude eta euskaraz testu bat egiteko oinarri gutxieneko batzuk-edo izango balitu jendeak, beharbada hobeto ibiliko ginateke.

Lehenengo egunean izan nituen mahai gainean Unibertsitatean hurrengo hilabeteetan aterako den liburuaren azken frogak-edo: Unibertsitateko irakasleek egindako artikululu bilduma bat da, hain zuzen ere, Unibertsitatean euskara teknikoan, adibidez, lokailuen erabileran zer komeni den, edo zerk sortzen dituen anbiguotasunak eta zerk ez, edo halako esanahi edo adiera adierazteko zer izan daitekeen egokia, edo parrafoetan nola jokatu edo perpaus luzeegiak eginez gero, edo erlatibo bat edo beste jarri behar denean nola jokatu... Horrelako ikuspegiak hartuta, batek egin zuen 20 bat orrialdeko artikululu bat, beste bat luzexeagoa..., beharbada estilo liburu baten antzekoa izan liteke, beste irtenbide bat batez ere irakasleentzat, eta batez ere azken urteeteako ikasleentzat oso material erabilgarria izan daiteke. Baina beti ere itzulpenaren oinarriko kontu batzuk jakiteak ez lieke kalterik egingo. Plan berriak, nolana ere, ez daude horren arabera pentsatuak edo behar horri behintzat ez dute kontuan hartu. Beste gauza bat da euskaraz eskolak hartzen dituzten neurrian irakasleek zer eredu transmititzen duten, testuetan zer eredu aurkitzen duten, horrek ere gauzak asko markatzen ditu gero.

■ Zentzu horretan, burura etortzen zait nola behin Belgikako Mons-eko irakasle batek komentatzen zigun, beraien unibertsitatean arrakasta handiz ipini dituztela martxan alor be-

rezituetakoa adituentzako itzulpen ikastaroak. Lanbidez itzultzaile izan gabe, itzulpenak egin behar dituzten era guztietako alorretako adituentzat. Hemen ere horrelako zerbait egitea interesgarria litzateke.

Bai, bai, guk, esate baterako, Unibertsitatearen barruan badugu beste talde bat, garrantzi handikoa, administrazio eta zerbitzuetako langileena; hor idazkari bati, edo administratzaile buru bati-edo, askotan esaten zaio "Erdaraz egin eta gero norbaitek itzuliko du euskarara". Eredu

batzuk izanda, eta horren arabera oinarrizko irizpide batzuk izango balitu, beharbada, hor ere egin liteke zerbait. Orduan, hurrengo urteetarako ikusten duzunez, mila gauza daude egiteko, kanpoan oso esperientzia interesgarriak daude, hemen ere aplikatu daitezkeenak. Alde horretatik oso erronka polita da.

■ *Badakit bat-batean botatzea oso zaila dela, baina esan al daiteke zeintzuk diren zuen asmoak Euskara Errektoreordetzan terminologiari eta itzulpenari dagokienez?*

Lehen esan dizudan bezala, helburu nagusia izango litzateke Euskara Institutua sortzea eta hor lagun batzuk lanean jartzea, eta hori izango litzateke Kataluniako unibertsitateetan edo Galizian dituzten hizkuntza zerbitzuen pareko zerbait; hau da, Institutua esaten denean, ikerkuntza gune bezala pentsatzen da. Gure kasuan, hasierako proiektuaren lehen zirriborroa egin zenetik, garbi adierazten da ez dela hori euskararen inguruko ikerkuntza egiteko. Ikerkuntza egin

beharko da, bai, euskarak oraindik puntu hau eta bestea aztertu beharra baduelako, baina gehiago izango da beste unibertsitate batzuetako hizkuntza zerbitzuen pareko zerbait. Hor, ikusi beharko da terminologia behar horiei zer irtenbide eman, itzultzen diren testuei gainbegiratuaren kontrola nola egin, ikusi beharko da bai irakasleek eta

bai ARCEPAFEko administrazio eta zerbitzuetako langileek zer behar duten; esate baterako irakasleentzat eskaini dira azken urteetan hobekuntza ikasta-


roak, pittin bat ikusteko zer zalantza duten, Unibertsitatean erabiltzen den euskara horretan zeintzuk diren akats nabarmenenak; horrekin batera eskatzen zuten Euskaltzaindiako azken urteetako araugintzaren berri ematea. Horrelako ikastaroak eman ondoren, Gipuzkoan behintzat, itzulpen ikastaroak eskatu dituzte, itzulpen ikastaroak ematen aritu da jendea, eta nik uste dut, hori oso ondo etorri dela, probetxuzkoa izan dela esango nuke, baina, beharbada, horrela, orain ikastaro bat eta gero beste bat... jardun beharrean, egin beharko genuke plan orokor moduko bat. Ikusi zer prestakuntza modu behar duten irakasleek, eta hor, jakina, irakasle guztiak ez daude maila berean; batzuk sartu berriak dira, jakintza arloa bera ere oraindik ia-ia landu gabe dago, fotografian esate baterako, edo odontologian, edo horrelakoetan. Beste batzuetan badugu urteetan euskararen eskarmentua duen jendea, esate baterako, pedagogian, irakasle eskoletan... Orduan, ikusi behar zeintzuk diren eta horren arabera ikastaro mota desberdinak eskaini, bakoitzak

dituen beharren arabera, baina beti ere plan oso baten barruan, eta beste horrenbeste administrazio eta zerbitzuetako langileekin. Orduan, horrelako marko orokor bat prestatzea, hori izango litzateke datorren urteko beste eginkizunetako bat.

■ *Beharbada geure buruaren kalterako izango da galdera, baina, zure ikuspegitik, bai euskaltzain bezala, bai euskaldun bezala, ez al gauden beharbada itzulpenaren morroiegi? Hau da, hainbat esparrutan, euskararen beharrak itzulpenaren bitartez betetzen dira, eta kitto.*

Dударик gabe. Badirudi bi hizkuntzatan gauzak egite hori edo elebitasunaren itxura hori, horixe, itxura dela, eta gero askotan funtzionatu edo lan egin, erdaraz egiten da eta itzulpena egiten da euskararen behar hori edo eskabide hori estaltzeko, edo hori zuritzeko: norbaiti eskatzen zaio itzultzeko eta orduan, azkenean, dokumentua bi hizkuntzatan ateratzen da; baina, alde horretatik, uste dut benetan pentsatu beharko genukeela irakaskun-

tzan, administrazioan, gaur helburua izan beharko lukeela benetan bi hizkuntzatan funtzionatzen hastea, eta egia da jendeak askotan esaten dizula "Baina oso nekagarria da dokumentu bera bi hizkuntzatan egitea". Normalean hizkuntza batean egiten duzu eta orduan bietako bat: edo onartzen dugu neke hori, bi hizkuntza ofizial ditugulako; edo bietako batean egiten ditugu gauzak, eta orduan besterako itzulpenaren morroi bihurtzen gara; baina besterako itzulpenaren morroi bihurtze horretan izan beharko luke batzuetan euskarara itzultzeko eta beste batzuetan euskaraz egindakoa erdarara itzultzeko. Eta bigarren parte honetan, ez dakit zenbateraino gauden, neuregandik hasita, horretara mentalizatuta. Nik zerbait egiten dudanean, normalean neuk bidaltzen ditut zuzenean bi hizkuntzatan eginak, nekez egiten dut euskaraz idatzi eta gero norbaiti esan erdaraz jartzeko, eta beharbada, bidea da esatea: "Beno, halako gizartean bizitzea tokatzen zaigu eta bietan egingo dugu".



Terminologia gora-behera

JOSU ZABALETA

Orri labur batzuetan euskal terminologiaren egoera aztertu eta horren ikuspegi zabal bat ematea ezinezko gauza da guztiz. Horrexegatik ez dut horrelako ilusio faltsurik hartu nahi horretarako, eta nire asmoetatik urrun geratzen da hori. Hala ere, itzultzaile, eta itzulpenetan terminologia erabiltzaile gisa izan dudan esperientziatik atera dudan halako ikuspegi zabal, oraindik oso zehaztu gabe bat azal dezakedala uste dut.

SENEZ aldizkari hau, izenez eta asmoz, "terminologiazko aldizkaria" ere bada. EIZIE elkartean askotan, oso sarri, planteatu izan dira, mintegi batean edo bestean, terminologiazko egitasmoak. Terminologia itzultzaileen ahotan dabil. Gure artean bada kezka bat terminologiaz, orokorrean gehiago, zehatzean baino, terminologiaz oro har areago halako edo bestelako jakintza alorretako terminologiaz baino. Aldizkari honetan ordea, —orain arte argitaratu diren zenbakiak aztertu aski da ohartzeko— oso gauza gutxi argitaratu da terminologiaz. Gogoratzeko gauza da aldizkari hau Donostiako Itzultzaile Es-

kolak sortu zuela, baina lehenengo alea Itzultzaile Eskolak berak, UZEIk eta Elhuyar elkarteak, hiru erakundeek batera, sinatua dela, itzulpena, terminologia sorkuntza eta testu teknikoen sorkuntza bateratu nahiz; bigarren zenbakitik aurrera berriz, Itzultzaile Eskola geratu zen arduradun bakar. Itzultzaileen aldizkarietan, eta itzultzaile elkarten aldizkarietan —batzuetan gehiago besteetan baino— ia beti izaten da terminologiazko atal bat, itzultzaileari —batzuei besteei baino gehiago— terminologia erabiltzaile izatea gertatzen baitzaie sarritan. Alde horretatik, itzultzaileentzako argitalpen honetan itzultzaileek terminologiaz dituzten burutazioek, irizpideek, gogoetek, edota itzultzaileek gai bateko edo besteko terminologiara, beren lanaren premiamenduz, egiten dituzten ekarpenek, leku gehixeago beharko lukete orriotan. Zentzu hori, eta ez besterik, dute lerro hauek ere.

Banuen susmoa —neurez—, eta itzultzaile banaka batzuekin baino gehiagorekin mintzatu ondoren ziurtasuna ere badut,

elkarte honetako itzultzaile asko terminologia erabiltzaile eta baliatzaile ez ezik, terminologiaren pairatzaile, nozitzaile ere sentitzen dela askotan, alegia, euskal itzultzaile askori —eta itzultzailetzat, jatorrizko testutik zuzenean euskarara itzultzen dutenak, eta jatorrizko testu anitzetatik euskarazko “jatorrizko” testuak moldatzen dituztenak, denak hartzen ditut halakotzat— deseroso eta moldakaitz gertatzen zaizkiola zenbait terminologia, eta halako edo bestelako terminologia bildumak ezinbestean bezala, eta zenbaitean testu itzuliaren zurigarri gisa, erabiltzen dituela. Susmoa dut, ordea, sentimen horren azpian terminologiari buruzko uste okerren bat ere bai agian, baina batez ere gai horri buruzko oinarrizko ideia garbi batzuen inguruan itzultzaileen artean adostasunik sortu ez izanak eragiten duen ziurtasunik eza dagoela batez ere: ez gaude ziur ondo ari garen jokatzeko halako edo bestelako terminologia erabiliz ala ez erabiliz; kritikak ez baitira falta izaten gero: batzuetan testua ez dela ulertzen, hurrengoan “zehaztasun tekniko” falta duela testuak; itzultzailea beti erdian, beti bere buruaren defentsan, eta askotan terminologia —halako edo bestelako terminologia— erabiltzen du autoritate, babes eta zurigarri gisa (“Halako hiztegitan halaxe dakar”). Hau dena ezin ukatuzkoa da, denoi gertatu baitzaigu inoiz edo behin —edo askotan—. Ez dut uste, hala ere, egoera normal baten ispilu denik hori guztia.

Gainera euskal terminologia, gehienbat —guztiz ez bada— itzulpenean erabiltzen da; itzultzaileak dira terminologia horren erabiltzaile lehen eta nagusi. Aurreko paragrafoan aditzera eman dudana bezala, itzultzaile horiek batzutan “jatorrizko” testuen egile gisa

janzen dira. Euskarazko testu sorkuntza, batez ere testu teknikoaren sorkuntza —testu tekniko eta berezitueta kontua baita terminologia— egiaz nola gertatzen den badakienak badaki zenbateko pisua duen horretan itzulpenak, beharbada ez zuzeneko itzulpenak, baina bai zeharbidezko itzulpenak, laburpenak, moldatzeak eta gisako eragiketek, itzulpenaren era beretsukoak eta oinarrian itzulpen eragiketa bat eskatzen duten jarduerak guztiak. Alfer-alferrik ukatuko da hori,itsuak ere ikusiko luke.

Komeni da beraz, terminologiari buruzko gogoeta itzultzaileen artean zabaltzea, bere lekuan kokatzea, eta horretarako terminologiari buruzko zenbait kontzeptu, oinarri-oinarrizkoak, argitzea. Bi ikuspegi dira, azken finean, argitu beharrekoak: terminologiari dagozkionak alde batetik, eta euskarazko testuei dagozkienak bestetik; alegia, zer den terminologia, zer gisatako testuetan duen lekua terminologiak, eta zer gisatako testuak diren euskaraz terminologia baliatzen dutenak. Bide batez, guztiz gomendagarria da M. Teresa Cabré-ren *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones* liburua (Editorial Anártida / Empúries.artzelona). Lehenengo hiru kapituluak bi bider irakurtzen badira, are gomendagarriago. Handik hartuak ditut hemen erabiliko ditudan kontzeptu gehienak.

Terminoak / Hizkuntza berezituak

Terminologia hitzak berak bi zentzu ditu: a) Terminoari buruzko jakintza, b) Zientzia edo jakintza alor jakin batean erabiltzen den termino multzoa.

Aurrera baino lehen, ohar gisa, adierazi behar da terminologia bera ez dela jakintza zaharra, mende laurdentsu bat ozta joan bai-

ta, nazioarteko terminologia erakundeak sendotu ahala, jakintza gorputz gisa finkatzen hasi zenetik.

Terminologiak —lehenengo zentzuan hartuta— dioenez, “terminoa” zentzurik estuenean hartuta, zientzia edo jakintza alor bateko hizkuntza edo hizkera berezitan zientzia edo jakintza alor horretako berezilarien arteko komunikazio asmoetarako, kontzeptu zehatz bat adierazteko erabiltzen den esapidea da.

Beraz, lehenik eta behin, terminologia —termino multzoa— hizkuntza edo hizkera berezitu baten parte bat da —parterik berezien eta berezituena—, eta hartan du zentzua.

Hizkuntza edo hizkera berezitu zer den nekez defini eta muga daiteke ordea zehatz. Horrexegatik daude hainbeste eztabaida gai honi buruz. “Hizkuntza berezituaren” edo “asmo edo erabilera berezitarako hizkuntzaren” definizioa “hizkuntza orokorraren” arabera zehazten da beti: batzuek hizkuntza berezi bezala definitzen dituzte hizkera horiek, beste batzuentzat hizkuntza orokorraren azpimultzo batzuk baizik ez dira, hartatik pragmatikaz baizik bereizten ez direnak. Hain zuzen ere, hizkuntza berezituak, kode artifizialak izan gabe (matematikaren irakurkera, adibidez), beren lekua dute hizkuntzaren sistema osoaren barruan. M. Teresa Cabrék, Kocourek-ekin batera, hiru al-

dagairen arabera definitzen ditu hizkuntza berezituak:

a) Hizkuntza berezituak hizkuntza orokorraren azpimultzoak dira, gaiak, esperientziak, erabilera eremuaz edo erabiltzaileez bereziak.


b) Hizkuntza berezituak multzo bat osatzen dute, elkarrekin lotura estua duten ezauzgarri komunak baitituzte; ez dira azpimultzo bakanduak.

c) Hizkuntza hauen funtzio nagusia komunikazioa da, gainerako hizkuntz funtzioen gainetik.

Hala ere, hizkuntza berezituak hizkuntza orokorraren azpimultzo gisa harturik, berezitasunaren kontzeptua hobeto mugatzeko, beste hiru aldagairen edo hiru ikuspegiren arabera mugatzen dira hizkuntza horiek: gaiaren arabera, erabiltzaileen arabera eta komunikazio egoeren arabera.

Lehenik, gai berezitzat hizkuntza bateko hiztunen ezaguera orokorretatik kanpo geratzen direnak, eta horrenbestez ikasketa (ez soilik hizkuntz ikasketa) berezia behar dutenak hartzen dira.

Bigarrenik, hizkuntza berezituaren erabiltzaileak berezilariak dira berez. Ez dira gauza berdintzat hartu behar hala ere, komunikazio berezi horien produzitzaileak eta komunikazio horien hartzaileak, ez baitzaie batzuei eta besteei ezaguera maila bera eskatzen; komunikazio zientifiko-tekniarren produzitzaile komunikazio gai horretako berezilariak izan daitezke; hartzaile be-



rriz, berezilariak bezala irakurleak oro izan daitezke, gai horietan ikasle diren aldetik.

Hirugarrenik, komunikazio zientifiko-teknikoa komunikazio modu formala izaten da, idatzizkoa ia beti.

Zentzurik estuenean, beraz, jakintza bateko berezilarien arteko komunikazio dokumentuetako hizkera doia litzateke erabilera berezietako hizkuntza.

Hizkuntza berezitu edo erabilera berezietako hizkuntza horren nolakotasuna aztertzek luze joko luke. Beti ere berezi beharko litzateke ordea hizkuntza berezia edo hizkuntza berezi horren jakintza alor bakoitzeko hizkera nolakoa "den" benetako testuetan, eta nolakoa "beharko lukeen izan", komunikazio zientifiko-teknikoak dituen baldintzak (zehaztasuna) betetzeko. Horixe baita, hain zuzen, komunikazio zientifiko-teknikoaren oinarritzeko baldintza eta asmoa: zehaztasuna. Berezilari batek zehatz jakin behar du beste berezilariak bere komunikazioan zer dioen eta zer ez dioen, berdin izendatu behar ditu berdin izendatzeko gertaerak, gaiak edo, oro har, kontzeptuak.

Horretarako sortzen dira hizkuntza berezitu horretako kontzeptuen izendapenerako konbentzioak. Konbentzio horien funtsa, hizkuntza berezitu doi batean, unibokotasuna da: kontzeptu bakoitzeko izendapen bana eta izendapen bakoitzeko kontzeptu bana izatea. Izatez, gizonak berak bezala, mugak ditu asmo horrek, eta ez da beti-beti behar bezala betetzen. Horren adibiderik egokiena, "terminologia" terminoa bera, izendapen bakarrak bi kontzeptu adierazten baititu: terminoei buruzko jakintza / jakintza alor bateko termino multzoa.

Komunikazio tekniko-zientifikoak zehaztasun, abstraktutasun eta doitasun maila bat

baino gehiago izan ditzakeen bezala, komunikazio horretako hizkuntza ere komunikazioaren tekniko-zientifikotasunaren arabera moldatzen da, komunikazio egoeraren arabera beraz. Eta zentzu horretan, hizkuntza berezituaren (edo berezituaren) eta hizkuntza arruntaren artean, komunikazio egoerak adina errejistro edo moldaera bereiz daitezke.

Terminologiaren definizioaren doitasuna hizkuntza berezitu edo erabilera berezietarako hizkuntzaren definizioaren doitasunaren arabera izaten da. Zentzurik estuenean hartzen bada, testu berezituetan gai berezietako kontzeptu bereziak izendatzeko izendapen sistema da terminologia. Komunikazio berezituaren, hizkuntza orokorreko hitzez eta lexikoaz gainera, komunikazio bakoitzaren gaiari dagozkion termino bereziak izaten dira. Jakintza alor bateko terminoen multzoak, alor horretako kontzeptu egitura islatzen du, gai horretako terminologiak jakintza alor horretako kontzeptu sarea islatzen duela.

Hain zuzen, terminologiaren erabilera da hizkuntza berezituaren ezaugarri nagusietako bat, nagusia ez bada, hizkuntza berezitu eta hizkuntza arrunta desberdin egiten dituen. Zentzu estuenean hartuta —berriro—, terminologia komunikazio berezituaren aurkitzen da:

La terminología especializada es utilizada por sus usuarios naturales, los especialistas, en las comunicaciones especializadas, y es codificada por lingüistas y terminólogos en forma de diccionarios. En consecuencia, la terminología se halla en la documentación especializada en su estado natural, y solo cuando ha sido codificada aparece en los diccionarios". [M.T. Cabré. op.cit. 167. or.]

Hizkuntza berezituaren, komunikazioa ziurtatzeko, kontzeptuaren eta izendapenaren arteko erlazio unibokoa ziurtatzea da ter-

minoaren eginkizuna. Kode berezitu bateko parte izateak ematen dio termino bati kontzeptuarekiko erreferentzia balioa, termino balioa. Beraz, zinez esan daiteke, hizkuntza berezituaren ezaugarri nagusia, pertinente den ezaugarri bakarra —zentzurik estuenean hartuta, berririo— komunikazioa ziurtatzeko behar den erreferentzia-bakartasun horretan datzala soilik.

Aipatzen ari garen terminologiaren funtzio hori beti betetzen da komunikazio zientifiko-teknikoa izateko premia dagoenean. Pernandoren egia dirudien hau ordea, badirudi ez dela beti-beti begien bistakoa gertatzen. Komunikazio premia denean terminologiarik ezak ez du inoiz eteten, deusezten komunikazio hori; sortu egiten da, asmatu egiten da terminologia —ongi eratua ala gaizki eratua, baina terminologia—, kontzeptuaren eta izendapenaren arteko erlazio unibokoa ziurtatuko duen konbentzioa, geroago konbentzio hori zuzen edo alda daitekeen arren.

Hizkuntza berezituaren gainerako ezaugarri guztiak komunikazio zientifiko-teknikoaren asmo eta gertatzeko moduen ondorioak dira: alegia, funtzio nagusia —berez bakarra— komunikaziozkoa izatea, komunikazio formala izatea, etab. Horrek baldintzatzen du hizkuntza berezituetakoa "estiloa": estilo neutro, laua izan behar duena.

Egia da komunikazio funtzioa berbera izanik, komunikazio egoera (mezuaren hartzailea, komunikazioaren formaltasuna eta gisako ezaugarriak) alda daitekeela. Hala, adibidez, badirudi Administrazioako zenbait testu motatan —legeetan adibidez— gerta daitekeela zehaztasun beharra testu berezitupei dagokien berbera izatea, eta aldiz testuaren hartzailea berezilaria ez izatea.

Hemen ez dira kontuan hartuko terminologiaren osatzeko moduak, terminologiaren oinarritzko baldintza bat baizik: terminologiak ez du behartu behar inondik ere hizkuntzaren sistema orokorra:

"Las relaciones que establecen los términos, tanto con el léxico como con los demás componentes de la gramática, no permiten observar ninguna especificidad que las haga sistemáticamente diferentes de las relaciones que, a su vez, mantienen las palabras con su entorno gramatical... La terminología debe participar de las mismas reglas de construcción de frases y de constitución del discurso que las demás unidades léxicas de la lengua".
[M.T. Cabré. op.cit. 170. or.]

Gai honek, ohar gisa, gogoeta berezi bat merezi du. Izan ere badirudi hizkuntza zientifiko-teknikoko terminologia terminoen gramatikazko kategoriaren aldetik aztertzen bada, kategoria batzuek proportzioz pisu handiagoa dutela besteek baino, eta lexiko arruntean baino:

"En la perspectiva del sistema de la lengua, la proporción de las distintas categorías gramaticales es ciertamente irregular. Las unidades de categoría nominal representan las dos terceras partes del conjunto de la terminología. Este dato se justifica porque una de las características peculiares de la terminología especializada es la tendencia a resolver nominalmente —y no verbal o adjectivalmente— la denominación de los conceptos de las áreas de especialidad. En una gran proporción, los conceptos de la estructura nominal de cada disciplina se materializan lingüísticamente en sustantivos.
[M.T. Cabré. op.cit. 220. or.]


Gogoeta horretatik aterata edo, sarritan entzun izan da, eta idatzi ere bai, komunikazio zientifiko-teknikoko diskurtsuan izen kategoriak pisu handiagoa duela bestelako komunikazio formaletan baino. Eta horretan oinarrituta arrazoizkotu nahi izan da,

adibidez, gisa horretako testuetan, gaztelaniazkoetan batez ere, nominalizaziorako antzematen edo den joera. Joera hori inon frogatuta baldin badago, gaztelaniazko administraziozko testuetan dago frogatuta. Badira zenbait ikerketa ordea, testu teknikoaren nominalizaziorako joerari buruzko baieztapen hori arraz mugatzen dutenak. G. Demers-ek dioenez adibidez, izenen proportzioa berdina izaten da frantsesez edo ingelesez zientzi testuetan; proportzio hori ez da berbera izaten zabalkunde eta asmo desberdineko testuetan; zenbat eta testuak oinarritzkoagoak izan orduan eta izenen proportzioa txikiagoa izaten da, izenordainen proportzioa handiagoa izaten den neurri berean:

L'écart de 5% entre les textes scientifiques et les autres textes s'explique, quant à lui, par la répétition quasi systématique des substantifs dans le premier cas, la proportion de pronoms anaphoriques ne dépassant pas 6% en moyenne, alors qu'elle atteint 25% dans les extraits d'ouvrages non scientifiques. Cette tendance à la "redondance" ... provient du souci d'éviter toute ambiguïté. [Demers, G.: "La nominalisation dans les textes scientifiques: Analyse statistique comparative de l'anglais et du français". La traduction au cœur de la communication. XIII FIT Congress. Vol. I. Institute of Translation and Interpreting. Londres, 1993. 176. or.]

Laburtuz, bada, eta "hizkuntza berezituak" eta "terminologia" kontzeptuak beren zentzurik estuenean harturik, esan daiteke hizkuntza berezituaren arteko komunikazioaren zehaztasuna ziurta dezakeen hizkuntza dela eta terminologiaren erabilera dela hizkuntza berezituaren ezaugarri nagusia, berez dagokion ezaugarri bakarra, terminologiaren bidez ziurtatzen baita kontzeptuaren eta izendapenaren arteko erlazio unibokoa. Eta horrenbestez, hizkuntza berezi-

tuaren eta terminologiaren kontzeptu horiek zentzurik estuenean hartzen badira —berriro— zinez esan daiteke orobat, hizkuntza berezitu baten, edo diskurtsu berezitu baten gainerako ezaugarriak ("estiloa") komunikazio egoerari, asmoari, eta gainerako hizkuntza funtzioei dagozkiela, eta ez direla berez eta derrigor hizkuntza berezituari dagozkionak, diskurtsu modu bati dagozkionak baizik: erregistro jasoa e.a.



Terminologia / hizkuntza normalizazioa

Orain arteko paragrafoetan askotan erabili dit "zentzurik estuenean" esapidea, eta ondo nahita erabili ere. Bi arrazoi nagusi izan ditut horretarako:

a) Orain arte egin den euskal terminologiaren oinarri nagusia ez da izan terminologia bilketa, hizkuntza berezituaren testu hustuketa, ezin baitzuen izan gainera, era horretako testurik (berezilarien artean beren espezialitateko gaien buruzko komunikazio zientifiko-teknikorik) oso-oso gutxi baizik ez baitzegoen. Egia da egoera hori aldatuz doala, eta badirudi zenbait gaitan berezilarien arteko komunikazioa itzulpenik gabe gertatzen dela euskaraz (hizkuntzalaritza e.a.), baina ez

dirudi maizenik oraindik ere horrela gertatzen denik. Horregatik bada, ez dagoenetik nekez bil daiteke gauzarik. Aipatu dudan SENEZ honen lehenengo zenbakian Martxel Aizpurua jaunak *Euskal tradizio zientifiko gutxi* aipatzen du "eragozpenik nagusienak" atalean landareen eta animalien izenen bilketari buruzko artikuluan [Aizpurua, M.: "Landareen eta animalien izenak". *Senex*, I. alea. 1984. 120. or.], eta aurreraxeago ezin hobeto azaltzen du arazoa: "*Egoera bestelakoa izan balitz, nahikoa zen zegoena jasotzea, e. b., "nola deritze malakologo euskaldunek halako moluskuari beren lanetan?" galdetzea nahikoa izango zen arazoa konpontzeko*". Malakologo euskaldun gutxi ordea malakologiako ikerketak euskaraz argitaraturik.

Zentzurik estuenean harturik, bada, oso gai gutxitan egin daiteke oraindik ere euskal terminologiarik, zentzu estu horretan, terminologia deskribatzailerik, alegia.

Beste alde batetik, itzultzaileari dagokionez, eta esan berri denaren ondorioz, bereziki azpimarratu beharreko gauza da gaur egun oraindik ere euskal itzultzaileak itzultzeko izaten dituen testu gehienak ez direla izaten testu zientifiko-teknikoak edo hizkuntza berezitua erabiltzeko testuak, euskal itzultzailea ez baita izaten, oso-oso bakanetan baizik, jakintza alor bateko berezilarien arteko hizkuntz bitartekari. Euskarara itzultzen diren testuak, argitaratzen direnak bederen, zabalkundezkoak izan ohi dira, berezilarien arteko komunikazio gabe. Gauza jakina da zabalkundeak jakintza berezitu bat behar duela lehenik zabalkunde izateko, eta terminologiari dagokionez ere, gaur egun oso laster gertatzen dela —irakaskuntzaren eta komunikabideen eraginez— gai askotan jakintza batzuen zabalkunde eta jakintza horiei

dagokien terminologiaren arruntzea (banalizazioa), eta neurri horretan terminologiaren zati bat hizkuntza arruntean agertzen dela txertatua, nahiz eta halakoan terminologia balio berbera ez duen.

Bi ohar edo gogoeta horiek oso kontuan hartu beharko lituzke itzultzaileak, nire iritzian. Susmoa dut izan ere —ez nik bakarrik, honetan sentimen zabal bat uste baitut ari naizela azaltzen—, eta askotan adierazi ere adierazi izan dut, hitzez eta idatziz, euskal itzultzailea askotan behartzen dela —edo behartzen dutela— fikziozko terminologia batez fikziozko hizkuntza berezitu batean jardutera, ez dakit hala ere fikziozko komunikazio bat lortzeko ez den, tamalez. Gogoan hartu beharko litzateke, gainera, komunikazioa ahalbidetzen eta errazten ez duen hizkerak motz itsusia duela etorkizuna, eta normaldu hala ere (normalizatu), ez duela ezer normaltzen.

Oso kontuan hartu beharko litzateke orobat, euskal itzultzaileek itzuli behar izaten dituzten testu asko eta asko gizarte honetan beronetan zabalkunderako sortuak izaten direla, eta ez oso onak, ez oso ongi erredaktuak. Ez naiz ari administrazioko testuez bakarrik, ezaguna eta mila bider aipatua baita testu horiek oso maiz, maizegi, izan ohi duten estilo trakets mordoilozkoa, bestelako "alta divulgación"-erako egindako testu askori buruz baizik, zeintzuetan alturik prententsioa baizik apenas gehiago sumatzen baita; prententsio horien artean —besterik behar zen—, zientifikotasuna nagusi, eta terminologiaren erabilera, haren ezaugarri.

Terminologiaren alorrean egin diren ahaleginak, euskarari dagokionez, euskararen normalizazio prozesuan aurreratuz joateko proposamenak izan dira batez ere, zein bere

irizpideen arabera eginak. Esanik geratu da terminologia ahalegin horiek gehienak ez direla terminologia bilduma gisa eginak. Saio horietan aipagarrienak UZEIren hiztegiak izan daitezke, terminologia asmoz edo egin-dako saiorik handiena hiztegi horietan baitago gure artean, eta horiek dira agian itzultzaileek erabilienak. Hiztegien sarrerak irakurtzen badira —ez dira askotan irakurtzen—, haietan esanak jaso daitezke. Hiztegi horiek ez dira denak maila berekoak (unibertsitaterakoak, unibertsitatera bitartekoak...); gehien-gehienak ez dira terminologikoak soilik, askoz ere zabalagoak baizik (jakintza alor bateko kontzeptu nagusiak, zientzialarien biografiak...); itzultzaileak gehien baliatzen duen alderdia batez ere (lexikoa) jakintza alor bakoitzari dagokiona baino askoz ere zabalagoa da; sarrera horietan ez da hitz egiten hizkuntza berezitez edo erabilera berezietarako hizkuntzez, “laneko hizkuntzaz” eta hizkuntza horretako “lexikoz” baizik. Zehazki esaten da “proposamenak” direla hiztegitan egiten direnak: *“Gure lan hau behin-behinekoa da, eta premiazkoak izango ditu kritikari eta lankide berriak, gerora maila jasoago eta helduago batetara eramán dezagun”*. [FISIKA /1 Hiztegia. Sarrera]. Hiztegi hauek, eta beste batzuk ere kontuan hartuta, oro har esan daiteke zati handi bat terminologia bere zentzu estuenean ez, baizik neologiaren edo, zehazkiago, neonimiaren eremuan kokatzen direla, izendapenaren balio terminologiko berriaz ari garenez. Neonimiak ordea, ez du baliorik erabilerak finkatzen duen arte.

Hori ere kontuan hartu beharko litzateke: ez lirateke hiztegi horiek ez diren bezala —terminologia finkatu baten emaitza bezala— hartu behar. Hartu izan baitira halako-

tzat. Badakit ez dela erraza idatzita ez dauden testigantzetan oinarrituta idaztea, nor bere esperientzietan oinarrituta idaztea, jeneralizazio arriskua baita beti, baina muturreko adibide gisa esan dezaket inoiz gaztelaniazko terminologiaren frogagarri ere aipatzen ezagutu dudala gisa horretako hiztegiaren bat.

“Euskara teknikoaren” inguruan —hizkuntza berezitua + terminologia— badirudi halako irudi gezurrezko bat sortu dela —ez dakit ez den bultzatu ere badakit noren probetxuan—: batetik oso hizkuntza erregistro gora bat balitz bezala, eta bestetik terminologia eskakizun zorrotz (soberazko) batez jokatu beharra. Egiaz gertatutako pasadizo bat, diodanaren argigarri: Euskal Herriko Unibertsitaterako euskal irakasleak kontratatzeke azterketa batean, aztertzaileetako batek “divisionalización” terminotzakorearen euskal ordain gisa ez zuen onartu nahi “sailetan banatze” esapidea; “UZEIko hiztegitan ekarriko du” erantzuten zuen. Ez dator UZEIko hiztegitan, gaztelaniaz ez da erabiltzen, ez dator gaztelaniazko hiztegitan. Termino-zalekeria nabarmena, ia-ia irakasle gaia lanik gabe utzi zuena; termino-zalekeria fundamentalismo terminologiko bilakatu, ai Lancre, Lancre!

Bi eratako emaitzak eman ditzake horrelako egoerak, eta bietakoak ematen ditu zinez: “euskara tekniko” horren eskarien aurrean komunikazio zientifiko-teknikoaren protagonista behar luketen berezilariak uzurtzea eta testu sorkuntza itzultzaileen esku (“euskarako teknikoak”) uztea batetik; bestetik komunikazio fikzio bat eratzea, itzulpenari (“txarrari” zehaztu gabe) egozten zaizkion akatsez (kalkoz) beteta dauden eta ulertuko badira erreferentzia gisa beti ere gazte-

laniaren ezaguera on bat behar duten euskarazko testuetan gauzaten dena. Ez da harritzekoa —eta halaxe gertatzen da, askok aitortu baitidate— testu horien erabiltzaileak —unibertsitateko ikasleak adibidez, baina maila apalagoetako erabiltzaileak ere bai— askoz ere nahiago izatea gaztelaniazko —gaztelaniazkoak izaten baitira— testuez baliatzea, euskarazkoen baino.

Azken-azkenean ordea, terminologia proposamen guztien ondoren, eta haien gainetik, egiazko komunikazio zientifiko-teknikoa eratzen denean, komunikazio horretan finkatzen da terminologia, eta orduan du zentzua terminologia horretaz, terminologiako zentzu estuenean, baliatzeak. Proposamenen eta egiaz baliatutako terminologiaren arteko lotura edo deslotura, egokitasuna edo desegokitasuna, proposamenak eta neurri on batean hizkuntza berezitua baduten alorretako (hizkuntzalaritza, adibidez) terminologia alderatuz neur daiteke nolabait.

Bitartean itzultzaileak ongi neurtu behar du itzulpen bakoitzean testuaren nolokotasuna, testuaren norentzakoa, eta hala erabaki zein hizkuntz erregistro erabili, zer irtenbide eman terminologiako arazoei (terminologia, parafasia...), nola eratu komunikazioa, komunikazio hori egiazkoa izan dadin. Itzultzaileak jakin edo erabaki behar du kasu bakoitzean terminologia zenbateraino dagoen finkatuta, zenbateraino dagoen zabaldua, zenbateraino den komunikazioa ziurtatzeko beharrezko.

Laburbilduz

Orain artekoak irakurrita badirudi halako terminologiaren kontrako joera bat dariola idatziari. Ez nuke nahi halakorik. Uste dut

behar bezala eta behar denean baliatu behar direla hizkuntza berezituak eta terminologia, baina badakit hori esatea eta ezer ez esatea berdintsu edo dela.

Alderantziz esanda hobeto uler daiteke agian: uste osoa dut gaur egun oraindik itzultzailea dela terminologiaren erabiltzaile —eta horrenbestez finkatzaile— nagusia. Ez dakit non dagoen termino-zaletasunaren eta termino-zalekeriaren arteko marra fina, baina uste dut hizkuntza berezitua eta terminologia, kontzeptuok har daitezkeen zentzurik estuenean hartzeak eta horretatik agerian dauden ondorioak ateratzeak, hizkuntza berezituak eta terminologiak duten zentzua ongi ulertzeak, eta batez ere hizkuntza bateko eta besteko terminologia finkatuen artean izan behar lukeen baliokidetasun erabatekoa gurean ere —euskarazko komunikazio zientifiko-teknikoa urria delarik— automatikoki gertatzen delako sinestea alde batera uzteak, komunikazio egoera bakoitza hobeto aztertzea eta eginkizun hori hobeto betetzeko baliabideak bilatzera bultzatzen dutela itzultzailea. Behar ez den terminologismo soberrako batek komunikazio fikzioa lor dezake, gehienez ere; komunikazio fikzioak aldiz normalizazio fikzioa baizik ez eta egiazko normalizazioaren atzeratzea.

Eta azkenik, uste osoa dut, baita ere, itzultzaileen artean —taldeka diharduten itzultzaileek erraztasun handiagoa dute honetarako— beren itzulpenen sorkuntzan behar turik egiten dituzten kontzeptuen izendapen berrien komunikazioa bizkortu eta erraztuko balitz —informazio autopisten lastertasunak arrazabiatu gabe horretarako bideak ere jarri behariko genituzke—, aiseago sortuko eta zabalduko litzateke terminologia doiagoa, testu premiei atxikiagoa.

Harpidetza Txartela

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ P.K.: _____ Tlf: _____

Banku edo Aurrezki Kutxa: _____

Entitatea	Bulegoa	K.D.	Kontu-zenbakia
□□□□	□□□□	□□	□□□□□□□□□□

Kontuaren jabea: _____

NAN edo IFK zk.: _____

Helbidea: _____

Entitate horretako kontuan zordun itzazue nire izenean aurkez diezazkizuen ordainagiriak.


Ordainketa faktura bidez egingo dut.

Data: _____

Hemendik aurrera harpidetza nahi dut

SENEZ aldizkariaren zenbaki zahar guztiak nahi ditut

Honako zenbaki hauek nahi ditut:





EIZIE

